

gila obata

Saito Ouandis (W. Bauer)

K A L E A

Nobela

KALEA

0

Bere urtako beste edozein gaztearen antzekoa dugu Mikel. Emeretzi urte eder eta arin daramazki ezurretan eta aragietan. Guztiz lirain eramanez ere.

Erri ontako neskatillek, bertan jaiok bakarrik ez, baizik eta beste errietakoak ere: Badajoz, Murtzia, Almeria, nungoek ez? neskatxek, guziek, atseginez begiratzen die.

Besterik ez da entzuten kalean, enparantzaren, trabernan, lantegian, nesken aozapitan. Mikel. Ura mutila!

- Aizan, Madalen, inoiz dantzatu aal aiz Mikelerekin? Juan den igandean nerekin unan. Eta, noski, orrelako mutillek ez den sekula santan nere besoetan izan.

- Neska, atzo ikusi aal unan Mikel? Tergal zurizko alkondara eta bakero urdinezko prakak zizkinan. Eta bera, irribarrezka. Olako mutillik ez dinagu inguruetan.

Aspaldi ontan, nere erriko lantegietan, enparantzetan, dantzetan, kaleetan, besterik ez da entzuten.

Nere erriko neskek oro zoraturik direla dirudi. Edota, guziak batera eta batekin, biotz-mindu direla osoki.

Mutal partarik ez zen errian, baina Mikel azaltzean, neskatillentzako besterik ez zen. Mikel, Mikel, Mikel!!!

Erriko bikarioa ere, Konturatua zegoan eta bein baino geiagotan itzeginda ere bai gai ortaz elizan. Noski, lantegi berriko gaztearen izenarekin ezertan sartu gabe, Mikelen aurkako gauzik aitatu gabe, baina "zaarrak", askotan nesken buru arinak zirikatu naita, etzion geldirik eutsiko mingainari bere aozapai motelean.

- Neska aloak, eta barkatu arren nere itz gogorak, neska zikinak, baina ze pentsaten duzue... Gau ta egun, mutillekin burua nekatzen euki

Bainan epe erriko neskatxei bost ajola eta erdi bikario jaun zaararren itzaldi-mintzaldiak. Mikel zuten begiko eta biotzeko eta gibelego.

- Geroago eta tontoago den, Anttoni, gure apaiz zaarra.

- Oi! Ambrosi, apaiz gazte bat bear dinagu. Seguru aski, orrelako itzaldirik ez unan elduko gure belarrietara elizan apaiz gazte bat izan bai ginenan alboko errian bezala.

- Bainan, gu, Mirari, neska aloak eta zikinak...!!!

Eta ori jai oro entzun bear gizonaekoa irribarrezka ditugula beren aulkietan, begi azpietatik begira eta begira ditugula???

Gotzai jaunarengana joatea merezi din, bere aurkako ekinaldi bat eginez eta amaika eta erdi abestu eta apaiz gazte jator bat eskatu...

Gu, aloak!!! Gu, zikinak!!! Gu...!!! Ikusiko din...

.....

Mikel gastea baserrian jaioa dugu. Izarraitz mendi arroaren magalean, mendi etxe baten sukalde gozoan.

Lendabiziko urteak, antxen, igaro zituan jolasean, abere eta arbola eta arkaitz arpean.

Amabi urterarte, auzoko ikastolan, ibilli ondorean, gero, bereala, baserriko lanari ekin bear izan zion, mendiko legea ori denez.

Eta ikastolako egunak eta lanak bukatzean, lagun izan ditu Izarraitz'ko txokoak, bazterrak, leiza-zuloak, sasiak, zuaitzak, txoriak, kabiak, ardiak, axeriak, biorrak, lar-beiak, gatorrak, subeak...

Egunik gozoenak eta garratzenak, ortxen, igaro ditu lanean. Izarraitzen. Erloko mutur-muturrean, goizean goiz, arkaitzean jarrita, ardiak eta arkumeak, txabolan edo zelaian, lo zirela, eta itxas-aizea marmarrean zugaitzetako ostroekin, bein baino geiagotan ikusi izan du illargia, ori-zuri, jaoitzen, bein Ernion, bein urrutiko itxas-ertzean.

Pago lodi, sendoaren adar nagusira igota, orduantxe beste pago zaarretan txoriak: txio-txioka, maite-maiteka, arrak eta emeak elkarrekin kabi zuloan gabaren illuna gozoro pasa naian, ikusi izan du, an, urrutian, Elosu aldean, eguzkia polliki polliki izkututzen.

la zuritzen dituan Izarraitz'ko arkaitzak eta belarrak ongi ikasia da. Inoiz eta berriz, ikusi izan ditu mendiko abereak, biorrak eta zaldiak, lar-beiak eta zezenak, ardiak eta ariak, eta axeriak eta txoriak eta txindurriak, arrak eta emeak, elkar maitatzen eta elkar gorrotatzen. Ikastola aroa bukatzean, ongi ikasi du mendiko lurraren esana. Ama lurraren deiak, abereak sexoalitatez beterik ikustean, berari ere, minez, eragin dio bein baino geiagotan, txabola zaarrea, edota, pagoaren kerizpean.

Izarraitz mendi galantak, denetik dauka. Emendik, beste edozein menditik bezala, ongi ikusten dira lainoa, euria, izotza, kaskabarra, elurra, aizea, ekaitza...eta kalea.

Mikel gazteak, Izarraitz mendi paregabea, lau-bost urte auetan, Xoxote izeneko muturra, izan du lagunik bikainena, eta lekurik maiteena.

Egunero, ardiak, arkumeak, biorrak, pagopean, edo arkaitz tarteko belardietan laga orduko, Mikel antxen zen. Xoxoteko Inazio deunaren irudiaren oinetan. Mikelerentzat, ementxen, ordurik eta ametsik ederrenak. Noski eta noski. Mikel artzainoak benetan maite zuan Xoxote alderdi airetsu au. Urte gazteek erakutsita, Mikelek ongi zekian, mendietan, mendi-munotan, amets egiteko bear-bearrezkoa zela aize-zuloa, eta aatik zuan ain begiko Xoxote munoa. Xoxotetik, alde aurrean ditu Ernio, Txindoki, Pagoeta mendi zaarrak. Xoxotetik, Urola ibai biurriaren ertzean, alde bietara, etxe txuri-beltz, ederki asko ikusten dira Azpeiti eta Azkoiti, erri pamatuak Euskalerrian barrena.

Xoxote inguruan, inoiz ez da aizerik paltatzen. Ego-aizea dela, dela itxas-aizea, dela ipar-aizea, beti airetsu Xoxoteko arkaitza. Orain gozo, itxas-usaiz xamurtuta udaberrian. Orain negartsu eta gogortsu, ekaitz beltz, neguan. Orain kixkaltsu, erre-minez, udaran. Orain eta beti, eder, ameslari, garo-usainez beterik, ego aizez apaindurik, udara-azkean.

Naita edo naitzeta, gure Mikel artzainak Izarraitz-aldeko zelaitan, pagaditan, arkaitzetan, amets egin bear.

Amets larrarekin. Amets illargiarekin. Amets zeruarekin. Amets dirua-

rekin. Amets emearekin. Amets baserrirekin. Eta...amets kalearekin.

Kalea!!! Or, Izarraitz-pean, Azpeiti eta Azkoiti erri zoragarriak. Gipuzkoan eta Euskadi osoan guztiz famatuak.

Urteoro, mendia utzirik, kaleratu izan da gure Mikel baserritarra. Pestetan, Inazio deunaren egunez, Azpeitiara. Xexen korridetara. Txuleta jatera.

Andre Marietan eta San Andresetan, Azkoitiara. Pelota jokura. Idi dematara.

Egunotan, orain artean, orduantxe, bi erriko pestatan, kosta zaio Mikel gazteari mendiko izaten. Azkoiti-Azpeitiko pesta ondorena izan zaio nekegarriena Izarraitzko munotan eta zelaietan. Xoxoteko aizeak, kale-usaina zekarkion gorputzera. Arimara. Xoxoteko aizea, Izarraitz mendiko aizeak negarrean, pozean, beti ere txistuka, auxe ziola iduritzen zitzaien: Kalea!!! Kalea!!! Kalea!!!

Urtea juan, urtea etorri, geroago eta indartsuago astintzen zion biotz-mamia kale-amets onek. Beti ere, erne edota lotan...Kalea!!! Kalea!!! Kalea!!! Beste amets denak, mendiko ametsak, kaleko amets-ekaitzak ondatu dizkio Mikeli, azkenez.

Ziurki, gure Mikel gazteak, baserritarrak, artzainak, batez ere ikastolako aro aspergarria igaro ondoren, biotzez maite izan ditu baserria eta ardi-borda, ukullua eta zoroa, biorrak eta lar-beiak, mamorroak eta subeak, be, ardiak eta arkaitzak.

Bainan, Azpeiti-Azkoitiko kaleak bere munetan sartu ezkeroztik, bere odol gazte beroan, kale-ametsa zen nagusi. Kale-ametsa zebillen, jira-biraka, bere odol-zainetan.

Azpaldian, Xoxoteko arkaitzetako aizeek ez dute Mikel artzainaren biotz-mamian lengo ixtorio-mixtorio gozorik. Izarraitz-peko kaleetan, gabeko argi artean, jaio ondorean, goruntza, Xoxotera, ardi eta biorartera, bere arnasara, datorren aizeak, auskalo noruntz eramanez dizkion, orain artean, aia maite zituana zerak, Izarraitz mendi galanteko fruituak. Izarretara? Itxas-aldera! Ernioko sorgin-etxera? Auskalo!!!

Ondorena, jakina. Mikel, zearo azpeltu zen ardiak zaintzen. Azpeltu

zen Inazio deunaren itzalean. Azpeltu zen mendian ar-emeak aberetasuna sexualitate gogorrean zutelarik, egunez eta gauez, ikusten. Azpeltu zen lar-bei, mamorro, bior, garo, pago-toki alaiarekin.

Jetxi zen aita-amen baserrira. Eskatu zien berea. Eta, baserria eta baserriko zerak agurtuz, jetxi zen kalera. Bide-xiorrean barna zijoala, gaztain-arbola sendoaren ondoan jartzean, entzun aal izan zuan artaldea-ren abesti tristea: Meeee!!! meeee!!! meeee!!!

I

Lendabizi, Ambrosi, neskatl polita, konturatu zen. Lantegian, zerbait gaizki zijpan. Leengo asteetan, tornilloa, egin ala bota oi zen estranjeri aldera. Bainan, bi edo iru aste auetan, egin ala, almazenera, gorde lekura, ikusten denez, ez bai dauka tornilloak irteerarik estranjeri aldera. Azoka mindu eta erre da, noski.

Lantegian, goiz onetan, neskek, Mikelekin oroitzeko betarik ez dute. Bestetan, Mikel, kalean azaldu zenetik, ao-zapaitik kentzeko erabiliko zuten gozoki erabili ere, ao-zapaia txistu gozoz beterik, Mikel izen polit ori. Gaur, ordea, lantegi-kontua bakarrik dute.

-Madalen, ez al den pentsatzen, ongi gerta zaiela gure nagusi antojagarri oiei?

- Bai, noski. Orain artean arrapatzea besterik ez dine egin eta, ongi merezia gertatzen zaiena.

Ambrosi zen, ordea, geien-geien, mintzatzan ari zena une aretan, lantegian. Etzan erraza neskatxa ari itza kentzea. Bere alboan lanean ari zirenak, belarriak oro erne zituzten. Batzuk, lantegian, zer gertatzen zen jakin naiak eraginda. Bestetzuk, neskatilla utsean arrapatu naian. Urrutikoak, berriz, lana noiz bukatuko zain zeuden, kalean neskatxaren itza, egarritz, entzuteko.

Anbrosiren jarduna. Neskatil langille pinaren itz apala, itz beroa.

- Arren, ezazue ain arin eta ain geizki itzegin. Ordaintzeko orduetan, guk izerdiz irabazifako txanponak, bere kutxarako izaten dituela, ez dinat ukatuko. Azpaldian, gu eta besteak, ezin aiztuko gaitun beste tallerretako langilleekin, azpaldin esan nai dinat, nagusiak aberasten ibil-
liak gaitun. Bainan, neska, batetik, Kristoren legea dinagu. Inor ez gorrotatu. Inori gauza txaarrik ez opa. Lagun urkoaren minarekin ez poztu. Bestetik, ..lantegiak lurra jotzen badu, i eta ni, eta beste asko lanik gabe geratuko gaitun. Ogi-biderik gabe. Ondoren onik ez, noski. Kaltea denontzako. ↑Lantegia, menditxo baten magalean zegoen. Errekalden.

Ur-Eder errekek buztitzen zizkion ormaren orpoak.

Direla urte batzuk, Errekalden, beste etxerik ez zen. Bakardadean eta bakarrik tornillo-lantegia eta erreka, ur-ederrarekin, ortik erreka izena, eta mendi magalean, zelai zabala, belar berdearekin. Orain, berriz, erreka ur zikinez dugu, eta, zelaia zen tokian lantegi-saila.

Lengo urteetan, erritarrak, eguraldi ona zenean, naiz udaberriz, naiz udaran, naiz udara-azkenez, arratsalde-pasa, atseginez, Errekaldera jo oi zuten. Aurrentzako toki berezia zen. Inudientzako, aur txikiak gurditxoetan, zelai-ertzeko zuaitzpetan utzita, kaleko zerak konpontzeko, lekurik gozoena zen. Seguru aski, Errekalden ba zen aurrentzako eta aurr-zaindariantzako giro eder-zoragarria.

Arrantzaleak, aingura, amorrain, eskaillu, kangrejo arrapatzaileak ere, oso berea zuten alderdi au. Errekaldea, alegia.

Bainan, tornillo-etxea eta beste lantegi etxeak egin direnetik, ez dago arratsalde-pasa, Errekaldera joaterik, ez bai dago zelairik. Ez bai dago arrainik.

Orain, Errekaldera, tornillo-lantegira berrogetamar neskatxa joaten dira eta beste orrenbeste gizonezko beste lantegietara. Egunero. Neguz eta udaraz. Ilbeltzean eta Martxoan. Elurretan eta txingorretan. Garizuman eta abenduan.

Euren aita-amak, orain langille direnen gurasoak, gazte zirelarik, ezkongaietan, maite-maiteka, bein eta berriz etorri izan ziren erromeri, Errekaldeko ibai-ertzeko zelaira. Ujuju eta ajaja, ibilli ere bai elkar-maitasunaren deiari, jarraituz.

Bainan, gaur egun, Errekalden, ez dago maitasunarentzako lekurik. Lan-tegi biurtu da. Izerdi-leku.

Leen, ezkongaietan, kontu-kontari, biotz-minez, joango ziren errekaldera neska-mutil gazteak. Gaur, naiz ezkongai egon, naiz mutil edo nes-kazar, giz eta arrats, eguneroko ogia irabaztera joan bear izaten dute gazteak. Errekaldeko zelaiek, lantegiak sortzean, galdu zuten erromeri-usaina. Galdu zuten, orrenbeste neska-mutil gazteek, biotz-minez, an,

zelaietan, zugaitzpetan idatzitako istorio-mistorioa.

Orain, denentzako, kondaira berria. Zortzi orduko lana. Izerdia. Garraztasuna. Nekea, lanak gorputzari eta arimari eman oi dion nekea, seguru aski, ongi saritua denean, eramangarri izaten da. Noski, sari ona, dirua, baita mundu guzietan, gizonen oinazeak gozatzen eta lan denak arintzen dituana.

Bainan, Errekaldoko neskatxen biotzeko nekea garratza zen. Beltza. Il-luna. Zortzi ordu luzeetan, lanean aritu arren, saritzat, milla peseta triste besterik etzuten jasoko. Eguneko, milla peseta zikin!!!

- Madalen, aizan, milla peseta alu oiekin, ire etxean izaten aal den aragirik?

- Kontxesi, ortarako ez zegon deretxorik. Aste guzian lertu arte lan eginda ere, Zumaiara igerira joateko uretako soinekorik ezin dinat erosi.

Onelako edo bestelako elkar-izketak, egunerokoak eta ordu guzietakoak ziren. Neskek ez zuten atsegirik Errekalden. Lan-eza bai zen inguruetan, lan-tokia gordetzearren zeuden an, tornillo-eginez, nekez, izerdiz, minenez.

Anbroso bakarrik zen, lan bitartean, eta lana bukatu ondoren, itxuraz beintzat, pozez. Beti ere, irriparrez. Anbroso, neska gazte politaren biotzean, oindio, arantzarik ez zela sortu zirudin. Naturalki zetorkion irriparra ezpanetara. Eta, prest zegoen beti, lantegiko nesken naigabeak arintzeko, gozatzeko.

Onegaitik, alegia, Anbroso mintzatu da mintzatu den bezala. Pake-billa. Nesken nerbioa menderatu naita. Makina bat aldiz, gure Anbrosik itzegin die neskatza langilleei, lasaiki itzegin ere, lantegiko goraberak direla-eta.

Bainan, gaur leen eta orain, naiz eta orrela bere arpegirik azaltzerik ez nai, itzegitean, ezpanak dardaraz izan ditu, matraillak gorri, biotza kezka. Langilleen aurrean inoiz bildurrik eta lotsarik ez du izan. Noski. Itzegiteko unean eta gaur eguneko une guzietan, almazena beterik ikustean, lantegiaren etorkizunak bakarrik ematen dio dardara, ezpanetan,

matraillean, ortzetan, biotzean, arnasean. Aatik, bere eta neskatzen etorkizunak. Ambrosi, neskatilla langilleak, gaur, etorkizuna, oso beltz ikusten du, Lantegia laister itxiko ote den bildur da. Kiebrara joko ote duan kezka da. Jakina zuan, azpiko lanez, erriko bankoak, beste lantegi askorekin esku-zabal joka arren, Errekaldeko tornillo-tallarrarekin ar-tu-emanik ez dutela nai. Beren ustez, Errekalderi, errekaldeko zelaiari bezala, errekaldeko ur-ederrari bezala, erioa datorkio. Berari ere bai. Neskatxei ere bai. Bizitzan, eriotza! Errekalde iztean, kalean geldituko dira. Kalean...!!! Buruko amets-lekutik kalerik ezin du kendu. Eguneroko lana bukatzean, ain eder izan arren kale ori, gaur, lantegian, ordu guzietan, kale orrek min ematen dio.

- Ez. Ez, Kontxesi. Ez. Ez, Miren. Arren, orrelakorik ez zazue esan. Noski. Ez den ongi portatu gure nagusi jauna. Gure sariarekin, gure eguneroko jornalarekin, gure aita-ama zaarrek, azokatik, gure eta bere, eta gure etxeetako aurtxoeti jaten emateko, beste munduko gauzarik ez dine ekarri. Dotore jazteko ere, ez dinagu soinekorik izan. Beti ere, erdi-gosez. Beti ere pobre.

Bainan, Errekaldek, gure lantegi onek, kiebra egiten badu... Ai, neska!!! Kalea izango dinagu. Eta kalea, lanik gabe, itxusia den. Eta, kalea, jornalik gabe, beltza den. Eta, kalea, lanik gabe, gose-usaindun den. Aatik, neska edota langille maiteak, ez gaitezela onela mintza. Olakorik gerta ez dedin, aal dena egin dezagula lantegiaren onerako. Egiten duguna, seguru aski geure onerako izango dinagu.

Errekaldean gertatzen zena, erriko beste lantegi askotan ere gertatzen zen. Lantegi txikiak, batez ere, lurra jota zeuden. Lan-ezaren oiu illunak, kaleak mendeko arturik zeuzkan. Etxe askotan, sorgin madarikatua balitz bezalaxe, zebillen azpalditik lan-eza, txokoak, biotzak izaturik.

Errekaldeko langille den Ambrosi neskatillari ere, orreitek biurritzen dio erraia, eta berotzen zainetako odola. Errekaldeko lantegiko neskatxa langilleak, pobreak, orain artean gutxitxo irabazi arren, lana bukatu ondoren, kalean, Mikel zela, ez zela, algaraz ibiltzen zirenak, orain, ogi-biderik gabe geldituko ote dira kalean gali potari begira, edota Mikel,

baserritik etorritako mutil gazte galantari???

Anbrosi eta beste neskatzak, lantegitik ateratzean, zerua laino beltzez estalita zegoen. Eta, kalea, luze-luze, gizon-emakumez, langillez beterik. Denak, nekea sorbaldan zutelarik, ixillik, afaltzera, atsedean pixkat artzera. Mikel, lasai, tabernan zegoen.

I I

Mikel, baserritar gazteari, atsegin zitzaien, lenbiziko egunetik, kalea. Kale nagusia, besteen gainetik. Geroago eta azkarrago sartzen zitzaizkion barreneraino, biotz mamiraino, or-emengo kale-kumeak. Kaleari ez dio bildurrik. Baserritik jeitxi orduko egin da kaletar. Eta, lendabiziko egunetik, kaletarrek ere, bere kideko artu dute, eta, Mikel, berez jator jitekoa denez, aitzikirik gabe, laguntzat artuko dute.

Mendiak, baserriak, ez dio ikutu aundirik laga. Edota, ikuturik utzi baldin ba dio, kaleetako aizeak, bereala, garbitu dio. Noski, gure Mikelek, Izarraitzko muturreko arkaitzetan eta baserriko ukulluetan, eta ardi-bior artean, menditar ongi jokutzen. Beste mundurik zenik ere ez zitzaien burura etortzen.

Aitona-amonen aitona-amonengandik zetorkion baserria, mendia, basoa, arkaitza. Txoriak eta lorak, trumoiak eta tximistak, goiko urdina eta lainoa, iturriak eta errekek, zelaiak eta basoak, ontzak eta txinarak, eta txepetyak, eta sosoak, subeak eta mamorroak, egiz, lagun izan ditu. Seguru aski, urte askotan, kale-kumeak baino geiago.

Bere guraso zaarrek, asmo onez, biotz garbiz, eurak, ortara jarriak izan ziren bezala, ortara jarria zeukaten seme-alaben biotza, batez ere, Mikelena. Mendia maite zuten eta mendia sartuko dute seme-alaben mami-etan. Pestatan, bakarrik, oroituko dira kalearekin. Bestela, kalea, gure baserritarrentzako azoka zen. Azoka aundi bat.

Azoka-egunez, oitura izan da Mikelen baserrian, auzoko baserri guzietan bezala, kalera, azokara jeixteko. Lengo urteetan, aitona-amonak. Orain, aita eta ama jeitxiko, noizka-noizka, semerik zaarrena berokin dute-

larik.

Aita, praka urdinez, artillezko galtzerdi txuriz, blusa beltzez, alkondara zuriz.

Ama, belauna baino pizkat beeraxeagoko gona illunarekin azpiko gona gorria tapatuz, aitak bezala artillezko galtzerdi txuriak, eta zapitxo txuriarekin moinoa lotuz.

Gazta, aza, porru, patata, gaztaina, intxaur, sagar, txermen, ollo, kornejo, arkuma, txaal, fruitu, eramango dituzte azokara, garaian garaikoak, fruitu oien trukez baserrira itzultzean, gozoa, txokolatea, akeita, opila, alpargata, olio, txanpon batzuk emanaz.

Kalea, ortik aurrera, gure Izarraitz aldeko baserritarrentzako, igandetako goiz-goizeko meza edo meza nagusia, itzaldi ta guzti, zen. Jantziarik garbienekin etorriko ziren, kristau oiturari jarraituz, aita-amak semeekin, denak pozik meza entzutera.

Baserrian gelditu diran aitona-amonak eta aur txikiak, irratitik entzungo dute Inazio deunaren elizeko meza zoragarria, ukulluko beien eta txalen eta baratzeko olloen kanta triste, lagun dutelarik. Eta, meza txikia edo nagusia bukatzean, berriz ere, aiton-amonentzako gozoki batzuk erosi ondoren, etxe, baserriko, mendiko bidea, aldapa gora.

Gure baserritarrentzako, Mikelentzako bezala, kalea orixe zen. Pesta. Meza. Azoka. Ortik aurrera kaleak ez du ezer geiago. Kalea otsa da. Kaleak aizerik ez du. Kalea illa da. Kaleak ama-lurrak mendiari ematen dion edertasunik ez dauka. Mendietako pilosopia dute maixu millaka urteetan. Aatik, beste pilosopiarik ez dute ikusten.

Eta, Mikel, artzain gazteak kaleko pilosopia ikusi eta ikasi duanian, ez dute jakin zer esan. Beste mundu batera jon dela pentsatu dute. Mikel, biotzez baserritar izan den gaztearentzat, ordea, kalearen zera, kalearen pilosopia, kalearen arnasa, mendiko baserrietakoena baino ederragoa da. Noski eta noski. Olako ederki, inoiz ez da bizi izan. Kaletarren bizimoduari jarraitzeko lotsarik ez dauka. Jitez galanta. Osasunez, mendiko aritz. Diruz, sakela beterik.

Kaleratzean, gurasoengandik artutakoa, aundia zenez, jaiotz-etxea ze-

laiz, basoz, pinuz, ardiz, biorrez, ugaria zen, inguruetan baserri aberatsagorik ez zen; noski, diru-ezaren kezkarik ez zeukan. Onegaitik zebillen dirua errez kaleratuz aurrezki kutxetatik, geroari begiratzeko. Atsegin zailo kalea eta kalerako du aita-amengandik artutako soldata.

Oindio, kalearen eztena zorrotza norlakoa den ez du ikusten. Kaleak, bere galipot gogorrean duan biurrikeriak, oindio ez da konturatu. Kaleko txanponek zertara beartzen duan gaztearen grina, oindio ez daki. Kaleko pilosopia ez da egun baten ikasten dena. Salamankan ere ez. Baserrian gutxiago. Onegaitik dabil Mikel lasaiki, lenengo egunetan, kalean, erriko pikaro guziak berekin dituelarik zurrutean.

Goizeko orduetararte oiek ditu tximeleta bere inguruan. Ardo, patxar, patxaran, akeita edatalleak. "Monte-Kristo" eta "Partagas" erretzailleak. Eta lagunak zirikatuta, lenbiziko egunetan, Mikelek alferrera joko du: edanera, aragikerietara.

Baserrian, an mendi goian, Xoxote aldean, Izarraitz puntan, bizi zenean, goizean goiz, eguzkia baino lenago esnatzean, bizkor eta arin, jaikiko zen nekerik gabe, eztarriko zikinkeririk gabe, buruko minik gabe. Esnatzean, txoriekin batean, kantari izango zen zugaitzpean. Eguna argitzean, inork agintzeke, sukaldeko eta ukulluko eta mandioko lanak pozik, nekerik gabe, irrintzi bizian, beteko zituan.

Gaur, kalean, Mikel, baserriar gaztearen barnean, olako girorik ez dago. Mendiko argi ura itzaldu zailo. Oitura berriek, kontuan erori gabe, menderatu dute bere zera osoa.

Kaleak lilluratu zuan ametsez, an, Xoxoteko arkaitz nagusian, Inazio deunaren irudiaren oinetan, eta, zearo eta guztiz, kalearen mendeko jarri da. Mendiko zelaiak, belarrak, lorak, igertu dira osoki bere barneko baratzen. Barnean, umetatik, zituan arbolak, kaleak ebaki dizkio. Lar-beien eta biorren eta ardien oiuren oiartzuna ixildu da zearo bere barnean. Kalea bizi du.

Emendik aurrera, kaleko denez, kaleari jarraitu bearko dio. Kaleko pilosopia jakin ez arren. Kaleak, galipotetan izkutaturik, zer duan jakiteke.

I I I

Zumaia. Azpeiti, Azkoiti, Zestua aldeko neska-mutillek oro, udaran, eguzkiak indartsu jotzen duan egunetan, itxas-ertzeko erri polit onetara jo oi dute. Igandez, batez ere, erri oietako kaleak gaztez utsik galdituko dira. Illunabarrez, berriz ere, Urola ballerako den tren txiki-polit-berezia etortzean, beteko dira kaleak kantuz, txikiteroz, neskaz, mutillez, kalekumez.

Eta, Gipuzkuko beste erri koxxorretan bezala, illuntzeko giroan, or ibiliko dira, kalean gora, kalean bera, orain beltz bat, orain zerbeza bat artuaz; beti ere, barneko amodioa elkarri erakutsiz.

Zumaia. Igande onetan, erria, neska-mutillez beterik, inoiz baino dotoreago, inoiz baino atseginago, inoiz baino politago agertzen da. Ura erriaren gozpa! Ura, erriaren bizia! Ura erria, igandeko egunez, eguzkiz, kerizperik gabe jantzirik, neska-mutillez beterik, erririk baldin bada Gipuzkun, edota Euskalerrin, edota mundu guztian.

-I, Mike. Zer iduritzen zaik? Ez aal zuan merezi etortzeak? Ez gaituk beti, or kale zuloan, or lantegi barrutan sartuta biziko, ala jainkoa, joder!

- Mikel. Begiratu zak, begi zuloak zabal, Ambrosi eta neska-taldea, antxen zeudek. Bere tontortxuekin, jantzi arinez, ez dituk nolanaikoak. Ez dituk, ostia, besteentzako.

Azpaldi ontan Mikel, jendeak, kaleko oiuk, dionez, burutsuago jokatzen ari da. Merditik kalera jetxi ondoren, oindio etorri berri, oindio pizka bat bederer. kaleko pilosopia ikasteke, or ibilli izan da, ez jakinez, denbora pasa, festarik festa. Kaleko lur gogorraren zerak, indarrak, mozkortu izan du lenengo aldian, bere barrena. Kaleko giro-billa etorri izan da, eta giro onea ederrean, oso osorik murgildurik, ibillia da. Sekula santan baserritar izan ez balitz bezala, kalean azkar-azkar ikasitako pi-

lospiaren jabe izan da eta agertu ere agertu izan du lagun artean, pilosopia ori mendeko duela, naiz eta sarritan, pilosopi berri ori baserrian ikasitakoarekin naasi erabili, bai barnean, bai azalean. Seguru aski, odolean baserriak ixil eragiten dio, erne eta lo dela ere. Aatik, mendiko zerak bezala erabiltzen ditu askotan kalekoak ere, berez, oartu gabe. Bein baino geiagotan, buru barneko mamietan erabili izan du, eta noizka-noizka egunean zear, oindio ere erabiltzen du erantzunik gabe, galdera au: "Ez ote da abereagoa kaleko jendea mendiko artaldea baino, Xoxoteko bior-taldea baino?"

Basoko eskolan ikasia denez, abere-erria dauka, nai ez arren, oiuka, barnean, biotzean, ametsean, izketan. Edozein gizonaren nortasuna, edozein adiskidearen zera, edozein lagun-urkoaren jokaera nolakoa den adierazi nai duanian, aberea izango du medio. Gizonaren aberetasunak eragingo dio mingainean: ura, Arkaitz, akerra duk. Ura, Ainara, basauntza duk. Ura, Ander, subea duk. Ura, Burni, ontza, gautxori duk.

Mikelentzako mota guzietako aberez beterik zen kalea. Goiko kalean, beko kalean, udaletxean, elizan, toki guzietan, subeak, akerrak, gautxoriak zebiltzan.

Kalea bera ere, barrendik asita beste muturreraino, ekaitzpean, irudimenez ikusten asi zen. Dena illun. Gorrotoaren, elkar ikusi ezinaren, enbidiaren, lapurketaren, gezurraren, koxkaketaren mendeko. Geientzuk, basoan, kanpatorrean, illunaren babesean, ontzak, lapur bezala, zebiltzan kalean. Izen onaren lapur. Diruaren lapur. Aragiaren lapur.

Azpaldi ontan elizak ere, ez zion ikutu aundirik egiten. Onik ere ez. Menditar zelarik, atseginez begira oi zion goitik bera, urrutira, erri erdian, lirain, agertzen zen, elizeko kanpatorreari.

Zelaian, ardi, arkume, artean exerita, sarritan izango zen, zai eta zai, Azkoitiko kanpatorreko "dun-dun" zarrak, noiz joko. Atseginez. Pozez, noski. Mendiko ederrean, mendiko pakean, kanpai zarraren oiartzuna, dunduna, laztan zitzaion. Elizaren laztan. Amaren laztan, ez bai zekien oindio nolakoa zen kaleko neskatxarena.

Orain, kalean, egunoro, orduoro ezagutzen du eliza, kanpatorrea, bika-

ria, elizparra, elizaren inguruetan dabiliena, luistarra, mariaren alaba, "acci6n cat6lica"koa, gorria, zuria.

Urrutik polita zitzaien eliza eta eliz-ingurua. Aitona-amonen eta aita-amen esanera jokatu izan zuan baserrian eta baserriko giroan, Aita Kardaberazek dotrinaz gozatu eta berotutako giroan, elizak ez zeukan zolorik eta akatsik. Eliza aingeru-erri zen. Jainkoaren etxe zenez, eliza garbia zen.

Kaletik ez du orrela ikusten. Eliza itxusiago zaio. Ormak zulaturik ditu. Armarra-sarea, eta zikina, eta autsa du bai goitan, bai beetan. Aulkietan gizonen eta emakumeen usaina. Kanpatorrean, txinara eta enarakabietan kaka. Sakristian, eliz-gizonen jokoa.

Elizaren berri, lendabizi, kaleko adiskideengandik izan du. Gau pasatzen, edari tokietan, sarritan, edan ezkerero, beste berrikerarik ez du erabilli lagurakin.

- Mikel, ez dituk apaizak ain jatorrak. Berekoiak dituk. Odolostek, nolakoak egiten diren bezala, apaizak ere igualtsu.

- Politikan sarturik zeudek ankaz eta muturrez.

- Euskeraren alde ez die ezertxo ere egiten. Euskera eskerako erabiltzen die.

- Langilleari eta beartsuari ez ziek bear dan orduan laguntzen.

Noski, adiskideek esana, Mikelek ez du osoki biotzean artzen. Bainan, berak ere zerbait ikusia duenez, argi ikusten du apaiza, gai askotan, naiz politika mailan, naiz euskera mailan, naiz langille mailan, ez duela ain zintzo jokatzen. Batez ere ikusten du, apaiza gazteengandik urrutitxo bizi dela. Onegaitik, eliza ez zaio ain gogoko. Meza, jaiero entzun arren, naiago du, bere baitan, bere kalean, aparte bizi.

Garai eta giro onetan, kaleko pilosopiak eraginda, Mikel gazteak, bere kaleko bizimoduari, gurdi berri bat egitea erabaki du. Tabernari, baseritik jeixtean, zion amodioa itzaldu zaio barnean. Eguna joan, eguna etorri, ezer egiteke, kalean gora kalean bera ibiltzeak ez dio, len bezala, biotzik gozatzen. Aita-amangandik artutako diru-sariari tranpon-zuloa aitu baino lenago, joera berri bat eman bearke dio. Aatik, Mikelek, une

onetan, burutsuago jokatzen asi denean, eskuetara etorri zaion aukerari iges egiten ez dio utziko. Errekaldeko lantegiko akzioak salgai daudela, bankoa medio, jakin duanian, aal izan dituanak erosi eta nagusi berri sartuko da Errekaldeko tornillotegian. Eta, gaur arratsalde, ori ospatu naiez da Mikel adiskideekin Zumaian.

- Mikel. Gure lantegiak aurrera jotzen badu, onera sarritan etorriko gaituk aize-billa, txakolin-billa, neska-billa, atsegin-billa.

- Au, itxas-aizearen arnasa gozoa.

- Eta, gona-motz, dijoaztenen neskatxen belauen ederra.

-Ez dituk ez, txoko itxusiak. Txoko itxusiagoak izango dituk pranko munduan baina.

- Beitu jak, Mikel. An, gure lantegiko neskatxarik politena ere, Ambrosi.

Trenetik jeitxi ondorean, neska-mutil taldeak, elkar-izketa ederrean, algaraka, ijiji eta ajaja, laisterka edo polliki, igeriko soinekoak bizkarrean mutillek, poltsatan neskek, beruntz, itxasoruntz, zijoazten. Talde batzuk, errira sartu baino lentxeagoko zubi zaarrean barna, Santiago izeneko kaiko-bidea artu dute. Zuloaga margozlari aundiaren etxearen oinetan dagon itxas-ertzera. Ondartza txiki polita. Batez ere itxasoa, Kantabriko itxaso gogorra, mantso-mantso, bare-bare, denean. Ezkerrera, antxen bertan, Urola errekek, an, urrutian, Aitzgorri menditik artutako urak, eskeintzen dizkio itxasoari. Ondartzatik, erreka gainean, uso taldea balitz bezala, erregin eliza nagusia duelarik, Zumaia ongi, ederki asko ikusten da. Eskuin aldera, berriz, euslerriak, itxas-ertzean duan biderik gozoena du. Getariruntz dijoana. Itxas-gaineko arkaitz tartean egina.

Aurrean, urrutira, Donostia, Baiona ditu. Eta ura bizi-bizi, gazi-gazi. Eta, ur bizi-gazian, ur gogorrean, olatu aundietan, marinolak, euskal arrantzaleak... Generalki, Azkoiti-Azpeiti aldeko neska-mutillak onera joko dute, gero errezago trena artzeko.

Bestetzuk, kalean zear, kaleko giroari arnasa arturik, "Errikoa" deritzaion ondartzara. Bestea baino izkutuagoa. Txikia. Txukuna. Ongi zain-

dua. Kafeteria ere baidu. Eta, aurrean, pizka bat, ezker aldean, itxaso zabalaren ertzean, mendipetan, Deba, Mutriku, Ondarru, Bermeo. Aatik, alegia, izkutuagoa delako, ondartzazaleak, lasaiago ibilliko dira plaia onetan. Urtean urteko modelook, bai neskek, bai mutillek, erraz erabiliko dituzte.

Mikel, Tomas eta taldea, ondartzara abiatu direnean, beterik zen jendez itxas-ertzeko ondarra, arkaitza, kafeteria. Ala ere, ondartzazaleak politikak, Kantabriko itxas-zuloan egina den plaia gozoak, jendea bereala irunotsitzen du. Ondartzazalea denentzako zen.

- Mikel. Ikusten duk? Au duk, au, begientzako gauza atsegina eta zoragarria. Orrenbeste neskatza ederrekin, ia larru gorrian dagon eme-taldearekin, gorputza, goitik beerano, amodio beroz, txindurri leku biurtzen zaidala, dirudi.

- Ja, ja, ja!!! Mikel. Bainan, Mikel. Luak artu aal au? Ja, ja, ja !!! Biurritxo!!! Begirik ez diok kentzen Ambrosi gure neska politari. Alproja utsa aiz. Alajaina, aukeratzen badakik.

Ondartzan, ur gazian igeri ibilli ondoren, gorputzeko odola arindu narian, batetik bestera, galant eta eder zebillen Ambrosi, neska gaztea.

Inguruan bai zituan gorputz eta jite oneko neskatzak. Noski. Urola balerako neskatzak, ur-jantziekin, polit izenaren eta izatearen jabe ziren Zumaiako itxas-ertzean. Ondar-gainean. Bikini laburrez jantziak, batez ere. Bainan, seguru aski, Ambrosi zen ederren. Ambrosi zen erregin. Gorputza zuen mee. Iztarrak borobiltasunean ikusgarri. Illea, itxas-aizearekin joslari. Oinak ondarraren ori-illunean txuri. Eta, ezpainetan, berezko irribar gozoa...

Arratsalde onetan Zumaiko ondartzan, ez zegoan onelako edertasunik. Itxasoko urez eta pitzez egindako olatua ere ez zen politagoa. Itxas-gaineko zeru urdina ere ez zen ederragoa.

Ederren, Ambrosi.

Eta, kaleko prakak erantsi eta ondartzakoak jantzi ondorean, Ambrosiren ondoan igarotzean, Mikelek bat-batean sentitu zuan aartasunaren deia gorputz osoan.

Mendian akerra ardiekin amodioa egiten ikusten zuan bakoitzean, gorputzean senti, oi zuan odolaren irakin bero uraxe zeukan une onetan, Zumai-ko ondartzan Mikel aar gazteak Ambrosi eme gaztearen ondoan.

I V

Anbrosi gaztea da. Ariman eta gorputzean ogetabi urte goriontsu daramazki. Begietan, ezpanetan, bularretan, ikusgarria dugu. Iparragirre bertsolari-abeslariaren kanta ura beretzako egina, seguru aski. "Gorputza zuan liraira eta onak zebiltzan airean". Izan ere, aizea bezin pinak eta arinak zituan gorputz-zerak eta onak.

Kanta ori Iparragirre jaunak, lenbiziko aldiz, abestu zuanian, seguru aski, emeek arpegia eta onak zeramazkiten aizearentzako agirian. Gizonen begi argi biurriek, besterik ikusterik ez zuten neskeen gorputzetan. Emeen baratzar, uraxe lili: Arpegia. Uraxe lore: ona.

Iparragirre, gure aitona-amonen denboretako istorio-istorioak. Gaur, Anbrosik gona motza du. Onak bezala, belauak eta zangoak agirian daramazki. Beste edozein neskatxaren antzera. Eta kalean ura ikustean, pasioan dela, lantegiko bidean dela, begirik ez da triste. Begirik ez da geldi.

Anbrosi reska atsegina da. Gaurkoa. Modari eusten diona. Kaletarra. Langilea. Jai-poza duena. Dantzan, arin-arincan, fandangoan, lotuan dakiena. Mendia ere maite du. Gogoz. Mendigoizale dugu. Biotzez. Erria, bere sorterria mendiko zuloan egina denez, mendi arroek, arantza-mendik, elur-mendik, ota-mendik, suge-mendik menderatzen dutenez, txikitatik ikasia da mendietara begiratzen. Mendiak maitatzen. Mendiari, goizean goiz, lantegira joatean eta lanetik etxera etortzean begiratuko dio. Aatik, kaleko zerak bezin maite ditu mendietako elurra, belarra, aldapa, pagoa, aritza, intxaurra, lokatza, borda, ardia, biorra, artzaina, baserria.

Jai egunez, bai daki, eguraldi onez eta txarrez, mendi-goi zaleekin, pardela bizkarrean, mendi-munoak menderatzen. Aralar, Gorbea, Aitzgorri, Irukurutzeta, Izarraitz, Erlo, ezagunak ditu. Tontor oietan oiuka eta irrintzika ibillia da. Bainan, bereziki, Anbrosik kalea du maite. Goiko kalea, erdiko kalea, beeko kalea. Eta bastarri-kalea eta eper-kalea eta

gurdi-kalea eta San Martin kaleak ere. Kaleko problemak oro, barne-jegietan ditu. Urarenak. Argiarenak. Lanezarenak. Droga zaleenak. Bainan, batez ere, biotzean min langilleen arazoak emango die. Bere aragi gaztean artzen du min, langilleari burla egiten zaion bakoitzean.

Anbroso, neska gaztea, abertzalea da, naiz eta izenik emateke egon, abertzale den edozein partidotan. Euskara-zale amorratua da. Euskal Telebistaren eta Irratiaren alde borrokan ibillia, gogorkeriaren aldeko ez izan arren. Euskaraz idatz, mintza, irakur kanpainan atsedetik gabe, eririk erri ibilli ondoren, ejemplo ona ematen dakiena, euskaraz, egunero, idatziaz, itzeginaz, irakurriaz.

Anbroso, aita-ama langilleen kume izan arren, eskolatua da. Sei urtetik amabosteraino, errian jaso zen ikastolan igaro ditu eguneroko ordurik geienak, andarenoaren esanari beti erne. Bere garaiak ikastolan azkarrena eta zintzoena zen. Jolas-aldian bizkorrena eta alaiena. Denekin ongi etortzen zen neska koxkorra.

Aatik eta orregatik, Anbroso gaztea, ez da galduko gaurko mundu berriko sareetan. Bideak urratzen ba daki. Eta etorkizunari begiratzen ikasia da kaleko pilosopia otzarekin, ikastolako pilosopia berriarekin.

Sarritan, pilosopiaren argiz, oso illun, lainoz beterik, agertzen zaio langillerrria, aberria. Bere bezala, langille euskaldun askoren sukaldea, arantza-toki bihurturik ikusten du. Noski. Bainan, Anbrosoarentzat argitu ezin leikean illunik ez dago euskal kaleetan. Etorkizunak bere burdian izango dituan auziak, eztabaidak, arloak, korapilloak bide onetik eramatea ahal izango duela iduritzen zaio, gizonak, euskaldun abertzaleak, neskatxari.

Eliztar ere denez, biblia egunero irakurtzeko oitura du, Holanda aldeko edota edozein kristau erriko baztarretan, apaizen, eliz-gizonen, arteko burruketek. Anbrosoaren barnean, eragin aldi bat egiteko indarra baidute. Apaizek ezkontzeko baimena izango ote duten edo ez, elizaren aldeko langille-jendeak inpuettoa izango ote dun edo ez, noski, kezka sortzen zaio biotzean eta lagun tartean, geiegi berotu gabe, bere iritzia eman oi du. Lotsarik gabe, biotzak agintzen dionian, bai daki elizaren

edota eliz-naixuen alde edo kontra lagun artean errez eta garbi erabiltzen.

Askatasunaren aldeko itzek ez diete minezko kezkarik sortzen. Giltzapeak ere ez. Jigorketak ere ez. Goseak ere ez. Eriotzak ere ez, berezkoa denean. Lagun arteko paolatan sarritan diona: Argitu ezin leikean illunik, ez digu jarri Jainkoak. Gizonarentzat ezinik ez dela. Kaleko kateak autsi ondorean, sortaldean izarra agertuko dela. Eta, orrela mintzatzean, bai daki alaiki, Lertxundiren alako abesti ura abesten:

"Bihar itxaropen, bihar, gizonaren oinazean, itxaropen, maitetasunaren naia, bakar-ladeak autsi, bihar, argiaren babesean, amets jolasean, itxaropen, bihar itxaropen, bihar, aizearen legunean, itxaropen, bizitzaren promesa, kafe guztiak autsi, bihar, egunaren argitzean, irripar batean, itxaropen, sinistu nai badegu, atzokoak aztuta, denok, bizi dezagun, illunaren barruan, gure amets ederra, gure amets bakarra". Ambrosi neskatxarentzako burrukek, bere korapillotan, loturik, itxaropen zuria dute. Ametsa. Argi berria. Askatasuna.

Ambrosi, itzegitean, garbia da. Egizale trebea. Egiari sekulako errespetoa dio. Eriotzak agintzen dionean, mingainari askatasunez izketan, kezkarik gabe utziko dio. Aatik, bein baino geiagotan apaiza, bikario zaarra, asarre bizian jarri zaio asteroko batzarretan.

- Ez, Ambrosi, ez den onela joka bear, ez emen eliz-etxean, ez kalean. Laister ezurrak kerizpean izango ditun. Ganera, au ere, esan egin bear, etzekinat, etzekinat, ba, ba, ba, apaiz gazteen alde itzegiten enanean, oso buru arin jokutzen denela uste dinat. Ez. Jokutzen den, ziurki.

- Ez, ez nago ados zurekin, apaiz jauna. Gure kaleetako gauza askorekin konforme ez naizem bezala, elizakoekin ere ez. Batez ere goiko mailatan zaudetenekin, Zuen ixillak, zuen luak, zuen bildurrak, aulkia galtzeko kezka, illunpean, askotan, laga gaitu. Ordurik eman ez diguzutelako tren gañdu izan dugu: Ori, bein baino geiagotan. Apaiz zaar askok, gaztediarentzako bide berririk ez dute urratu nai izan, naiz eta ortarako, bideak urratzeko, zabaltzeko, argitzeko Batikanoko bigarren Batzar aundi-zoragarria begibistan euki. Eta, bikario jauna, apaiz gazteak goratzen baldin ba ditut, seguru aski, ori da, gaur, gure itxaropen, oietxek direlako. Ba-

tikanoko batzarrari kemenez jarraitzen dioten apaizen bidez, etorriko zaigu gazteoi indarra, argia, ametsa, itxaropena. Eta, bikario agurgarria, oiek aipatu eta goratu bear ditut kalean eta sakristian. Barkatu, Jauna, bainan, gai ontan ez gaude ados, eta garbi esaten dizut.

Gaur, ordea, arratsalde, lana bukatu ondorean, Ambrosik ez dauka, ez kaleko pilosopiarik, ez alaitasunik, ez paolako gogorik, ez txuri bat artzeko betarik. Illuna mamietaraino sartu zaio, noski. Ekaitz ez-ezagun berri batek jo du seguru aski, Ambrosiren barna lantegiko orduetan.

- Aizan, Kontxesi. Ikusi aal den, gaur arratsalde, Mikelen aurpegi gorria eta soin-dardara?

- Bai. Noski. Ez den egon gaur besteetan bezala irriparrezka. Ordu baten barruan, amar urte geiago arrapatu dituala esango nikin. Burua galdu-ta bezalaki den une batzutan.

- Aizan, Edurne. Ambrosiri ze gertatzen zaion ba aal dakin? Ain ixil izan den lan-aldian. Eta bukatzean, amen-jesus esateko astirik gabe izkutatu den kalean zear. Ze ote din?

- Zer? Betikoa. Bainan gaur gogorragoa. Ikusi ba unan Mikel nagusi gogor-rarekin biz:-bizi itzegiten!!! Asarre atera den Ambrosi, Mikel ere asarre atera den bezala elkar-izketatik. Eta nere iritziz, neskak, langille-kontua erabilili dine. Sari-arazoa. Konbenio berriaren zerak, istorio-mistoriak. Ura unen bien itzaren jarioa!!!

- Aizan, Garbine.....

- Aizan, Ikerne.....

- Aizan, Lore.....

- Aizan...Aizan...Aizan...Aizan...

- Aizan. Bainan, gaurko alkar-izketaren muinean konbenio berria ote unen, edota, maite-minaren agerpena ere bai ote unan Mikelen aldetik? Aizan, aizan!!!

Leengo udarran, Zumaitik trenez elkarrekin, lagun tartean, itzultzean, lantegian eta kalean, Ambrosi eta Mikel ezkongai-aroan ikusten zituzten.

V

Aragia, jolasa, edaria, ama-lurra, laguna, lantegia, ditu ametsean oiulari Mikelek. Eta Ambrosi.

Gabeko ametsean, noiznai, sorgin-txori agertzen zaio Ambrosi. Mundu berri batean bezala, ametsetan, gozoro gozoro, bere altzoan, bere bularretan erabilli izan du, sorgin-dantza bizian, milla aldiz, Ambrosik. Eta, maki-na bat bider madarikatu izan du Mikelek eliz nagusiko "dun-dun zaarraren", eskilaren donua, gabeen orduak joaz, amets gozoa itzali dionian.

- Kanpa zaar madarikatu-alua.

- Zakurrck! Beltzok! Ustelduko aal zerate bein betiko!!!

Noski, eskilak, sarritan lapurtu dizkio Mikeli Ambrosiren laztanak. Aa-tik berezka du eskilarentzako gorrotoa. Bestela, eguneroko lo-aldiko ametsean, lirain, aragiz egina, apain, txuri-beltz jantzia ikusten du. Egunez, kanpa zaar^{ak} orduak gogorkiro jotzean, nola gabaz eskilaren dundunak izkuta-erazten dion buru-mamietan sorgin-dantzan euki oi duan maitenoa, orain, egunez, eskilaren kantuak esna-arazi, bizi berritu, egiten dio ametsa. Ambrosi.

Egunez, lantegian, ofizinan, antxen dauka, gabaz, ametsetan, buruetako muinetan euki oi duan neskatza galanta, Ambrosi ederra, begien aurrean. Maiz, bere arnasa gozoak, aurpegian leunki jolas egiten dio. Bere itzak, bularpean, biotzean, odolean, jaiotako itzak, polliki polliki igurtzitzen zizkion belarriak. Eta, ausarti, ametsean egina egin naita, ezpainka, musuka, laztanka, artu duanian, ura gozoaren gozoa, ura txistuaren mami ederra, ura biotzaren eta gorputzaren eragina!!!

Emendik aurrera, libro, aize zakarraren antzera jokatzeko lagako dio maitetasunari. Ametsean eginak, ernean betetzeraino iritxiko da. Maite-bideak urratuko ditu:

- Auxe duk, nik, mendian ikus eta ikasia. Basa-piztiak onelaxe jokatzeko

zien. Koxka topatzean, koxka zapalduz. Aurkakoa garbituz. Indarrez. Gri-
natsu. Eroki. Etzoat, ez Ambrosirenganako bidean, inorri, koxkarik ipin-
tzen utziko, abere-usaia, askatasun-usaia, mendiko garo-usaia, ego aize-
aren usaia, bai dik nere barneko minak!

Ala ere, Ambrosik, edozein abere bezala, aragiz egina izan arren, bai
zuan zerbait abereek ez zutenik. Sarritan bere baitan izketan zion:

- Ez duk Ambrosi aragi utsa. Mendiko biorraren arnasa eta Ambrosirena,
ez dituk berdinak. Biorrarena ao-aize utsa duk. Abereki berotua. Jaio or-
duko otsa eta utsa. Illa. Ambrosirena berriz, berezia duk. Arnasan dik,
barnean, bularpean duan biziaren oi entzungarria. Arnasan dik, pitxi
loraren usaina. Arnasan dik, eguzkiaren argia eta beroa. Arnasan dik, u-
dara azkeneko ego-aizearen jolasa. Ambrosik dik arnasan, neguko edurra-
ren txuria. Ez duk ez abere bakarrik. Duk aragi. Duk espiritu.

Orduantxe, pizka bat bederen, joaten zizkaion Mikeli gogotik kaleak eta
kalekoak, lantegia eta lantegikoak, edaritegiak eta lagunak, jai alaiak
eta putak.

- Nerea diat. Nerea. Nerea!!!

Itz oneitxek berotzen zion zearo biotzean griña beltza. Griña gaiztoa.
Griña lizuna eta zitala. Eta Ambrosiren bular ondoan zegolarik, maitasu-
naren indarrez, garbi, gozo, bizi-bizi jaiotako arnasa, bereala, zikin
eta garratz eta illa da bere barnean. Asieran, bien arteko maitetasunez-
ko ikuiketa, naiko garbia izan arren, bereala zikinarekin kutsututa gel-
dituko zan, Eta illa. Estu-estu, gorputza bereganatuz indarrez, Mikelek,
ezpanak biziki lot-eraziz, matxo luzea emango zion Ambrosiri, naiz onek
espirituz eta gorputzez aurka egin. Naiz eta aragiak dardaraz euki. Abe-
rea zan nagusi. Mikel.

Eta aberetze bizi eta zakarraren mendean erortzean, Mikeleri Ambrosi-
ren aragi gordinak ernarazten zion egarriz biotza. Sexoa. Egunak eta ur-
teak bai zijoazkion. Auskalo zerk bultzata, aizearen egotan zijoazkion,
berriz ere, inoiz ez itzultzeko. Menditik errira jetxi ezkeroztik, amar
urte aundi paseak dira. Aatik jaiotz etxeak norberaren sakonean utzi oi
duan azterria ezdeusera, ezerezera eroria zeukan. Baserrian, aita-amen

babesean, mendi, baso, zelaietan, lau aizeen arteko jolasetan, ikasia ezdeuseratua zeukan noski.

Asieratik, lenengo egunetik, Mikelek, zearo eta guztiz, aizturik zeukan jaiotz-etxea. Baserria. Mendia. Kalea zuan biotzeko. Lantegia. Eta, une onetan, Ambrosiren aragiak, soinak, ezpainak, bularrek jartzen zioten saltaka bere barna eta amets bizi-biurri-beroan bere burua. Abereengandik ikasia bakarrik, basa piztietan ikusia bakarrik, gelditzen zitzaien kolkoan. Akerra eta auntza, zezena eta beia, aria eta ardia, ollarra eta olloa... Bere zera Ambrosirekin elkartzean, espainka, laztanka jartzean, orixe zan. Aberekeria. Indarra. Grina. Orroa. Atsegina.

"Nerea aiz, Ambrosi. Negarrik ez. Izerditan dardaraz ago.

Bainan, estutu ditzagun gorputzak, ezpainak. Berriz. Berriz."

Olakoetan, aragiak, Mikelen biotzean, ekaitzaren indarra zuan. Etzan ain errez etsian jartzen, naiz eta Ambrosiren dardara eta arnasa estua sentitu. Abere-mina zuan, noski, andre-minaren idurian. Kaleak, uste gabeak, baserriak, baserriko aitona-amonek eta aita-amek eman dioten giza-legea, pikkanaka-pikkanaka, urratu eta garbitu dio. Mendiak, bere aitzetan, zuaitzetan, aritzetan, gaztainetan, aizetan, abereetan, izan zuan, noski Mikelentzat, kaleak izan ez duan zerbait.

Baserriak, menditxo gozoaren babesean, arkaitz beltz aundiaren aldean, putrez eta belez betetako arkaitz aundiaren gerizpean, leen-leengo euskaldun zaarrek jasotako baserri txuriak pittintxo bat bederen, zeruetara begiratzen erakutsi izan die noski Mikeli eta baserrian jaiotako beste aurrei. Eta, orduantxe, Izarraitz muturrean zenean, aizeak gogorki negar egitean, arbolen adarrak sorgin-dantzan astean ekaitzean, Zestu, Lastur, Itziar, Azpeiti, Azkoitiko dun-dun zaarrak, "dun-dun, dun-dun" otzitza jotzean, orduantxe, belauniko lur gogorrean, lokatsean, arkaitzean, elurrean, erresatuko zion Euskal-Erriko Jaunari, Itziarko Amari, Ormola mendiko Urategiko Amari. Giza-lege berrian, kalekoan, ura, zikindurik gelditu zaito. Kaleak, alegia, indar geiago du, baserriak baino Mikelen biotzean. Kaleak, maltzurki, moxorro, mendiko mamia irantsi dio. Kaleko

giroan ez du Jainkorik. Ez du Urrategiko Amarik. Ez, ezta ere, ez du gaitz -esaleen eta gibel-jaleen kezkarik. Amets bakarra du. Aurka itzegin dezatela. Geizki esaka mintza ditezela zeruak eta lurrak. Kiflu lasaian, lan -tegiako neskatxek, irripar egin dezatela. Ori dena bost ajola dio. Ura, ura, musuka euki duan ura, Ambrosi du eta izango gogoko gau eta egun. Odol kolorezko ezpainak, erraitatik darion arnasa beroa, soineko dardara, oiek ditu bere-bereak.

Eta gaur arratsalde, Ambrosik, eginalean, garbi izan nai indarrek, barren-barrendik bultzata, ostikoka, atzamarkaka gogoz ibilli arren, eta ibilli izarditan ai-eneka, Mikelek bere barneko abere-deia menderatzerik ez du izan.

"Nerea aiz, Ambrosi maitea. Beste biderik ez bada, indarraren indarrez, gogorrez, minez, grinez, mendian ardia ariarena eta beia zezenarena eta auntza akerrarena dan bezala, onelaxe, i, ire aragia, nerea den."

Nerea, nerea zion bitartean, adarraren soinuan, neskak, lantegiko langilleak, marmar eta marmar, nekatuta, ate zaarrean zear, erreka gaineko arrizko zubian barna etxeruntza zijoazten. Baina, kaleko aizeak bai zuan zer garbiturik arratsalde ontan nesken buruetan.

Egun bat besterik ez da pasa, tailerrean sekulako burruka izan danetik. Langilleen sari-kontuan Ambrosi gogor egina zan, Mikel dardaraz jartzearaino, Mikelek ez bai zuan xemaikorik ere geiago eman nai langilleei.

Eta, atean, lantegiko ate-zaintzaileari, Mirentxu neska politak jostakeriz, irriparrez auxe diotsa:

"Aizak, i. Atzo guztiz asarre ituan nagusia eta sekretaria. Bainan, or, Patxi, non gelditu diran, guk erten arren, lantegian. Musuka gelditu dituk. Ortan geldituko ote dituk gure eskubideak? Agur, Patxi eta biar arte."

Euriak jarritako putsuetan zear, an joan zan, azkar-azkar, Mirentxu apalduz, sukaldean lantegiko zerak kontatzera.

Etxeratu zanean, Ambrosi gaztea izututa zegoen. Nekatuta. Biotzean kas-kabarraren otza sentitzen zuan. Ezpainetan, oindio, laztan luzearen usaina zeukan. Mikelen grinezko arnasa ao-sapaian izoztuta zeukala iduritzen

zitzeaion. Min zuan ezurrean eta aragian. Asarrea kolkoan. Bere baitan, bere buruari, bein eta berriz, auxe zion:

"Aurpegia puzkatu bear nionan. Orixe. Errukirik gabe, biotzari jaramonik egin gabe, ostikoka, atzamarkaka, ortzaka, txikitu egin bear ninan."

Noski, etxeratzean, illunabar artan ez zegoen konforme bere buruarekin, bere jokoerarekin, bere oilokeriarekin. Amorruek, odol-bideetan zear, gorputza eta anima gogorki mintzen zizkion.

"Ez, ez natxeon konforme. Ez den, Ambrosi, ez den jatorri joka, neskatxa garbiak bear bezala. Langileak, neska-mutilak, lanean, izarditan itunan. Ogia ontzeko, janaria gozatzeko, izardia gorputzari eta animari atera bearrez ordua joan, ordua etorri, izan ditun. Eta, i, Ambrosi, gizarteari eta Jainkoari burla eginez. Eta, ik, ik, nik, nik, ik, nik, lizunkeriz, txepetx, aoa, ezpaina, aragia mutilari eskainiz..."

Amorruek, begi-zulotan, malkoari sortzen ere ez zion lagatzen. Eta malkoa, nekez arren, jaiotzen bazitzeaion, asarreak bereala legortuko zion masailean. Nai bezala ezina zuan negar egitea.

"Bainan, ez den au okerrena. Negar egiten baden, negarrean, malkotan, begi-zulotako axalak agarratuz eta aurpegia zulatuz joango den ire barneko naigabe osoa. Orduantxe ene erraiak, ene gibetak, ene barruak lasaituko ditun. Bainan, nola ken nere ezpainenatik, nere ao-zulotik, erioaren usaina? Grina itxusiaren erioak, tunba din, Ambrosi, ire altzoan. Aberekeria den eortzirik ao-sapaipen. Ire txistuak ustel-kitsua din. Zer egin den, bai, zer egin den, Ambrosi?"

Kezkak, gaxoa, menderaturik zeukan. Kezkak, sitsak arropa zulatzen duan bezalaxe, une onetan zulaturik zeuzkan neskatxaren mamiak. Udarariak baratzetan eta landetan fruituak ondatzen dituan bezalaxe, Mikelen aberekeriak ondatu dizkio Ambrosiri biotzean ametsak. Ametsik garbienak. Ametsik gozuenak.

"Au denau, here garbiaren gainera etorri dan zikina. Kantserrak berak ere, ez din olako min bizirik. Zer egin den?"

Mikelek, lantegian, ofizinetako lana eskaini zionean, olakorik ez zitzaion buruetan jarri. Argi pizkat bai zuan Ambrosi neska gazteak. Batxil-erato osoa egin zana Bilbon. Gero, txanponaren poz aundirik ez bai zana bere jaiotze-etxean, ikasketetan aurrera jo ezina etorri zitzaionean, lanari eutsi bear izan zion, erriko beste neskek bezala. Bere kideko neskatxekin, an, joan oi zana, goiz eta arrats, Errekaldeko lantegira. Eta, lantegietako arazo eta auzietan, ez zen azkena izango, aurrena baizik. Giza-arteako eskubideak plazara ateratzean, Ambrosiren itza argi entzungo zana. Makiña bat burruka egin da U.G.T. eta CC.OO. sindikalistekin. Oiek, ongi baino obeto bai zekiten nolakoa zana Ambrosi neskatxaren itza, ezkutuan egingo zituzten beren batzarrak. Gainera, denek, jakina zuten, denen bistan zegoen, neskatxa piña eta jatorra eta zintzoa zala. Aatik, txuriak eta gorriak, begirunez eta lotsaz, ikusiko zuten. Langilleak ongi zekiten, Ambrosi neskatxarentzako anai, gizon, denak zirela. Eliztarrak eta gorriak. Beti ere, gizartea, konkretoki, Errekaldeko lantegiko neska-mutilen eskubideak zaindu naita ikusiko zuten. Orregatik, denek, berarengan uste osoa jarria zeukaten. Neskek, batez ere, sekulako fedea zuten Ambrosirengan. Egunero, lantegi bertan ez bazan, kafetegira, edota etxera etorriko zitzaion neskatxaren bat edo beste laguntza, argi, ogi-txanpon billa santa eskean. Alargun danak, laguntza-eske ze bidetara jo bear duan galde-tuko dio. Erretiroa artzeko danak, ze eskubide dituan. Gaixorik danak, ze sendatzaile duan. Zana ama. Zana aizpa. Zana lege-gizona, abogaua.

Bainan, lantegia Mikelen eskuetara etorri danetik eta batez ere, Ambrosi ofiziniara jarri duenetik, izugarrizko aldaketa sentitu da langilleen artean. Langilleek Ambrosi ofizinan ikusita leengo konfiantza ura galdua dute. Txibata bezala jokatuko ote duan bildur dira, noski. Beste alde, neskatxak, berriz, Mikel mutil iaioa, mardula, baserritar bizkar zabala, aberatsa, Ambrosiren sena-argai bezala ikusi dutenean, bekaitzez eta erre-minez, piska bat bederen, konfiantza ukatu egiten diote.

"Ez. Ez gaitun ezer, Kontxesi. Gizartea, gizonen eskubideak, pakea, justizia, dena, mundu osoa, muxu batekin saltzen dinagu."

"Et, Mirentxu. Atzoko laztan luze artan gelditzen ditun gure negar-

rak. Seguru aski, emendik aurrera Anbrosirentzat amets eder Mikelen dirua izango den. Gu, pikutarako."

"Ja. Ja. Edurne. Ikusi unan lengo batean, etzakinat zer zelata, asarre bizian Mikelekin? Ba...atzo aragia, musua, bularra, eskaini zionan. Eta, gero, A.C.-koa dala. Txakurrari jardun dezaiola."

Gorriek, komunistek, sindikalistek ere, ofizinan jarri danetik ez diote begi onez begiratzen.

"Emendik aurrera kontuz ibilli bearko diagu, neskatxak bere burua saldu bai dio kapitalismoari."

"Azkarra dek, eta leengo lekuetatik igesi, beste zuloetan egin bearko dizkiagu batzarrak."

"Laister asiko zikuk txibatoak eta zakurrak gure artera bidaltzen. Kontuz ibilli bearko diagu bere lagunekin."

Anbroso bereala konturatu zan. Etzan buruz makala eta bigarren egunean, bazekian, ongi baino obeto jakin ere, langilleek etzietela lengo begirunerik, eta bere ondoan pasatzean, begiak lurrean josiz, aoa zabalduz, markeriari emanaz, irripar biurria sortzen zitzaiela ere ongi zekian.

Arantza auxa zeukan aspalditik naigabez biotzaren erdi-erdian. Bera, ofiziniستا izan arren, Mikelen maitea izan arren, lengilleei buruz ez zan, ezertaz aldatu. Maite zituan eta presto zegoan, leen bezala euren alde ateratzeko lantegiko arazo guztietan. Ziurki langilleen eskubideak zainduko zituan. Gaiñera, emendik ofizina-gelatik, garbiago ikusten zituan lantegiko problemak. Lengille-jendeak jakin ez arren, bein baino geiagotan beren alde gogorki jokatu izan du Mikelen aurrean. Mutur-salda paltarik ere ez da izan bien artean.

Anbroso neskatxa Mikeli buruz zegoan aldaturik. Azken aldian, maite-minak, pixkanaka-pixkanaka, biotza, ia osorik josia dauka. Asieran, noski, maite minari etzion jaramon aundirik egiten. Aizea bezala igarokozan. Zumañatik errira trenez, orain urte batzuk, etortzean, gerritik elduaz, muxu ematea nai izan zuanian, belarrondokoa eman zion bezala, ofizinan ere, makina bat aldiz, eman izan dio. Bainan, nola urtea jua

urtea etorri, urek mendia zulatzen dituzten, onelaxe meite-minak, polliki-polliki, gozo-gozo eta garratz-garratz, zulatu du Ambrosi neska gaztearen bular-azpia. Aatik, gaur arratsean, Mikelek, aberekeriz, lizunkeriz gerritik eldu dionean, ez du indarrik ezan. Aoa eskaini dio. Aragia arrapatzen laga dio. Naiz eta gero damutu.

"Zer, zer egin den, Ambrosi. Garbia zana zikindu den."

Etxean, inolaz ere, ezin du urrundu burutik galdera mingaitz eta zital au. Amatxo ere ezin dio erantzun, ez baita galdera sukaldean entzuten, neskatxaren barnean baizik. Noski, ama Inasik, gaur, oso kezkatu ikusten du bere alaba Ambrosi. Bainan ez da geiegi arritzen. Egun trixteak, gau ilunak, pasatzen ikusia danez, gaurkoa ere luak arinduko diola pentsatzen du bere baitan. Ala ere, bere ondoan jarririk, maitasunez, gozo-gozo, samurki-samurki, muxu emanaz, galde egin dio:

- "Bainan, gaur zer den ain illun egoteko?"

- Ez det ezertxo ere, ama. Joan zaitetz lasai oera. Atsedena ongi irabazia daukazu. Nekaturik izango zera. Tori agur onez betetako nere laztana. Eta utzi zaidazu une batean ene pentsamentuekin. Badakizu, ama, gizartea maita dudala. Badakizu, ama, askotan gizarteko arantzek zulatzen didatela biotza. Besterik ez det. Ea, ama, beste laztan bat, eta Jainkoaren babesean, ondo lo egin eta biar arteraino.

- Bai, biar arte, neska.

Inasi, Ambrosi neskatxaren ama ona, Urrategiko Birjiñari iru Agur-Mari erresatu ondorean, nere alabak zer ote din pentsatuz, ixil-ixilik, poliki-poliki, luaren mendeko gelditu zan.

Ambrosi, ordea, ez zegoen oerako. Oeak, seguru aski, nekea emango zion. Oeak burua astindu eta berotuko zion noski. Oe-inguruko ilunak etzion gau guztian pakean utziko. Mendi tontorreko erlojuaren ordu-kantak, diabrukeriz, sorginkeriz, ofizinako jolasen berri zaibalduko ote zituan, bildur zan.

Aatik, neskatxa Ambrosi, ama lo zegoala garbi jakin ondorean, lantegi-

ra eraman oi zuan soineko gorri-txuriakin, afaldu gabe, illak bai zeuzkan erraiak eta aoa, etxeko atea otsik ateratzeko zabalduz eta itxiaz, kaleratu ça. Eta kalean, apaiz-etxera joko du.

Kalean, iluna izan arren, betiko txikiteroak tabernetan ziran. Goian, erriko argietan, eltxo mordua jolasean. Goorago, ortzean, zeruetan izarrak diztizari eta illargia bere urrezko txapela erakutsiz.

Mikel, lagun artera etorri zanean, arratsaldeko zazpirak besterik ez ziran. Alsiki bizkar-gaina aztinduz, agurtu ditu, goiko tabernan, txikiteoko adiskideak.

"Kai, Gaizka. Ze moduz? Joxe, ze berri zeek kaleetan? Au dek au giroaren ederra, Patxi. Tripetan ba dezue lekurik beste beltzarentzat, txarriok? Benga, Edurne. Atera beste Tonda bat nere kontuan."

Gaur, Mikel ez dago kalean zear ixilean ibiltzeko. Bestetan, lana bukatzean, pare bat orduz, kaleko oitura ori baita, txiki bat emen, txiki bat man, or ibilli oi da. Bainan, geienean, besteek diotenari burua markurtuz, besteena itsu-itsuan arturik. Taldean, euren ustez, munduko gaiak oro, jakinduriz erabiltzen dituztenak bai ditu.

Aatik, baserriko asiera izkutatu naian, normalki ixilik izan oi da gau-ibilketan. Gaur, ordea, bera da itz-ontzi eta ao-andi. Laztanean, neskatxak, mingina indar-berritu dio, alegia. Ambrosiren arnasa zeukan, oin-dio, eztarriko zuloan. Onegatik, ez dago gaur mutila lagun artean oarkabeko izateko, beste askotan bezala. Gaur, itz egingo du. Lagun artean bera izango da berri-ontzi.

Lagunak, Gaizka, Patxi, Joxe,,mutil nausiak edota ezkonduak ditu. Denak, lengoari jarraitzen diotenak. Giza-arteke arazoetan berririk nai ez dutenak. Frankok jarritako giroan pozik bizi direnak. Giza artean ongi jarriak bai dira, olako jarleku ederrak galdu nai ez dutenak, noski.

Lantegiako zerak bukatu orduko, txikiteoan azteko, arratsaldero zai izango ditu aldapa ondoko iturrian. Beti ere gezurrez, adarra joaz, barneko ideiak maltzurkeriz estalduz, elkar-izketan.

"Ni, Joxe sozialista nauk. Erria jaso bear diagu. Munduko erriak

oro, kordel batek loturik zeudek. Izkuntza bat besterik ez likek bear. Euskara zertarako? Ni, ez natxiak elizaren aurka. Izango al dek Jainkorik. Denok anai gaituk."

Patxik, beste denak naskatu arte erabiliko ditu onelako istorio-mistorioak eta berriketa legorrak. Ezkondua da Patxi. Lau seme koskorren aita. Burnilari trebea. Txikitolari azkarra.

"Nere semeak, ni bezala, sozialista utsak, pinak izango dituk."

Bainan, Gaizkak, tutik ere ez dio sinisten, bai bait daki inoiz ez dala sozialista izan.

"I, Patxi, txaketero bat besterik ez aiz. Ik, xemaiko txarri bate-gatik ere alkondara aldatuko ukek. Krabelin gorriarekin inoiz ez aut ikusi. Ze, Patxi, mundik bizi aiz? Lantegiko burniak, ez dik ire patrikarik betetzen. Zulorik pranko izango uke ire etxean lantegiko txanponarekin bakarrik. Ik, besteei kentzen diek puestoa, lan-eza sortuz inguru-minguruan. Olako sozialistak lurrean eta ilargian txoritara."

Gaizka, mutil nausia zan. Lasaia. Bizia maita zuan eta biziari adar guztietatik elduko zion. Taldean, abertzale, familiz eta biotzez, bera bakarrik zan. Aatik erri-mina biotz-mamiraino sarturik zeukan. Bain baino geiagotan, txikiteo luzean, garrastu izan die laguneri ardoa bere erri-mina garbiki azaltzean, baina, odolik, sekulan, ez zaie geiegi berotu. Gaizka paketsua da. Gogorkeririk nai ez duana, asarrearen aurkakoa. Onegatik, lagun batek, asarrez kontra egiten ba dio, ixilari segitun emango dio.

"Beno, beno. Pakea bear diagu. Bakoitzak bere txoria bere kaiolan eta pakea eta ardoa gure artean."

Joxe, berrogei urteko gizon ezkondua. Sorbaldez zabala. Arpegiz gorria. Ankaz, motz. Mingainez luze. Zitaltzen danean, inork ez du ixil-eraziko. Batez ere, ez buru eta ez oin, agten danean, apaiz berriaren aurka lasaiki eta zikiuki arituko da. Langileen arteko gora-berak eta xestrak eta opor-aldiak direla-eta, U.G.T., P.N.V., E.L.A.; E.T.A.-ri, sua emango like. G.C.R.-tarrak ditu oso bereak. Oiek zuzenduko omen dituzte gaur egun

mokoan politika besterik ez duten bela zarrak.

"Iretzat, Joxe, eurretarrak ez, beste danak, txarri batzuk dituk. Itzetik itzera itz zoroetan, ire iritzikoak ez diran denak lapurtzat eta putetzat artzen dituk. Ortarako eskubiderik ez daukak. Bere bidetik, batzuk eta bestetuek, gizartearen alde zebiltzak. Ustez, beintzat, bide onetik. Eurea, bakarrik ote ona?"

Gai oiek artzean, Gaizkak etzion sermoia bukatzen utziko. Itz beroz ixil-eraziko zuan.

"I eta i bezalakoak kaka zerate. Itxuak."

Gaizkaren erantzunarentzako, Joxek beti zuan salda gorria, sabel-urakin egina.

"I eta i bezalakoak kaka zerate. Itxuak. Pakearen jabe gaituk Frankori esker, eta pake ori lapurtu nai diguzute abertzaleak. Aluok. Noiz bizi izan gaituk obeto?"

Onela jartzen zanean Joxe, Gaizka bereala ixilduko zan, burrukarik nai ez bazuan lagun artean. Ala ere, bigunki au esateke etzan geldituko:

"Bai. Oso ondo bizi gaituk. Nik beintzat, Jainkoari esker, bide onean jarria zeukat nere gurdis. Bai diat lantegi txiki bat. Bainan, ik, eta ez asarratu, zergatik zapaldu bear dituk itz zikinez beste-en eskubideak? Euskal-Erriak bai dizkik eskubideak."

Gaur, arratsaldez, badute beste lagun bat ere taldean. Bixente. Mutil zaarra. Mendixka baten magalean olategi bat duna. Ideiaz, ideiarik badu, tradizionalista. Lagun artean, generalki, ixilik egongo da. Besteena entzun eta danei, burua makurtuz, arrazoia eman. Ori da bere bidea.

Autxek ditu Errekaaldeko jauntxo dan Mikelek. Eta, lana bukatzean, iturri ondoan zai zeudenena urbildurik, itzari ezin eutsiz, bat-batean, esango die:

"Beno. Gaur sekulakoa bota bear diagu. Biar ostirala danez, lanik ez zaurkagu. Bilbora joango gaituk, bai? Taxia neuk ordainduko dizuet. Konforme?"

Eskeintza onekin, leendikan ezaguna bai dute Bilbo-aldea, inor ez da

arritu. Mikelek, poz-aldietan, eman naiez jartze ori, sarritan ikusia du.

-"Bale. Orrela bada, dio Joxek, ni konforme natxeaok."

-"Gaizkak, berriz. Bainan, zer dala -ta, gaur, Bilbora? Kiniela toka al zaik?"

-"Iri etzak ajolik. Nai dek edo ez?"

- Gaizkak. Bai motel. Nori etzaio gustatzen gozokia?"

- "Eta ik, Patxi, joan nai al dek Bilboko zeretara? Edota, etxeko oea gozoagoa dek?"

- "Beno; gaurkoagatik joango egingo gaituk."

- "Iri, berriz, alperrik dek galdetzea . Ire ixilak, Bixente, gaur eta sekulo-sekulotan baiezkoa kontatzendik."

Bilbora eldu zirenean, Begoñako dorrean erlojua gogor, aize guztietara amarrak jotzen ari zen. Ortzean ilargia, Karmeloko baratza gainean, oso-osorik agertzen zan. Kaleetan, oindio, gazte eta zaar jendea, ugari zan. Santurtzi-aldetik, boladaka, itxas-aizea xamurkiro zetorren.

- "Din-dan entzuten dek kanpa, Joxe, itzari ezin eutsiz, zion Mikelek. Din-dan, daudela apaizak elizan. Din-dan, Patxi, ontza erne dorrean. Din-dan, Gaizka, neskak tabernan. Din-dan, Bixente, Bilbon amarretan."

Olako kanta entzutean, Joxe bakarrik ausartu zan Mikeleri parrezka galdetzeraz:

-"Ik, Mikel, or barnean bai dek zerbait ongi izkutaturik. Olako umore beltzik ez diguk inoiz erakutsi."

- "Mikelek, umore beltza galtzeke! Iri, sopo aundi orrek, etzaik ajolik. Leen ere mila aldiz esana diat itzak ondo neurtzeko."

Put-etxetik atera zirenean, oindio an zegoen ilargia, oso-osorik, ortzi garbian, Karmelo aldean. Orduantxe, Begoñako dorreak, ontza izutuz, jo ditu irurak. Aizea, Barakaldoko labe aundietako keetan kutsatutako aizea, autsarrekin, paper-zaarrekin, atariko eme-galduekin, jolasean ari zan. Zabalburuko plaza inguruan, ilunak, faroletako argiak, kaleko arriek eta

galipotek, gauzek oro, goizeko iruretan, aragi-usaina zuten.

"Ordua zendute. Etzerate bereala aspertu puta-etxe ortan. Ba al dakizue ze ordutan bizi geran? Eta, biar, zuok ez arren, ni beintzat, seiretan jaiki bear diat. Gainera, orrenbeste denboran portasoluak izteko ere astirik ez dezue izan?"

Txoferraren itzak, ez zien grazi aundirik egin, batez ere Joxeri, eta ez dio barkatzen:

"Ixildu adi, ao zikin ori. Ik eurea kobratu dek eta segi Urola-aldera."

Besteak, ixil-ixilik, bakoitzak bere portasoluari begiratzuz, gutxitxo edo askotxo, txoferrak adierazi bazala, zabalik bai zeukaten, patxadaz, bere sexoaren atea itxi zuten.

Bidean, lotsa Bilbon utzi bai zuten, aragiari, emeen aragiari, lizunke-
riz kantatuz etorri ziran. Puta-etxea, marraskuloak beren etxera bazala, soinean, zuten. Eme-galduan billa zuten gozoa ez zuten galdu nai.

- "Zer nai eta ase. Orixe, mutilok, zion Mikelek, nai bezelakoxea toka."

- "Ez nian uste, euskaldun puterik ganik, zion berriz Joxek. Nereak euskaraz ederki egiten zian. Etziak esan nondarra danik, bainan goierritarra zala sango nitek."

- "Nerea ere euskalduna uan. Bizkairaz erraz mintzatzen zekiena, alegia, zion Bixentek."

- "Bainan, zuek ze pentsatzen dezue, txoferrak elkar-izketan parte arturik. Aluok. Euskal-Errin, gizoneskuok bakarrik degula eskubidea puta izateko? Guk dena libro eta emeak elizara, Arantzazuko Amari errosarioa kantatzera?"

- "Bai, errazoi dek, erantzuten dio Gaizkak. Aspaldin, Euzkadin, etzeok puta eta puta faltarik. Puta aragietan. Puta, giza-legetan. Puta, ideietan..."

- "I, Gaizka alu ori. Bukatu zak ire sermoi txarri ori, bat batean, botatzen dio Joxek. Bazekiat ze esan nai dekan-eta."

Onelaxe eldu ziran Izarraitzpera. Eta, gero arte esateko astirik gabe, bakoitzak bere etxeko bidea artu zuan. Goiz-argia zabaltzen asia zan.

VIII

Ama Inaxi, alarguna zan. Kaletarra. Bear bada, aitona-amonen aitona-amonak jaiotza baserrian, menditxo baten babesean izango zuten, bainan, Inaxik, emakume maitagarriak seaska eta altzoa, eta bularra, kalean izan zituan.

Kaleak, goiko kaletik asita beeraino, txikiak eta aundiak, oso ezaguna zuten. Itun-zaarreko emakumea zirudin. Piña. Azkarra. Trebea. Zintzoa. Garbia. Jainkoaren legean ikasia. Lagun-urkoa egiz maitatzen zekiena. Ambrosi du ondorengo bakarra. Bere sabeleko fruitu.

Bere senarra, Bernardo, illa zua n. Urteak eta Urteak pulmoni gaiztoak kanposanturatu zuanetik. Bainan, aldi luzeak dena, ona eta txarra, aitzu-azi arren, Inaxik, senarraren oroitza, bizi-bizi du biotzean eta soineko beltzean.

Gauero, oeratzean, pertxan, poliki-poliki, jantzi beltza, zintzilizka, jartzean, gaur amets gozoan, biar amets gorratzean, ikus oi du, bere senar zanaren gorputz ura, arima ura, arnas ura, maite-giro ura.

Ordurik, il-errian, senar kutunaren gorputza eortzi zutenetik, kaletarrek, Inaxi, beltzez jantzirik ikusi dute.

-Oitura ori gaurko jendeek baztertu dute. Elizak ere ganbaratu ditu aldareko tresna eta jantzi beltz guztiak. Beste gauza guztietan bezala, jantzietan orrazketetan, oinakoetan, modan jarri bear gera.

-Ez, Ambrosi maite. Ez natxeon gauzon aurka. Bainan uste dinat modak gazteentzako direla. Iretzako. Ongi dakin kezkarik eta buruko minik ez didatela ematen, ez neskatxen gona motzek, ez mutilen bizar luzeek. Oiek giza bizitzan, axalekoak ditun. Nik, barna, biotza, arnasa, nai nizken garbi eta betikor, ez modako, nigan. Igan. Giza-artean. Eta, ene alabatxo, soineko beltz onek, gordetzen din nigan,

garbi eta betikor gorde ere, ire aitaren arnasa garbi eta eder uraren oroitza.

Olako egon aldietan, elkar-izketa gozoan, ama Inaxik alaba Ambrosiri kontatutako zion etxeko kondaira, bere aita-amen arteko maitasuna nolako bizia eta usain gozozkoa izan zan.

-Aldi luzeak, Ambrosi, dena aitzu-aziko din, bainan, nere gogo ezin din ire aitaren oroitzetik askatu. Askatu~~ko~~ ere ez. Il artean, ire aitaren etxea, ire aitaren zintzotasuna kantatzen izango dinat. Maite ninan. Maite nindun. Maite ninduan, bein eta berriz esan oi zion goruntz begiratzuz, askotan ezin eutsirik begi zulotan.

-Bear bada, jarrai oi zion ama Inaxik, gure biotz-mina, ez unan izango gaurko ezkonduen arteko bezalakoa. Kaleak, guretzako, etzinan zeresan aundirik. Etxea unen gu biontzako zorabide. Sukaldean, txoko eder ontantxen, neska-mutiletan biotz-barne-barnean jaio zitzai-gun maitetasuna indartu naian. Arantzarik gabe. Ementxen, sasi-larretatik urrun asi eta loretu unen gure maite-mina.

Olakoetan, ezurak eta aragiak dardaraz, Ambrosi zan, negarrari eman oi ziona, ongi bai zekian arbolaren lora eta fruitu bera zala.

-Bainan, ama...arren...

Ala ere, alaba, biotza jota ikusi arren, Inaxik, kontu-kontari jarraituko zion. Pixkanaka-pixkanaka, alabari, bere biotzean idatzitako liburutik artutako orri batzuk irakurri bear zizkion, jakin zezan aita-amen edesti zoragarria.

-Ire aita, Ambrosi, langilea unen. Or, orman, dotore, zintzilizka, ezkontza-egunez ateratako argazkian. Luze eta zabal, soinez. Begiz, argi. Animaz, zintzo eta jator.

Langile pobrea. Zuzena. Zintzoa. Lan-arloan langile guztien alde jokatzekiena. Ez dinat gezurrik esaten. Kanean eta tabernan, langileen zapalketak zirela, ez zirela-eta, jendeak euki oi zuan jardunari, gorroto zionan.

Kaletik eta tabernatik, ez den zuzenbideri ez den etorriko, zionan.

Auzi-etxe aldrebasa den kalea. Taberna, ze esanik ez. Ire aitak, emen, sukaldem^{an}, etxean, biotzari begiratzuz, ene arpegiari begiratzuz, ausnartu oi zinan giza-arteko problema. Langilearena eta nagusiarena. Elizarena eta erriko agintariena. Beti, ere, Kristo-Jesusen ebanjelioa eskuetan zuelarik. Gero, bazekinan, bildurrik gabe, gogorki, leialtasunez, bizi-bizi, jokatzan, bai nagusien alde, bai langileen alde, bai elizaren alde, bai erriko ^{ag}intariaren alde, biotza inori saldu gabe.

Bainan, alabatxo, jarraituko zion malko-txorta gozoa begietan zuelarik, bainan bein batez illa ekarri zinatenean. Illa. Bai; illa. Ura eguna! Gizonik bizkorrena lertuta, odol-uztuta, urdinduta. Txikia intzenan. Oindio bularreko. Poxpolin txiki biurri, sabel-zorritz, ene bularrean jolasean esnea artzen ari intzenan aita txikituta ekarri zigutenean. Tximistak ere, orlako larri-aldirik ezin zezakenen, ene biotzean, jarri-erazi. Neguaren otza, kaskabarraren zarata, asarratutako itsasoaren oiua, gauaren iluna, basa-piztiaren orrua, gorrotoaren eztena, sukarraren beroa, denak, jesus-amen, esan orduko, ementxen, iretzako esnetan zan bularrean itunan. Ire gosea gozatzuz, neukan bularra, bereala kendu ninan eta ire bizia gogortu bear zuten esne txuriaren tantakak, magalean, altsoan zear, Jainkoak maitasunez ene bularrean iretzako jarritako edari-janaria, lurrera erori itunan. Bularra zintzilik eta, i, negarrez, zotinka, ezin ixilduz. Ez dakin ongi, olako minaren garratza nolakoa dan. Ez dakin nolakoa dan, argia etortzean, gau iluna erne pasa ondorean, aur jaio berriaren ama-alargun bat aizela jakitea, eta bakardadean, umearen negar-doinua, entzun eta entzun, pasatzea, ez dakin ongi. Jainko ona izan dinat lagun. Eta, ire aitaren oroitzuz, usain ederrez gozatzuta daukadan soineko jantzi beltz au.

Inaxi, berez ez da sentimentala. Senarraren erioak, noski, ondorio naikotzarra ezarri dio bere biotzari, bainan emeretzi urte luze auetan, ondorio nekagarri onen gozagarri, ezkontza-egunean Jainkoa testigu zelarik, Bernardori eskaini zion maitasuna gorde nai izan du eta nai du. Aatik bakarrik, ncizka-noizka, alabari konta eta kanta oi dio aitaren istorioa. Ezagutu dezan, Ambrosik, bere aita eta aitaren, senarraren oroitzak

arindu eta goza dezan gizonik gabeko sukaldea eta argitu dezan bakardako iluna. Inaxik, maite-mina, urteak pasa arren, sutan dauka. Eta maistasun ori urteetan barna gordetzen saiatu dalako, bai daki, betikoa, indartsua, il-arterainkoa, gerokoa izan dala eta bizi dan denboran, bere biotzean, itxasoaren gatza, gozoa, zabala, barna izango dituala eta izango dituala suaren beroa, garra, eta izango dituala, lorearen usaina, ederra.

Onelakoxea zan Inaxi, Bernardo zanaren biotzeko maite-mina. Eta, biengandik etorritako fruituari ziona ez zan, ez noski, makalagoa. Senarra illa zuan ezkeroztik, Inaxiren krabelina, Ambrosi zan, eta da. Egun guztiko ametsa, alabatxoa du. Alabari begira, naiz eta alaba Errekaldoko lantegian izan, naiz eta lotan egon, pasako ditu eguneko ordu guztiak.

Inaxi, ~~ana-ándrea~~, alaba aurrera ateratzeko, senarra lurperatu ondorean, bereala lanean asi zan, umearentzat onena bai nai zuan. Erriko beste emakumeen antzera alpargata gintzan, alegia. Leen ere piña zan, noski, etxeko lanetan, lapikokoetan, garbiketetan, josketan, plantxan, gela-josketan. Eskalera zirela, ataria zala, egunaren ordurik geienak, irribarrezka, noizka otoitzean igaro oi zitun.

-Guk, androk, gizonak lantegi zikinetan eta auskalo zenbat arriskuetan ditugun bitartean, zion bere baitan, ezer obeagorik egin al dezakegu lapikoa k gozatu eta atariak edertu baino?

Eta auzoko emakumeak etxe-parean igarotzean esaten ziotenean, ze Inaxi, orain ere lanean? Bereala erantzungo zien goxo-goxo, irribarrez:

-Lantegiko zikinean, gure gizonak irabazitako diruek, gordeleku garbia bear dine. Langilearen nekeak eta izardiak, dana merezi dine. Gure senar onak lanean ari diran bitartean, kartetan asiko al gaitun, ba? Gure langileen izardiak, zapi txuri-garbirik ez ote din eskatzen? Lantegietan, eguzkiak egiten diena, egingo ote zionagu? Argia ukatu?

Orain, aspaldin, ez du orrelako jardunik egiteko betarik. Ixilean. Otoitzean. Inoiz pozez. Inoiz naigabez. Orain azkarka. Orain poliki. Alaba

aurrera atara naita, Ambrosiren ikasketak garaiz ordaindu naita, alegia, lanari eman dio. Ezkontzako fruitua oso ta sano gorde bearra senti oi zuan erraietan. Kaleko beste neskatxak baino gutxiago izan ez zedin goi-ikaskuntza eman bear zitzaion. Beste neskatxen antzera, ez gaizkiago, ez obeto, jantzi bear zuan, lotsa gorririk pasa ez zezan. Janari egokia eman bearko zitzaion, neska indartzeko. Aatik, burrukatu da lanean, alaba lanean asi dan arte, inor eta ezer zapaltzeke.

-Ez, Jainko ona. Ene senarrak bezla, ez det legerik apurtu nai. Bainan, indartu nazazu legetik datozkidan eskubideak errespeta arazteko darabilzkidan burrukan.

Lenengo egunetan, batez ere, alarguntasunaren paperak gertatzean, eta lantegiko zerak gertatzean, jo izan du, Inaxi amonak, otoitzera indar billa. Gaur, ordea, igaroa igaro, doatsu da. Bere neska ain sasoi onekoa, ain liraina, ain ederra, ain ona eta zintzoa ikustean, dena, gutxi iduritzen zaio. Barnean, gorputz osoan garbi ezin esaneko zerbait sentitzen du. Neska berea da. Neska aita zanarena da. Bien maitasunaren lorea. Krabelina. Larrosa. Fruitua. Aragia.

Inaxi, enakume galanta da. Oindio urteek ez dute okertu bere bizkar-egurra. Euskal amonen oituraz, beti ere, ile-xorta, txukunki, poliki eta ederki, moino tankeran orraztuta erabiliko du.

-An, Inaxi amona, nola dijoan beti bezala, beltzez jantzita, bere moino ederrarekin, irribarrezka, denak agurtuz. Orrelako parre gozoagorik eta xamurragorik, ez dinagu ikusi gure auzoan, ez eta ere gure erriko kaleetan.

Eguneroko berriketa dute, babarroetan eta atarietan, goiz eta arrats Inaxi pasatzen ikustean auzoko eme guztiak.

Nola goizak intza ematen duan eta erleak ezta eta larrosak usaina, onelakoxe jario ederra eta ugaria zeukan Inaxiren ibilketak eta jantzi beltzak eta irriparrak. Gaur, goizean goiz, esnatu danean, alaba lotan bere ondoan ikusi duanean, poliki-poliki laztandu du eta bere arnasaren kantua entzutean, ametsez Bernardorena dala pentsatuz, luari eman dio irribarrezka.

IX

Anbrosiren gabeko ibilaldia garratza izan da. Apaiz-etxea urruti ez izan arren, nekez eldu da neska apaiz gaztearen etxera. Bidean, gau-txoriek, taberna-zaleek, edonun, agurtuz, geldi-aziko guten. Berarekin ezagupidea dutenek alaiki eta zintzoki agurtu dute, noski, bainan, ez ezagunek, ordea, lotsagabekeriz, goitik beeraino begiratu ondoren erderazko itzik ezik zikinonakin agurtu eta loretu dute neska.

Etxe beltzaren aurrean, gau-pestara zijoan Kontxesik asmo gaiztoz agurtu duanian, orduantxe, batez ere, sentitu du, gogorki sentitu ere, agur gaiztoaren zirikada mingotxa.

- "Ze, Ambrosi, i bezalako neska zuzenak kalean ibiltzeko orduak al ditun? Gau-pestara etorri nai baden emen lagun bat. Seguru asko, neska bakarra baino, bikotea naiago izango din Mikelek.

Lendik zuan Ambrosik iluna biotzean. Bere beso sendoekin eldurik, Mikelek, estu-estu, aberekeriz, laztandu zuanetik, une garbirik ez du izan. Laztantze ari ziran bitartean, bideak zearo sasitu zitzaizkion. Ordutik, bidean, kalean, barren batetik asita, besteraino etorri da. Apaiz-etxerako bidea artu baino lentxeago, biar arte esanaz, egin dion agurra, kalean, guztiz gazitu zaio, eta gazitu zaizkio kalean artu ditun agurrak, eta, batez ere gazitu zaio Kontxesiren agur-itx gaiztoa.

- "Kalean ibiltzeko orduak al ditun? Neska bakarra baino bikotea naiago izango din Mikelek."

Batzutan, udaran, nola ekaitz-aize biziak eraginda, zeru urdina laino beltzez estaltzen dan, onelaxe laino tristez bete dute bere biotza Kontxesiren itzek.

- "Auek al ditun orduak kalerako? Neska zuzenarentzat, auek al ditun orduak? Auek al ditun orduak?"

Trumoiarekin sakonetik ateratako itzak direla iduritzen zaizkio. Noski,

Kontxesiren agurra entzutean, goitik beeraino eta azaletik barneraino, garrastasunez bete da, eta, une batez, ez daki ze bidetara jo. Kontxesi-ri tximetatik eltzera...Amaren ondora etxera...Bere burua erreka botatze-ra...Zeruko utsean, tximistak bezain azkar dijoazkio, ezurretan zear, zainetan barna, pentsamenturik ilunenak, arima eta gorputza dardaratuz.

"Auek al ditun orduak? Auek al ditun orduak? Auek al ditun orduak?"

Etxe beltzak ere, Kontxesiren agur madarikatuak sorginduta, orixe dio-la iji-ajaka, ixekaz:

"Auek al ditun orduak kalean ibiltzeko? Auek al ditun orduak?"

Ain zuzen ere, ordu artantxe zijoan etxeruntza Karlos apaiz-jaun zaarra. Erriko tabernan, botikario jaunarekin eta erriko jauntxo berri ziran batzuekin, brixkan saio luzea egin ondorean. Bere bekatua zan. Elizako lanak bete ondoren, lagun artera, brixkara, txanpon batzuk jokatzera. Bestela, ona zan. Laguntzailea. Lege-zaarrekoa. Gaurkotasunik elizari eman nai etziona. Aatik gazteek, pekatu ori leporatuko diote. Apaiz zaar-rak, gaur eguneko auzi eta eztabaidetan arterik eta parterik artu nai ez dualako, gazteek kasu aundirik ez diote egingo eta tabernetan nolanai e-rabiliko dute bere izena, eta jauntxo berriekin, lege zaarreko, baina txanpon berriko, jauntxoekin, brixkan, jolasean ikustean irribarrezka, txikito beltzak eskuetan dituztelarik, alkarri esango diote:

"Or zeak, apaiz zaarra erriko zapaltzaileekin, faxistekin. Zeine-kin eta kaleko gizonik aluenekin."

"Gero gazteak zikinak gerala esanaz, or egongo dek, oiuka, bere abots motelakin, ordu-erdi pasa. Obe likek, naiz eta lege-zaarre-koa izan, oiek pikutara bota eta gazteekin ibiltzea."

Ordu artan Ambrosi an ikustearekin Karlos apaiza ez zan batere arritu, ongi bai zekian gazte talde bat, neska eta mutil, gau askotan hiltzen zala Imanol apaiz gaztearen etxean.

"Gabon. Kaixo, Ambrosi!"

Apaiz zaararren itzek ekarri dute neska bere onera minezko ametsetatik, esnatuz.

- "Ah, Jauna, zu ere emen ordu auetan?"

- "Bai, neska. Botikario jaunaren sakelean amar ogerleko lagata, ba netxien izara artera. Eta, euk, ze egiten den, etxe-beltzaren bahesean?"

- "Ba, jauna, Kontxesirekin egin det egonaldi txiki bat eta, orain bereala, Imanol jaunarenera noa. Badakizu, batzar bat degu eta, juan bearako..."

- "Ordu onetan?"

- "Bai, jauna. Ordu onetan".

- "Beno, beno. Asarratu gabe. Neuk lagunduko nat Imanol jaunaren etxeraino. Baina, azkar-azkar bukatu zorioneko biltzar ori. Ez ditun orduak, apaiz gazte baten etxean aldaba joka agteko. Erri-ko gazteek esango dine, gabaz apaiz-bila ateratzen zeratela. Beno. Gainera, batzarrean burrukarik eta xixtrarik eta erreboluziorik ez egin. Pakean bizi bear dinagu."

Imanol, apaiz gaztearen etxera, bereala eldu dira. An zegoen talde batekin batzarrean. Neska eta mutil. Batzuk lurrean. Bestetzuk aulkietan exerita. Neskak, batzuk gonadun, bestetzuk prakadun. Mutilak, batzuk bizardun, bestetzuk ile luzedun edota belarrikodun. Denak, orri bat eskuetan zutelarik.

Anbrosi sartu danean, sekulako ongi-etorri gozoa egin diote, bai apaizak, bai neskek, bai mutilek.

- "Badakin, ba, esaten dio Itziarrek, badakin i gabe kabiko txorikumeak, amarik gabe bezalaxe izan oi gerala."

- "Bai zera. Ni gabe ere, naiko txori aundi zerate denok. Batzarrean biltzeko nere bearrik ez ezue."

- "Ze, Ambrosi, gaur ain berandu etortzeko, Mikelekin al itzenan?"

- "Kaka zaarra, iretzako. Eta, arren faborez, segi, jarrai, denok zintzo-zintzo lanean. Gure apaiz zaarak esan din, ez direla ordu egokiak gau-ordu auek neskentzako, batez ere, apaiz gazte baten etxean batzarrean biltzeko. Eta, orain, etorri-barri izan arren, utzi zaidazue, Imanolekin, bakardadean, itzaegiten. Nere iluna

berak bakarrik argitu dezakeen ezkerro, biok, testigurik gabe, Jainkoaren aurrean itzegingo degu, eta, bitartean, zuok, ez bai zerate makalak, ongi bukatu enkuesta-lana. Eta, e_z aitzu erretore jaunaren esana:

- "Azkar-azkar bukatu batzarra eta arren, erreboluziorik ez gertatu. Leendik Frankon denboratik daukagun pake ura dinagu ona eta zabala."

Denak parriz utzita, Imanolek eta Ambrosik, sukaldeko bidea artu dute. Gero, mai ondoko aulkietan jartzeko betarik gabe, Ambrosiren ikaraz oarturik, urduri zegoala neska antz-emanek, bigun-bigun, galdetuko dio, ixiltasuna puzkatuz:

- Zer den ba, Ambrosi?

Lenbiziko unea, bientzako, oso luzea da. Neskatzak, inolaz ere, ezin du itz egin. Apaizari begiratzeko bildurrez, alegia, begiak lurrean josirik dauzka. Buruko tximetatik oinen azpiraino ikaraz dago. Apaiz zaarrarekin bidean izan duan jardunaldiak, pizka bat bederen, lasaitu dio barna eta argitu bere iluna. Bainan, orain, Imanolen aurrean, soromorroak jaten dizkio jaio orduko itzak. Eztarrian ez du arnasarik. Aita Bernardorena bezala, illa da. Eta noizka apaiz gazteari begiratzen dionean, begietako argia bereala itzaltzen zaio.

Apaiz gazteak, neskatxa onelako posturan inoiz ez baidu ikusi eta zer-bait pasatzen zaiola garbi ikusten baidu, animatuz, beti ere, auxe besterik, ez dio esango:

- Bainan, zer den, Ambrosi. Tira, ba...

Soineko txuri-gorriaren azpian, Ambrosik, bular biak dardaraz zeuzkan. Txindurri-jolasean ezurrak. Ortzak, otz-ikaraz. Ezpainak ilda. Goitik berainoko, eta beetik goikorainoko nekea gorputzean.

Asieraren bezala, orain ere, lurretik eta gonetatik begiak kendu eta Imanol apaizaren arpegi garbian jarriko ditu. Ixil-une luze onetan, apaizaren begiak ere mila biderrez jo dute noski Ambrosiren aurpegian. Sikologo one denez, Imanol apaizak, bai daki Ambrosiren barne-muinetan mamirik

gozoenean, danbateko batez, izugarrizko burruka sortu dala; edota, uste gabeko naigabeak, tarrapataka, guztiz mindu dituela bere erraiak, edota, sexoak, aberekeri oiu egin diola barne-barnean.

-Anbroși. Naikoa den. Itzegin zan. Mesedez, ze demontre daukan biotzean? Batzarra utzita, ire itz entzutera etorria naun, eta, oin-dio, itz bat bera ere ez didan esan.

Ala ere, Mikelek, laztanarekin bizirik gabe utzi dizkion ezpain gorri-moretan, itzik ezin da sortu. Itzaren iturria, nai du zabaldu. Imanoli konta nai dio dan bezala barruko zera. Ortarakoxe, etorri da, noski, ama Inaxi lotaratu ondorean, kalean barna, etxe-beltzaren azpitik, gau-txorien agurrak artuz, apaizaren etxeraino, Orrexegatik dago, lagunak batzarrean dauden bitartean, apaizarekin sukaldean. Bainan, ezin du. Itza, ilunean galdua dauka.

Une luze onetan, Imanol apaiz gazteari neskatxaren ixilak bakarrik itzegiten dio. Begien txingurriketak. Bularren danbadak, Oiek ditu oiulari. Bainan, ixila, ixila baita ezin du ongi ulertu, osoki ezin beintzat, ze gertatzen dan, neskatxaren biotz-zuloan.

-Bainan, Anbroși, mesedez. Ikusten dinat biotza naigabez gainezka daukanala. Eztarriko korapiloa eten eta zeozer esan zan. Biar goiz-erarte ez gaitun, emen, elkarri begira egongo. Gainera ze pentsa bear dine batzarrean daudenek? Anbroși, naikoa den. Faborez, zer den?

-Jauna. Ordu onetan, ze nai detan? Okerra zuzendu nai nuke. Pekatu-an erroi naiz. Aitortu nai nuke.

Au esanda, negarrafi eman dio eta negar-malkoak, orain artean legor-legor zeuskan ezpainak busti eta arindu dizkio. Eta negar-zotinka, malkoek, aurpegia, bular-tontorra, soineko txuri-gorria, bustitzen dizkion bitartean, gaur arratsalde gertatukoa, dena den bezala, kontatu dio Imanol apaizari.

Gero, denak agurtuz, presaka dala esanez, amaren etxera joko du. Alai-ki jo ere. Arin. Erdi-ordirik, tabernetatik, expuela bota ondoren, okerka dijoazten gizonak ez dute bildurtzen.

Barnean, etorreran zun iluna zearo argitu zaio. Lengo pentsamentu denak txuritu zakio. Aoa ere piztuta dauka. Ezpain gorriak txistuarekin buztita. Ordu onetan, Kontxesirekin ere izketa-aldi bat egingo luke, noski. Imaiol apaiz gaztearen itzek gozatu dute, noski, an sukalde bazterrean, sorginkeriz, bere biotz naigabetua.

-Nik, barkatzen ditut zure pekatuak, Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean. Amen.

Kalean, amaren etxerako bidean, itzok inork lapurtu ez dezaizkion, kolkoan, tokirik berezienean gorderik daramazki.

Eta etxera elduz, bee-barruko atea ama esnatu ez dedin, poliki-poliki, itxi duanian, kalean kalea zainduz zeuden bi sereno txapelgorriek elkarri, irri maltzurrez, elkarri begiratu diote.

Lotan, arietsetan, Ambrosik, mila aldiz, gogoratu ditu apaizaren azken itzak, agurrean esanak.

+ "Maite den... Maite-minez ago..."

Noizka-noizka, serenoaren kanta otsak esnatu izan du.

"Las tres i sereno."

BIGARREN ZATIA

I

Anbrosi eta Mikel, ezkongai, pare bat urte igaro ondorean, Urrategiko Ama Birjinaren ermita txurian ezkondu ziran. Ormola-mendiko aritz eta pagoen kerizpe gozoan, edertu eta indartu zuten, noski, maitasuna.

Aragikeriz eta amodio zikinez asetako gau ura, langileak lantegitik alde eginda, bakardadean, aragia, elkarri lasaiki eta beroki eman zioten arratsalde ura, amets uts zan amets zikina, batez ere Ambrosirentzako.

Palanka delako auzoan, birigarro, txori-gaudekin alkarturik osatu zuan, noski, Mikelek tallerrean osatu ezina izan zuan, gorputzaren aragizalekeria. Menditar zanean, bere mendean, an, Erlo aldean, zelaian, pagopean, arkaitzean, zituan biorrei eta zaldiei, ardiei eta akerrei, zeze-nei eta beiei, ikusitako guztia, Bilbon betetzea aal izan zuan, alegia, Mikelek.

Mendia utzita, kaleratu zenean, ala ere, ama-lurraren kumeen zerak, egunoro-egonoro, ikusi arren, aragi-grina, atsegin-gose-egarria, loak arturik zeukan, Abereen zerak, arren eta emeen arteko alukeriak, eta estalaketak, naturak eman oi duan indarra, gosea, aizea, ekaitza, zirala, pentsa oi zuan Izarraitz goian. Abereek kumea egitean, kumean laga oi duten jolasa eta jolasa. Berez jaiotzen dana basa-piztietan. Itziarpeko itxasoan trumoa jaiotzen dan bezala. Pago-artean lainoa azaltzen dan bezala, Zerueta ego eta ipar aizeak sortzen diran bazala, udako gau garbietan zeruetan izarren jolasa zabaltzen dan bezala, naturalki, Mikelen ustez, mendiko sube eta axeri, eta mamorro eta abere denetan, berez, jaiotzen zan alukeria, aragi-irritsa. Auxe zan mendi-goian Mikel baserritarraren pi-

losopia xirplea.

Bere barneko lainokerian itxuturik, orrelakorik gertatuko zaionik ez du inoiz pentsa. Ori eta orrelakoak, abereen zerak ziran. Aita-amagandik, bera, nola manduratu zan, pentsatzen jartzeko zegon. Mendiak ez zion lagatzen.

Baserria, jaiotz-etxea, maita zuan. Mendia, atsegin zitzaion. Izarraitz mendi arroaren bizkarretik, eta tontorretatik eta pagogainetatik, eta zelaietatik, lainorik ez zanean, utziko zien begiei, jolas eta jolas, urrutietako mendietara joaten. Begi-ninietan zituan, noski, Ernio, Txindoki, Gorbea. Pagoeta, Txalintxo, Itxumendi...

Ilargi bateak duan argi garbi zoragarria zeukan begi bietan. Biotzean, berriz, zelaiak, itxas-aize bigunak jotzen duan bakoitzean daukan gozoa, zeukan biotzean. Mendiko garbia zeukan, alegia, barnean, sakon-sakoneraino sarturik. Kaleak, Ambrosiren soinak, lantegiko gauak, batere uste gabe, zalapartaka esnatu-azi dio menditik lotan ekarri duan grina. Bat-bat-ean, konturatu da, bera ere abere dala. Grinadun. Mendian entzuterik izan ez duan sexoaren deia, deadar aundia, kolean entzun du, noski. Eta neska-mutilen arteko maitasuna, grina, sexoaren deia, mendiko abereena bezelakoa izan ez dedin, bieran artean serioki erabakirik, Ormola mendiko ermitan edertzea nai izan dute.

Ambrosi, amazte gaztearen maitasunak, leendik zuan, noski, larrosaren ederra. Neska egin danetik, emetasunari begiratuz, jakin izan du bere ama Inaxiren antzera aurrak izteko etorria dala mundura. Ez da neskazar geldituko. Jainkoa lagun, mutil-paltarik ez du izango. Aatik, bere aur-toki aldera begiak emanaz, amatasun zuzenarekin amets egin du, bai ezkon-gaietan, bai ezkondu ondorean. Bernardo eta Inaxiren alaba bakarra zan, baina berak, Jainko ona lagun, biloba ugari emango zizkion ama Inaxi biziari eta aita Bernardo ilari.

Ambrosik, gaztaro osoan, lantegiko gau ura kendu ezkerro, garbi eta biotz-zabalez eta alaiki, gordea izan du garbitasuna eta nesкатasuna. Orre-gatik, inoiz ez zaio, ez, aitzuko gau uraren iluna eta garratza. Inoiz edo inoiz, bakardadean, gau urarekin pentsatzen jartzean, malkoek poli-

liki-poliki erre izan dizkio begi-zalak. Jainko onari, mila aldiz esker-rak eman ere bai, etxe-beltzaren ondoan, gau trixte artan, bere burua errekara botatzeko ideiak barna erretzen zion unean, apaiz zaarraren agurrak esnatu eta bizkortu zualako.

Ezkontza-egunean, Urrategiko Amaren oinpean, txuri-txuri goitik oinetarano jantzita, ondoan traje urdinarekin Mikel zuelarik, Imanol apaiz gazteak galdetu zionean:

-"Anbroși, nai dezue Mikel zure senartzat?"

Anbroșik, biotzez, dardarak aragiak txingurritutzen zizkion bitartean, erantzun zion:

-"Bai, Jauna, maite det eta nai det Mikel senartzat eta maiteko det bizitza guztian, naigabea, onean. Beti, Jauna."

Seguru asko, lentegian egindako alukeria, apaizaren sukaldean garbitu zitzaion neskatxari, bainan, Ormola mendiko baseliza txiki txurian edertu, eta indartu eta gozatu zaio, egiz eta benetan, maite-mina.

Emetasunaren, amatasunaren, deadarrari ongi eta garbi erantzungo diola, ixilean promes egin dio aldareko gurutzeari eztaietako mezetan.

Orduantxe, bere aurtokian, maitasunaren fruiturik izango dala amets egin du. Ezkondu ezkeroz, Etxeberrieta auzoko etxerik onenean bizi dira, Errakaldetik urruti samar. Bost bat kilometrora. Alde aurrez, Izarraitz mendi arroaren arkaitzak, belarrak, zuaitzak. Goizean goiz, esnatzean, batez ere udaberriko etxean zaie atsegina alderdi au.

Atzean, erreka. Erreka zikina. Zumarragatik ur ustelez beterik datorren Urola. Zumaiko potzu aundian bailerako zakarrerri guztiak utziko ditun erreka.

Sarritan, pijama kentzeko astirik gabe, lepotik elduta Mikelek Anbroși eta Anbroșik Mikelen gerria eskuz loturik, egon oi dira, kontu-kontari, maitasun giroan.

-Beitu, munduaren ederra, Anbroși. Txoria, soso arra, an, non ari dan sasi artean, enamoratuta, emeari kantatzen. An, Izarraitzen, mila sosoren kanta-otsa izango den. Mila enamoratutako txori eta mamorro eta abere egunsentian abeslari...Eta, gu biok, emen, eder-

tasunari begira eta begira, Orratio, egun-sentiak xoratu egiten din gure barna.

-Oindio, ik, Mikel, egiz maite dek mendia, Izarraitz, txoriak, lar-beiak, ardiak, belarrak. Goizetan, batez ere, iri, Mikel, leio onetan mendiari begira, biotza ameslari jartzen zaik. Mendiko usainak zoratu egiten au. Noski, kalean, batzutan beintzat, menditar aiz. Mendiko arnasa dek. Kakutekoa. Xoxotekoa. Erlokoa.

Ondoren, txoriaren, sosoaren kantuz sorginduta, laztan gozoan, lotuko ziran ma:tasun garbiz.

Ilunabarrean, lantegitik, txikiteotik, etorri ondorean, Ambrosi afaria gertatzen ari zan bitartean, joko zuan Mikelek, erreka aldeko balkoira. Emazteak deitu artean, antxen egongo zan, erreka urari, ur-ustel-trixteari, arrain eta sakel gabeko urari begira eta begira.

Bere baitan, ameslari egon ondorean, deituko zion andre gazteari, Ambrosiri.

-Or, Ambrosi, gure industriaren indarra. Nai baden, esan zan lantegietako kaka dala. Baita ere, orreitxek, ur-ustelak ekarri duala eriotza gure erreketara. Eskailu trixte bat ere, ez dala ikusten. Bainan, or zeon, erreka langileen izardiarekin eta makinen koi-pearekin zikindurik egon arren, or, zeon gure indarra. Nagusiek diruketa egin ondoren, geldi oi den txarrikeria den.

Bai, gerra. Ik, Mikel, ori, onela ikusten, alegia, Errekaldeko nagusia aizelako. Ire emazte izan arren, bestela ikusten diat erreka kontua. Errekak, sabelean bear duan urak, garbia bear likek. Euriaren antzekoa. Langile gizajoen odolarekin eta izardiarekin zikindurik zeok ur ori. Bizitzaren zikina, eta mina eta desesperazioa, ikusten dizkiat, nik, erreka onetako uretan.

Afari gozoak, sukaldeko mai gaineko janariak eta edariak, segitun, arindu oi zituan atzekaldeko balkoiko xextrak.

Etxeberrieta auzoko etxeak, beste bista eder bi ere bai ditu. Eskuinetik, Loiolako etxe aundiaren arrizko ormetatik, goruntza, altxatzen dan dorrea ongi ikusten da. Ipar aldera jotzen du. Urrutiraxeago

Ernioren muturra, Izarraitzen aizpa. Batzutan, lainoz txapelduta. Bes-tetan, den bezala. Zuzitzez eta belarrez jantzita azpi-aldean. Goian, berriz, arriz eta gurutzez.

Udara arcan, osgarbi denean, oso atsegin zaie ezkonberria eskuin aldeko balkoian. Ementxen, gau-giro ederrean, ipar-aizea artuz, afaldu oi dute kalean lagun arteko konpromisorik ez dutenean.

- "Ikusten den, Ambrosi, an, urrutian, izarpean, mendiaren iluna?

Olako gabetan, Ernio, mendi gogorra, bere zabalean eta bizkarrean sorginez beterik dagola pentsatzen dinat. An, muturrean dauden gurutzeak apurtzera etortzen direla, esango niken, gizaldi-gizaldiz Euskal-Erriko leize-zulotan jaio diran sorgin zaarrak."

- "Tira, Tira. Mikel, orrelakorik ez zaidak aitatu. Sorginen istorioak ez zidate grazirik egiten. Istorio oiek, negu beltzean, trumoi aldian, bildurraren bildurrez asmatutakoak dituk, noski."

- "Et, kaserritarren gauzak direla? Lengo baten, amaiketako meza ondoren, lau sorgin zaar ikusi nizkinan. Okotzean dozena bat ile edo bizar urdin. Ao-sapaian bi edo iru ortz ustel luze, an ari itunan diabrukeriak esaten. Kaleak ere bai dizkin sorginak. Noski."

- "Menditik etorriak izango dituk. Seguru. Gainera esan dek, amaiketako meza, -ondoren, ikusi ituala. Ai, Mikel, Mikel, aspaldi ontan juan al aiz mezetara? Ezkondu ezkeroz..."

- "Bai, neska. Loiolako Erretore jauna, ointxen asiko den eskilajoka."

Onkaxe, bereala, bukatu oi zuan Mikelek elizako kontua.

Ezker aldetik, berriz, erriko enparantza nagusira jotzen duten bideak ditu. Kalerik bizienak. Dotorenak. Komertziorik onenak, jolas-lekurik bikainenak, jan-tokirik pamatuenak ementxen daude. Aatik, gazteek eta zaarreek, neskek eta mutilek, mutil eta neska koxkorrek, batez ere jai egunetan eta opor aldietan, oso ezagunak dituzte enparantza aldeko kaleak.

Orregatik, ezkon berriek, jai-eguardiz, kaleetako bixitasuna ikusi nai-

ta, eskuin aldeko balkoian jarriko dira bermuta artuz.

-"Ikusten alden zein neskakin dabillen Pikutegiko mutila?"

-"Bai, neska, orrek onezkero, izango zizkinan amaika senargai. Eme bezala ez den itxusia. Arropa estu oiekin ezin din bere emet³sunaren oiurik ixildu. Ikusten al den nola denak begira dauzka? Ipur-aldea eta bular tontorrek arinak dizkin. Bainan, neska bezala, funtsezko eme bezala, bai din zerbaiten palta."

-"Et, Mikel, an ire eguneroko lagunak. Makina bat barriketatik eta zara³rietatik, edango zieten, eta oindio, bazkaltzera juateke, or zabil³tzak kalean, gibelak usteldu artean. Gaizka, Joxe, Patxi... inor ez dek palta. Euren etxeetan, beste igandetan bezala, bazkaria orrerik egongo dek. Amaren aserrea ez dek auntzaren gabeko ez³tula izango."

-"Beno, Ambrosi. I, ere, sabel-zorritz egongo aiz eta goazen bazkaltzera. Utzi dezagun kalea kaletarrekin."

-"Bai, Mikel. Txori bakoitza bere kabian utzita bete dezagun bazkari-legea." Bedeinka gaitzala Jainko onak. Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean. Amen Jesus. On egin daigula."

Aspaldin, Etxeberri-Auzoan, lasai bizi ziran. Ezkontzak, berriak, garratzik ez bai du, eta, maitasun berriak dena gozaten bai du, Mikel³ek eta Ambrosik, arantz³ik gabeko, larrosa zala pentsa oi zuten berenbizitza berria. Etorkizunari buruz laino beltzik ez zuten ikusten. Batez ere, Mikel zan, ontan, itxua. Etxeberriko kabia gozoa zan Errekaldeko lantegiari esker. Txoririk azkarrenak ere ezin zezakean kabi obeagorik egin. Ekaitz beltzenak ere, ez zuan izurratuko. Edurrak, izotzak, eur³iak ez zuan pikutaratuko. Bien arteko maitasunak lotuko zian aragiak, eta edertuko, aize ederrez. Egunero, oeratzean, maitasun nagusia egin ondorean, dardaraz, izarditan, aienaka, maitasunaren minak ezin menderatuz, elkarri auxe zioten:

-"Au dek edertasuna."

-"Ambrosi. Beti-betiko maitasuna dinagu."

-"Mikel. Mikel. Mikel, nerea."

-"Laztan eta lo egin dezagun biar-arteraino."

Etxeberrieta-auzoan, laister izango zan krabelin berria. Oeratzean, gabetan, sarritan eman oi zuan Ambrosik bere eskua kezka aur-toki gainera, umearen jolasa senti naita. Maitasunaren lendabiziko fruituaren deia entzun nai zuan.

I I

Lantegietarako ez zituzten egun onak. Aldizkariak, irratiek, telebis-
tek, bolada onetan mundu guztiko berriekin, estuta zeuzkaten Euskal-
Erriko nagusien biotzak. Urre eta dolar eta marko arloko krisisa gero-
ago eta zabalagoa zala Europa aldean eta Euskadin, burni-lanak otzal-
dia izan duela-ta, bildur zan nagusi jendea. Ekonomiari buruz, aldake-
ta etorri gitekean eta, lantegietako ugazabak beren burua nola salba
jarriak ziran, Euskal-Erriko baztarretan.

Ipar-Ameriketak, eta M.K.-oek, eta Japoniek, euren nazio arteko eko-
nomiaren burruka zala-ta, erri txikien, nazio pobreen ekonomia, Euska-
diko lantegi askoren lana, ondatuko ote zan esamesak zabaldurik zeuden.

Bial-gaiak, leen errezki erbestera bidaltzen ziran lanak, kanporatze-
rik ez baldin badator, lantegi askorentzat erioa izango da.

Ekar-gaiak, berriz, garestitzen baldin badira, gainera, erri aberats,
nagusi, oietatik bear-bearrezko duten gaikirik ekartzetik ez dute izan-
go da.

Bestetik, aspaldi ontan, langileek egun-sariari buruz mila eskabide
eginak dira Euskadiko Lantegirik nagusienetan. Batzuetan sindikatoen
bidez. Bestetan, indarkeriz. Opor eginez.

Eibarako, Lazpiko, Zumarragako, lantegirik sonatuetan, izandu diran
burrukek, lanetik gizonak indarrez botatze oiek, opor egunetako kale
giro narraiek, bildurtuta zeuzten Urola bailerako ugazabak eta langi-
leak.

Irunako gizon-lapurketak jo zuan gero trumoiaren antzera, bat bat-
ean, indartsu, kupidarik gabe, lau aizeetara. Urola aldean eta batez
ere Mikelen errian, Errekalden eta beste lantegietan, besterik ez zan
entzuten. Iur-ikarak etxea astintzen duan bezalaxe, astindu ditu berri
orrek biotzak Urola-aranean. Nagusiak bildurturik, zertara jo ezin as-

matuz dabiltz. Bat batean kaskabarra erori zaie lantegietara.

-"Ze ogin bear diagu lengileei saria jasota? Itota geldituko gaituk."

-"Kaloko esamesak ez dituk gero kolore onekoak..."

-"Europa aldetik ez zetorrek laino txuririk, eta Europako atetik itxi ezkerro, emen, jai zeok."

-"Langileak, sekulan-sekulotan, ez dituk ain ederki bizi. Ze nai die ba, erregeek bezala bizitzea?"

Langileek, berriz, kalean, bizi-modua, garestitzen, egunetik egunera ari dala-ta, larri eta estu ikusten dute burua. Noski, dana goraka zihoan. Oloa gora. Babarruna gora. Ogia gora. Patata gora. Bidaiak gora. Lan-saria bakarrik zegon geldirik.

-"Et. Ikusten dek ura? Atzo pobre eta gaur aberats. Gure lanak bai dik batzuetako diru-iturri ederrik. Guretzako izardia bakarrik."

-"Noizko ote degu sari edertze ori? Lantegi batzuetan, gogorkeriz, lortu omen die. Guk ere, onean ezin degunez, ortara jo bearke diagu."

Mikelenera, bailerako lantegi guztietara bezala, laister joko du langile jendearen eraso-aldiak. Aspalditik lapikoa beroa zegon Errekaldeko lantegian. Eta, laister gainezka egiteko arrixkua zegoen. Ori nabari da.

Talde txiki batek, oindio, itxaropen pizkat bat Ambrosiren biotz onean jarria dauka. Mikelekin ezkondu zanetik, konfiantza zertxo bat, galdurik euki arren, espero zuten Ambrosigandik konponketa denon onerako, ugazabaren eta langileen onerako, alegia. Mikelengan inork ez du jartzen usterik. Mikel zekena zan. Berekoia. Ugazaba zitala.

Imanol, apaiz gaztearen etxean, batzarrean biltzen ziran gazteetatik, bi edo iruk, ementxen, Errekalden egiten zuten lana eta auek jakineko zuten, Ambrosik, jatorri eta kristauki, langileen alde jokatuko zuala. Mikelek biguntzeko moduko biotza baldin badu, aal edo ezin, Ambrosik bigunduko dio biotza. Ambrosik, senarraren barna mindu arren.

langileen eskubideak babestu eta zainduko ditu.

Errekalden, komunistek ziran, biurriena. Lapikoa gainezka jarri zedin sua gogoz zirikatuko zuten. Une onetan, sator-lanean, lantegian eurak bezalakorik ez zegoen. Zirimirrian, pizkanaka eta beti ere azpilanean, langile jendea bereganatu naita, jo ta ke ari dira.

Nabarmena zan, lantegiko mutilen eta nesken artean, bai zirela ogeitamarren bat komunista izeneko edo aldeko.

Sindikato bezala, CC.OO. eta E.L.A. delakoak ere egon arren, segurua-ski, U.G.T. zan buru eta nausi. Eta, bear dan orduan, gauzak munduan, Euskadin, Urola-baileran, Errekalden, orrela baldin badijoazte, matxinadaren eta langileen eskubideen oinarria berak, ezkertarrek jarriko dute.

Azken egun auetan, kaletik lantegira sartzen dan aize-berri-zakarrarekin, Mikel zearo naasturik dago. Aserraturik. Bere onetik ertenda.

Bein, komunean, orri naastaile pila, bilatu zuanetik, ezin ditu orrietan irakurritakoak bere gogotik kendu.

-"Ikusten danez, emen, ene lantegian, Errekalden, iraulketa nai die. Txorimalo ustel aluok."

Europatik, Euskaditik, Urola-baileratik, aspaldin berri onik ez etorri arran, bere amazteak lasaiago begiratzen zion etorkizunari. Alegia, lainoaren beltza, Jainko onak, noizbait zurituko zuala, biotzak, fedeak, irrintzika adi-erazten zion.

Noski, Euskal-Erriko, bazterretan ekaitzak gogorki jo du. Lantegiak eta diru-kutxak, eta dendak eta tabernak geldi-eraziz edota itxiz, Euskadiko jendeek, aspaldidanik, barnetan, odoletan, gibeletan zeukaten amorrua kaleratu izan dute.

Anbrosi, Errekaldeko lantegiko ugazabaren amazte gazteak, bai daki, langilearen arnasa mintzen eta zorutzen danean, basoetan barrena, azkarki, Euskadi-guztira zabaltzen ari dala.

Egunerokoari begiratzea aski zaio. Bilbo, Donosti, Gasteiz, Iruna...

Euskadiren auspoak... Ez zen ez pakerik, Euskal lurretan. Nagusiek alde batetik. Langileek bestetik. Tartetik, azpi-lanak.

Anbrosirentzat, Europako eta Euskadiko problemek, "noizbait" euki zezaketen konponketa. Beti ere Jaungoikoa lagun. Bainan, "noizbait" ori etorri artean, langileen arnasak, arnasa beroak, erre zezakean Euskadi. Erre zezakean Gipuzku. Mikelen Errekaldean bila zezakean lapikoa ganezka jartzeko giroa. Eta, orduan, noski, langileen arnasak, beren etxean, beren lantegian, Mikelen eta Anbrosiren kaiolan, sekulako ondaketa egin zezakean. Noski eta noski.

Urrengo batean, ezkertarrek errez zabalduko zuten matxinadaren arnasa. Mikelek, komunera txixa egitera joan zanean billa zituan orrien berri, Anbrosik bai zekian. Lantegiari buruz, apaizaren etxean, zer esaten zan, ze burruka etorri zeikean, zeikean, zeintzuk ziran burrukaren aldeko, zeintzuk paketsu lan-sariak ontzeko lanean zabiltzanak ziran, Anbrosik, ongi baino obeto zekian. Ala ta guztiz ere ez zion bildurrik etorkizunari. Langilearen postura egokia eta zuzena dala aitortuko du batzarretan, eta kaleko paola denetan.

Batxiler-ikasketak amaitu ondoren, bizi-moduari bere zera, bere indarra, eman naita, Errekalden, langile bezala jarri zan. Aatik, langilen naigabeak, norlako ezten zorrotza duan ongi daki. Langilearen arropa azpiko izardi beroak, bai daki, bularretan, eta galtzarpetan, iztarretan, aragietan, ze jolas narrax egiten duan. Ugazabaren emaztea izateak ez dio bururik zoratu. Langile-aizea darama biotzean, eta bere senarra miadu arren, langileen eskubideak zainduko ditu, ugazabarenak aitzu gabe.

- "Bai, andra, langileek berea bear dine. Noski. Goiz eta arrats, ik diodanez, lan-gorria egiten dine. Izardia, erreka zikintzen duten izardia eurena den. Bainan, saltsa au...

- "Saltsa au, geuk, gizonok zikinkeriz egina dek munduko lapiko aundi onetan. Inori kulparik ez bota, lapikoa zitalez beterik dagolako.

- "Anbrosi, arren. Langileari nik berea ematen zionat. Gainera alper utsa den gure lantegiko biargina. Eta komunista eta eliztar oiek puta-kume madarikatuak ditun. Perretxikoak. Saltsa-egileak."
- "Kontuz, Mikel, itzokin. Komunistek, gorri izan arren, txuritik ere, zerbait bai die. Noski. Euren iraulketetan ez dek dena zikin. Gizona salba nai dik. Gizon utsa, alegia. Eta, ori, berez ez dek zikinkeria, txarrikeria, putakeria. Gizon utsean gelditzea, Jainkoa, zeru-lurren egilea dan Jainko aundia ukatzean...ortxe zeok orma eta koxka guretzako, Kristaudentzako. Ik diokan bezala, kabroitik eta putatik ez zeukate ezertxo ere. Gizonak oro Jainkoaren seme eta antzeko dituk."
- "Eta, orduan, eliztar zerri oiek, zer ditun Elizaren indarra, pulpito zaarren gaineratik, aprobetxatuz, or zebiltza batez ere, apaiz gazte pijoak, dena ondatzen. Justizia dela, pobreak direla, langilea dala, giza-eskubideak direla-ta, euskera dala-ta, kakaz bete zigune euskal lurra."
- "Mesedez, Mikel. Ez adi zoratu. Eliztarrak, Jainkoari esker, Erromako bigarren Kontzilioko erakutsiei jarraituz, sekulan baino pinagoak eta jatorragoak dizkiagu."

Jauntxoek ala naita, urteetan zear, giza-artean jarri izan diran egitura okerrak, zuzenduz, zebiltzak apaiz berriak, eta eliztar gazteak berri gaurko gizona, pakearen eta justiziaran ego txurietan jarri naita zebiltzak, jakinik zeruko biderako makilarik gogorrenak eta egiazkorenak oiek direla. Zuzentasunik gabe ez dek pakerik, ez zerurik izango.

Eta, ziurki, Mikel maitea, naiz eta etsaiak aurkerako bildur, apaiz eta eliztar berriak, goiz-argiz indarturik, ez dituk lurra jota geldituko. Ezagutzen dizkiak. Imanol ezagutzen detan bezala, auzokoak ere bai. Bikainak dituk. Zakarren eta gorrien bildur gabeak. Eta, pakea eta justizia lortzeko, beste biderik ez bada, indarrera joko die, gogorkeriari

gogorrez jo arren."

-"Kaka, kaka, eta kaka."

Ori, bein eta bein esanez, arpegia gorriturik, an ibiliko zan, deabrututa, deabruak bere zainetatik anka egin bitartean, etxearen lau aldetara, orain Izarraitz aldeko balkoira, gero Loiola aldekoa, ber-
riz erreka aldekoa, bestean enparantza aldekoa. Orduan, balkoiak eta
leioak, normalki, "bixta-eder" izan arren, deabrukeriz edo, "bixta-za-
tar" biurtuko zitzaizkion.

Izarraitz mamutzar itxusi madarikatu bezala ikusiko zuan, bereala,
blastada batean, bere etxea guztiz apurtu zezakeana. Ernio, sorginez,
atzelariz, mozkorrez, putaz beterik, gerturik, ilunean, bere bila et-
ortzeko. Erreka, uralde bizian, bere indarrei neurririk ezin arturik,
bere Errekaldeko lantegia, apurtu zezakean bezala. Enparantza, kaleak...
Kaleko zaar eta gazte, mutil eta neska, denak, balkoira begira, bur-
lezka, deabruak orrela naita, ikusiko zituan. Aberekeriz, amorruez, ma-
kilak, burui-puzketa luzeak aidean aztinduz, aupaka, eta kanta eta ir-
rintzi eta oiu beltzetan, an zeuden, kalean, justizi zikina eskatuz,
bera lantegitik, matxinadaz, bota naiaz. Amorru-aldian, bein baino ge-
iagotan, deabrukeriz, apurtu izan du kale aldeko balkoiko atearen kris-
tala. Jeneralki, emaztearen itz bigunak, aterako zion gorputzetik dea-
brua.

-"Tira, Mikel. Naikoa dek. Orrela jartzeak, eztu neke aina balio.
Gainera, oindio asarre aundirik ez diagu lantegian. Eta, esame-
setan dabilen burruka sortzen bada, Jainkoak lagunduko ziguk.
Bere laguntzarekin zuzenduko diagu sesioa.

Pentsa zak, Jainkoak, gizona libro egin duala eta aatik libro
utzi bear diogula eta libro, batez ere bere ideiak.

Gero, bakoitzak bere nortasuna bizitzan osatzeko, eskubide be-
reziak bai dizkik. Langileek errespetagarriak dituk, naiz eta
batzuetan, ez izan ain garbiak bere eskakizunak. Tira, Mikel,
lasaitu adi."

Gerxeago, emetasunezko kutsu biguna, apropos, ilun-alditik Mikel atera naita, itzari emanaz, segiko zion.

-"Eman, Mikel, nere aur-tokian, bion aurtxoa. Bion lendabiziko fruitua. Poliki-poliki, pasa zak ire esku eder aundi ori nere sabeletik. Barnean dagon aurtxoa ire dek. Eta, Mikel, gizonek otsokeriz, ire lantegia errespetatzen ez badute, au, nere barnean ire indarrez egiten ari den aurtxo au, ni il bitartean, errespetatza-araziko diat. Au, Mikel, irea eta nerea bakarrik dek."

Olakotan, Ambrosi, emazte zintzoak, bizkarretik elduta, oeraino eramangoi zuar. Mikel eta izara zurien artean laztanka gozatu bere malkoak.

I I I

Apaiza, Imanol jauna, etorri berria zan errira. Gaztea. Aizkolaria zirudin. Sendoa. Aizkolari trebeak izan oi ditun giarrez egina. Zuaitzak moztu eta gerriak arrastaka basotik baserriraino eramanez sendotutako ezurrak eta aragiak zituala zirudin.

Garbi-garbi, betileak mugitu gabe, lagun-urkoari begiratzen dakienada. Mutilari bezala, neskatxari ere, irribarrez, esne-esnetan, begiratu dio.

Etorri bezain ezkar, erriko aurtxoak, neska-mutil koxkorrak bereganatu izan ditu. Antxen, noski, Imanol apaiz berriarengan, ikusi dute benetako adiskidea.

Jatorra zan. Azpikeri gabekoa. Parre-samurrekoa. Toles-gabea. Umea umeeekin. Gaztediak, kaleko neska-mutilek, laister artuko dute begi onenez eta pozez. Apaiz berri ez zan, noski, zaarraren antzekoa. Karlos, apaiz zaarrak, on utsa izan arren, elizpea eta sakristia, geiegi maita ditu. Eliza aundiko arkupetan, lege zaarrari jarraituz, jendea agurtuz, azal-beltzezko liburuxka irakurriz, an ikusi oi dute, eguna juan, eguna etorri, kaletarrek. Bestela, ikusi nai duanak, bataioa dela, ezkontza dela-ta, apaiz zaarrarekin itz egin nai duanak, sakristira joan bearko du, edota, ausartia baldin bada, botikario eta sekretario jaunekin brixkan ari dan tabernara.

Gaztediak, Imanol apaiz gaztearen joera denak txalotzen ditu. Elizakoak eta kalekoak. Kalean edozein agurtzen ba dau, bera ere edozeinek agurtzen du. Imanol apaizari, lagun-arterako, bata edo bestea izan, berdin zaiq. Trapero eta kale-garbitzaileak, langileak eta alperrek, gorriak eta txuriak, agurtuko ditu eta agurtuko dute.

Kaleko oiturari jarraituz, lagun-arteaz gozatzeko eta indartzeko,

parrandan, txikiteoan ibili bear baldin bada, eguerdietan eta ilunabarretan gazteekin edo zaarrekin, dozena erdi bat txikito jotzeko, lotsarik ez zeukan. Gainera, erriko langileen problemataz jabetzeko, modurik onena orixe zala iduritzen zitzaien.

Beretzako, kaleko gizonak, giza-arteko estrukturei eta ekonomiari buruz, edo kulturei eta giza-eskubideei buruz, nola pentsatzen zuten jakiteko, eskolarik onena, taberna zan. Kaleko elkar-izketa.

Elizara eta elizako arkupetara, erriko eta kaleko auziak erabakitzera ez zan inor azalduko. Apaizak atera bear zuan arpegia emanaz kalera. Eta gizon denak, ez dio kokkarik jarriko.

Gabean, nekaturik oeratzean, berekiko, sarritan, auxe zion:

"Gaurko gizonaren biotza, kale-garbitzaile eta traperero oien barna langile eta alper oien arima, ez dek ain zekena. Eliztar ez izan arren ziurki, Jainkoak arte eta parte dik oien bizitzan."

Pilota jokua zuan apaiz berriak, tarteka-marteka, asti-uneetan, gorputza arinduz denbora pasatzeko aukeraturik zeukan jolasketa. Gazte taldearekin, erriko pilota toki nasian edo txikian, edo udal-etxekeo arkupetan, alkondara izardiz busti artean, astean bitan, palaz eta eskuz, arituko zan.

Gorputzei ondo egina bai zan eta anak arinak bai zituan, pilota, indartsu erabiliko zuan, txoko eta zabal, aurre eta atsean erabili ere.

Erriko zaarrek, batez ere, gozatu oi dira apaiza frontoian ikusirik. Makina bat arratsalde eder igarotzen dute, noski, apaiza gazteekin jokuan, bizi-bizi, dutelarik. Alde aurrez, aulkietan exerita, apaiza noiz azalduko, berriketan, zigarroa errez, egongo dira.

Amar errial apaizaren alde eginaz, bere joko atsegina eta ederra ikusiz, aidez zabalera ebakiz, txokorako pilota poliki geratuz, indartsu besagazinez jokatuz, zortzigarren kuadroraino botaaz, tirripi-tarrapa "buenarako" pilota arrapatu naian mutil-gazteak ikusiz, sekulako arratsaldeak pasa oi dituzte zaarrek. Apaiz berriak, bai du bere zera.

Erriari, Kaleari, ikutu berria eman dio. Frontoiari ere bai. Zaarrek, apaizak jokatzen duanian, giro gozoagoa senditzen dute pelota tokian. Gainera, galdu edo irabazi, zaarrek bai zekiten, apaizak nai beste ardo beltz aterako ziala.

Jeneralki, jokoaren ondoren, trabesa irabazi arren, sakelean txanponik baldin bazuan, apaizaren txanponek kantatuko zuten ordaintzeko orduan. Alperrik galtzaileak asarratuko ziran. Apaizak gustora ordainduko zuan. Imanol apaizak, zituanak eta ez zituanak erriarentzako zituan. Batez ere gazteentzako. Ori nabarmen zan. Aatik jarraitzen dio gaztediak.

Emakumea ere jarraiki izango du. Imanol, apaiz gaztea, luzea zan. Altuz, metro eta larogei zentimetro inguruko mutila. Sabel-zorrorik gabekoa. Spin gainez, berdina. Begiz, berde-beltz. Ilez, gorrizka. Arpegiz, alai. Kaleko gazteen antzera jantzita, galanta zan. Jite onekoa. Aatik, jarraiki dituan emakumeak, jakinez edo ez jakinez, berarengana, sexoaren indarrak eragina, begiarekin, edota biotzarekin, joko dute. Apaiz gaztea ain mutil eder ikusirik, bere apaizgoarekin aizturik, kaleko neska gazteak eta alargundutako andrek eta atso zaarrek, euren emetasunaren deadarra senti oi dute biotz-mamietan. Arraren usainak, fededun izan arren, zearo zorautzen ditu. Amen-jesusek ez die balio.

Imanoli, ori, seminarioak, eta geroztiko bizitzak, sikolojoki jokatzen ongi prakutsi bai zioten, nabarmen-nabarmen zitzaien. Igarrita zeon. Sasi-mauxorik ez zuan bear. Berak ere, naturaren bulla, barne-tan, nolakoa zan bai zekian.

Apaiz-eskola nagusian, gorputzez eta kulturaz azitzen ari zan birtartean, arrodolak makina bat aldiz, kezketan eta ametsetan, jarria zan. Kontzilioaren aize berriak direla-ta, apaizen ezkongetasuna eztabaidan jarria izan dala eta, aatik, bakardadean, serioki, sexoan, gizontasunean, etorkizunean, pentsa bear izan du.

Apaiz-eskola, lagun artean, giroa ez zan ain garbia urte aietan. Gazteek naasi ziran. Ez zekiten zerbidetara jo. Ezkongetasuna auker-

an utziko ote zuten? Ezkongetasunari eusten baldin ba zion elizak, geroan mutil zaar izateko indarrik izango ote zuten?

Orregatik, Erromak, ezkongetasun-legea, onetsi eta senditu duan-
an, Imanolen lagun batzuk, ezkongetasuna ezinezkoa izango zitzaiela-
ko, seminariora utzita, kaleratu egin ziran. Sexoak, sekulako bakantasu-
na emon zion apaiz-eskolari.

Alare, bera, Imanol, apaiz ezkongabea izango zan. Kaleratu ziren postura berezkoa iduritzen zitzaion eta iritzi txarrik, inon eta ino-
ri ez dio botako. Askatasunez gizonki, joka zutela pentsa zuan orduan eta gaur ere onelaxe pentsatzen du.

Ezkongetza arroki eramango du. Sexoari, Jainkoa lagun duelarik, in-
darrak neurtuko dizkio. Ori ezina danik ez du uste. Orregatik, erriko
neskak jarraiki ikustean kalean, odolaren aizkura, soineko sexoaren
zarraparra senditu arren, emerik ez du lagun artetik kenduko. Errian,
kalean eta elizan, denan apaiz izango da.

Sarritan egiten zuan otoitzean, Jainkoaren aurrean belaunikaturik,
bere baitan onelaxe mintzatuko da:

- "Noski. Apaizak, artaldetik, gogoak ala emanda, funtsik gabe,
ezin botako dizkik batzuk kanpora. Denak bear dizkiat Kristo-
ren erreinurako. Aurrak, gazteak, zaarrak. Neska eta mutil.
Andra eta gizon. Pobre eta aberats. Ijito eta señorito.

Zergatik, Jauna, iges egin bear diot Arantxari? Arropa ar-
inak ditualako...? Zergatik urrun-arazi bear det nigandik It-
ziar? Kalean izen garbirik eta onik ez dualako...? Txorakeria
litzateke." "

Bereala, otoitzeko ideia indartu naita, Imanol apaiz ezkongabeak,
ebanjeliora joko du. Eta Maria Madalenarena irakurriz gozatuko du,
espiritualki, bere ezkongetasuna, sexoaren indarra menderatuz.

Ondoren, otoitzari jarraituz, berekiko, barneko itzez, esango du,
Jainkoa testigu dualarik:

- "Santa Madalena. Madalena, berez, legez, ezkonduarekin oiera-
tuta, pekatuan arrapatu zutelako arrika il bearra zegon. Ema-

galdua zan. Ala ere Kristok, emen aurrean daukaten Jesus Jau-
nak, fariseotarrak, begi biurriz, zakur-zakur, begira eta begi-
ra ditualarik, apaizak eta zaarrak ikus-minez auki arren, bere
oinetan daukan emakumeari oinei laztan ematen utziko dio...

Zergatik, bialdu bear dituk ik igandik, ire lagun-artetik
jai-zaleak, izen txarreko emakumeak, alperrak, txorizoak...?"

Imanol, apaiz berria jatorra zan, noski. Osoa. Gizona, sexo ta guz-
ti. Kristana. Apaiza. Alare ba ditu etsaiak. Kalean, bai dira atzetik
begiratzen dietenak. Madalena batekin arrapatu nai dutenak ere bai di-
ra errian.

Ego aizeak, udazkenean zuaitzetako ostro zaar igartuak botatzen di-
tuan bezala, bota eta garbitu omen ditu apaiz berriak oitura zaar on
guztiak. Barka ezinekoa, noski. Gainera, eurentzako, lotsagabeki eta
arroki itz egiten du elizkizunetan, geiegi sartuz politikan. Orrega-
tik, giza-arteko eta elizako gauzetan lengo posturet看 daudenek, ezin
dute irintsi Imanol apaiz berriaren itza, jaskera, jokaera.

Talde txiki onek, Imanol ikustez bakarrik, bere barne zuloan sen-
titzen du ikara, naska, ezin-ikusia.

"Erriko kaletan sentitzen dan giro berri itxusi onekin, ze iku-
sirik bai dik Imanol delako apaizak. Ziurki errudun dek. Len-
go pakea apurtu ziguk bere istorio zikinekin. Apaiza ez dek
ortarako. Apaiza otoitz-liburutxuarekin, arkupetan, elizan,
sakristian ibil bear likek lengo apaizen antzera. Aiek ituan
benetako apaizak. Ez, Imanol delakoa. Imanolen prakak eta al-
kondarak eta nikisak, eliza zikintzen dute. Gazteen, neska-
-mutilen arintasun-askatasunaren oiua, arnasa dek apaiz ber-
ria, eta beranduegi izan baino lenago, gotzaiak nai edo ez,
erritik bialdu, bota, bearko diagu."

Ala ta guztiz ere, talde onen esamesen berri izan arren, Imanol
apaiz berriak ez zuan zainetan ikararik. Bere lanari jarraituko dio.

Mendiko, Izarraitzeko arkaitz artean jaio eta azi eta indartutako
pago ederraren antzekoa zan. Zutik zegon. Makurtu gabe bizkarra. Ge-

roago eta adar gozoagoak zabalduz, erriko gazte eta zaarrek itzalpe atsegina izan zezaten eta dezaten, antxen egongo da , elizan eta kalean.

Eta, ekartz beltzean, tximistak jo arren, pagoak, ostro berria eman oi duan bezala, berak ere esamesak kalean zabaldu arren, ostro berriak emango ditu, pakearen, zuzentasunaren, kristautasunaren usaina eman eta zabalduko duten ostroak. Eskabadora gaizkileak atera bearke du gustraitik. Erritik. Kaletik.

I V

Pake unean bezala, burruka aldian ere bai, kalea ezin egonean zan. Nunbait, kaleek ixilikako indarrak dituzte. Galipotek, zementoak, arriek, ondarrek, espaloiek, ormek, bere zeretan bai dute, noski, indar uts bat. Eta kaletarrek gai oien indarra aprobetxatuz, aspaldin erria dotoretu naita dabilta. Sorginkeriz sortu direla, zirudin, errian, galipot, eta zemento eta arri eta ondar eta espaloi eta orma zaarren gainetan, berri-berriak. Kale berriak. Etxe berriak. Espaloi berriak. Lorategi berriak. Edaritegi berriak.

Mikel, menditik iesa, kalera etorri zanean, eguzkia iskutatzean, iluna zuan. Udaran, ogetabat garren orduan edo, ilunak segitun artuko zuan bere itzalpe beltzean. Neguan, berriz, emezortzigarren ordurako, kaleak, otzaren eta ilunaren minaren usaia zeukan. Argi motel batzuk besterik ez ziran kaleetan. Argilunak. Ilargiak. Alare, kaleko gaua eder iduritu zitzaion Mikel baserritarrari. Mendiko iluna, gaua, beste gauza zan. Baserriko gauaren beltzak, beste ikutua zeukan.

Gaur, ordea, gauetan sentitzen duan poza aundiagoa du. Ziurki, ezta alderatzekoa ere.

- "Au dek kalearen ederra, indarra eta arnasa. Au dek gauaren gozoa. Mendiko basoak bakanduz zijoaztek. Gero eta arbola gutxiago dek pagadietan. Baserriak ere uztutzen zijoaztek. Emen berriz errian ikusten dek. Kale berriak, edaritegi zoragarriekin. Kale zaarrak galtzadazko azpi berriekin. Kaleak denak gau luzean argitan blei. Zorioneko eguna, baserria utzita, kaleratu nintzan eguna."

Noski kaleek eta auzoetako bideek sekulako apaintasuna, edertsuna,

txukuntasuna, egokitasuna artu dute. Loiola aldera dijoan bidea zabalagoa gelditu da, alboan ibil-toki zoragarria duelarik. Erriko enparantzaruntz dijoan kale nagusia berriz, azken egunetan, oraintsu-oraintsu, guztiz berritua, edertua, argitua, alaitua, egina du udal-etxeak. Auskalo nungo zenbat diru eder erabili duan bide eta kale dotoretze oietan.

- "Ikusten den, Ambrosi, gure kale nagusi onek ze aldaketa eder egin duan? Ez Donostik, ez Iruinak, ez Bilbok, ez Gazteizek, ez Baionak, ez zeukana."

- "Noski, Mikel, askotxo dotoretu zigutek kale nagusia, bainan ez orrenbestearino. Ao-zabala aiz."

Erriak, dudarik gabe, oraintsu, beste itxura artu du. Erri-lanek eta etxe-berritzeek heste alaitasun berezia, ikutu gozoa, giro eder-
ra eman diote erriari, kale nagusiari. Len, egunez alai baldin bazan, orain gabaz alaiagoa da.

Leen bezala, orain ere eroskiz-eroskiz, eguna joan eguna etorri, etxetik igesi, ikusmiran ibili oi diran emakumeek zabalduko dute kalean alaitasun berezi ori. Goizetan, batez ere, kalea emakumeena da. Dendei eurak emango die bixitasuna, eta azokeei beren giro arroa.

Leen, erri guztian, bizpairu denda besterik ez ziran. Berak, lenagoko jauntxoanak. Jatorriz artutakoak. Gaur, berriz, etxe berrietan jauntxo berrien ume-kumeek ere bai dituzte sal-tokiak. Larru, jostailu, sukalki, beroki, dendez apaindurik azaltzen dira erriko kaleak. Aatik, erriko eta inguruetako emakumeak Donostiara edo Bilbora joan gabe, bai dute zer ikusirik bertako kaleetan. Ikusmira alai, egunoro-egunoro ibiliko dira dendarik denda, batetik bestera, tresna eta oial, lapiko eta sartai, gona eta praka, bikini eta eusle, merkeen bila, beti ere, gaurko kaleek duten sorginkeriakin, sorginkeriz beren barna, beren bularra, beren soina gozatuz.

Artean, kale ertzetako arrizko jarlekoetan, eguraldi ona danean, an, egingo dira zaarrek, begiak txapel aundiaren kerizpean zabal-zabal, zaartasuna auldua euki arren, atseginez, lenarekin, gaztaroare-

kin amets-uridin gozoan, dendarik dendaz, kilikigarri, dabiltzan emakumeei begira eta begira.

- "Ori zein dek?"

- "Ori, Mendiolako Jaxinton semearen emaztea dek."

- "Orratio gaztea."

- "Eta, polita."

- "Akoratzen al aiz? Gu, gazte ginala, orduan, onelako emakumerik ez zuan gure parean, gure begien aurrean. Bertsolariaren meska, baino politagoa dek ori. Donostiako kaleetan politagorik ez die ikusiko."

- "Ikusten arropa denda berritik irten duan ura? Orratio ez dek erritarra izango."

- "Bai. Bai dek. Ori, Uraundiko alaba dek. Goimendiko Rupertorekin ezkondurik zeok, eta jantzi-saltzailearen alaba dek."

- "Orduan, orrek, gizonari dirua kenduko zio, bainan arroparik ez. Kontxo, kontxo, oiek dituk aurre-aldeak eta iztar-rak."

- "Bai, motel. Gure gazte denborako apaizak, laister emango zozan exkumunikazioa. Imanol, apaiz berria, ong dek, kaso egiten ziguk eta noizka-noizka inbitatu ere bai txikitoarekin. Bainan, gai ontan etzakiat lasaiegia ez ote dan."

- "Ura, goiko kalekoa dek."

- "Bestea berriz, Bixenta, txakur-zulokoa."

- "Zaartu egin gaituk, ainbeste jende berri etorri dek Espainiatik eta, noski denak ezin ezagutu."

Berritutako kaleetan, jan-tokirik eta jolas-lekurik ez da palta.

"Zure Wiskeria", "Klub gazte berri", "Diskoteka gorri", "Restaurante Janari Ona", "Afari eder", izen aldrebesekin bai zan errian, makina bat jan-edan-jolas leku, alaitasun-iturri.

Ala ere, gabaz zan kalea liluragarri. Eguzkia, Iru-Kurutzetan lotaratu ondorean, kaleak beste itxura artuko du. Ordurako, gabeko aizearen bildurrez aitona zaarrak, zirriki-zarraka, kaleko arrizko aul-

kiak agurtuz, etxeratuak dira. Ordurako, andre gazteak, taldean, aur txikiakin, umeak, aur-gurdi arinetan zituztelarik, nai ezta, kalean zaarrek tentatuz, ibili diran andre gazteak sukalderatuak dira. Ordurako, ikastolako lanak bukatuta, kalean jo alde batera, jo bestera, korrika, ostikoka, burrukan, arrika, fubolean, pilotan, lapurretan, burlezka, jolasean, ibili ondoren, mutil-neska koxkorak zearo jota etxeratuak, afaldu eta oeratuak dira. Ordurako, gau-txoriak, egunez, izkutu-leku izan duten txara agurtuta, kanpa-dorrean, begiak zabal-zabal, ze arrapatuko, zai zeuden. Ordurako, Izarraitz eta Ernio, eta Pagoeta, eta Irugurutzeta mendi arroen atzean, mendien kolkoan, gibelean, babesean, izkutaturik zeuden izarrak, ortzean zabaldurik, ditzizari, jolasean asiak ziran. Ordurako, ilargia, betea edo adarduna, zintzilizka zan zeruaren utsean. Ordurako, San Martingo leku buruko erlojoak, zortzirak, gogorki, joak zituan.

Orduantxe, gaba astean, Iberdueron indarrez argiak pizten direnean, artuko du kaleak zoragarritzko itxura. Dendak, erakus-tokiak, argiz beterik, emen oriz, an gorritz, an eta emen txuriz, jartzen dituzten unean, kaleak artuko^{du} sekulako lilura. Gabaz, dendetako, erakus-tokietako tresnak, arropak, aizkorak, guraizak, zaragiak, zartaiak, putxeroak, gonak, prakak, eusleak, begi-biztan, dantza bizi-berogarrian, astean, kale giroa piztuko da.

Gabaz, egunez, emakumeek, aurrek, zaarrek alaitu duten kalea, gau-zaléak alaituko dute. Eta gabaz, argiz eta ardoz, wuiskiz eta akeitzaz, aserik, denak etxeratuta oeratu direnean, gabaren lilura urratuz, eta gabaz erreka zikinaren kanta arina puzkatuz, eta gabaz, kanpa-dorreko ontzaren mozkorra gozatuz, eta gabaz, Ambrosiren eta Mikelen arteko amodioa izurratuz, gabaz, kalean, galipot eta arri gainetik, serenoak trixte-trixte kantatuko du:

"Las cuatro i txingorreando."

V

Gaur, kale nagusian, gora eta beera, sekula-santan, ikusi ez dan jendea ebilan. Gazte jendea. Arrak.

Finki eta arinki jantzitako eme talde bat ere bai zan. Gona motz eta luzez, bere soina arroki paseatuz. Beti ere bularrak arrotuz. Beti ere eurekin batera etorri diran erdi-jipi diren gazteei maliziz begiratu.

"I, aizak, zein dituk eme oiek?"

"Etzakit: Lenengoz ikusten dizkiat. Ez dituk, noski eta noski erriarrak."

"Ez, eta ganera itxura txarrekoak..."

Arrak, irribarrezka, kale nagusian, taberna guztietan ibili ondoren, bat-batean, denak batera, goi aldera jo dute. Ordurako, emeak, sexualitatez beteriko mugimentua soinari, bularrari, ipur-txuntxurrei emanaz, izkutaturik zeuden. Auek ere goi aldean. Kalean, igandea zanez, zurrutsean, berriketan, pasean, ikusmiran, erriko jendea bakarrik, gelditu zan.

"Kanpoko jende xeble ori nora joan dek?"

"Nora? Ezdakik goi aldean ze irikitzen duten?"

"Deusik ere ez."

"I aiz orduan, tonto-lapiko errian."

"Ezaidak, ba, zer degun an, goi aldean."

"Ai, tonto-lapiko, tonto-lapiko. Puti-klub bat zabaltzen zigutek gaur, ilunabarrez goi-alde ortan. Aatik dituk etorriak kanpoko jipi antzeko mutil oiek, eta ortarako eta artarako ~~ere~~ etorriak titidun emeak."

"Orduan, putak dituk."

"Noski. Eta puta-zaleak."

Erritarrek ere bai ziran puti-klub irikitzean. Denak ikus-miran. Emen mundua her nolakoa dan ikus-naian. Puti-klub egin berrira, dantza, wiski, neska, pesta, farra, txarri-taldera etorriak. Jende nabarmena. Nolabaitekoak.

-"Orain, Bilbora joan bearrik ez diagu izango."

-"Kortea, bertan jarri zigutek. Ordua uan."

-"Aldi artan, Mikelekin, Bilbon ikusita eta erabili ginduzten emeak baino gogoagoak izango dituk auek."

-"Noski, Kalean barna, arratsalde, ibili direnean sekulako eme-mina sentidu diat biotzean, nere sexoan."

-"Alu ori, ia, gaur ere, euskaldun puta tokatzen zaken."

-"Jakina diat, tokatzeana toka, bi mila pezeta zikin erre bearriko dizkiagu."

-"Seguru aski. Gaur ez diagu Mikel gurekin izango."

-"Ez diat uste, Ambrosiren besoetan erori danetik, Mikelek olako bileak utziak dizkik. Itxuraz beintzat."

Puti-klub berriaren inguruetan nolabaiteko jendea zan. Auzotegiko kaleetan, berriz, begi-luze, eta usainka, neskaizar taldea zan.

Lengo urteetan, aldamenean, olako txokorik ipintzen, inor ez zan auzartuko. Kale au Jainkoaren babespean omen zegoen. Eskuitarrez betea. Ortan eta artan, berriketa guztietan, erriko zerak konpontzen, olako neska zarririk ez omen zan inguruko errietan. Manifestamenik baldin ba zan, atarian, espaloian, elizpean, an, izango ziren, txutxumutxuka, gaizki esaka jardunaz. ETA-tarririk ila ba zan, deabruririk ez zan bear, ura, madarikatu ura, inpernuetara botatzeko. Zibilik ila ba zan, elizkanpak jo baino lenagotik, Kirieleisonetan, aurre-aurreko aulkietan izango ziran. Zirenak eta ez zirenak, gertatuak eta ez gertatuak, neskaizarren buruetan, sorgin-dantza itxusian jolastuko ziran...

Bear baldia bazan, egi-antza gordetzeko gezurra aisa erabiliko zuten ustelduteko, edota urrezko ortzetan. Apaiz berririk ez zan garbirik geldituko. Udaletxeko kontsejalik ez zan gizon izatera elduko. Gazte-

dia gorria zan.H.B., P.N.V., E.E., L.K.I.-tarrek Euskadi delakoa askatzeko aitzakiz, baxterrak bonbaz eta odolez bete dituztela-ta negar-kantari jardungo dute.

Onegatik, gaur arratsalde, berak, urteetan zear, ain garbi eta eder gorde izan duten goi-aldeko auzoan, txarri-zikin-toki ori zabal-tzean, elizatzkoaren arkupean, Doloretako Amari, noizka-noizka begiratu-tuz, jendearengandik aparte, bainan, beti ere, puti-klub aldera dijoana sein dan, ikus aal izateko moduan, iletari bildu dira.

"Benetan, garai batean, ez ginenan uste, gure kalean, olako txarritegirik jarriko zigunik. Frankoren denboretan olakorik ez dinagu ikusi."

"Gure Ama Doloretakoak, ze esango ote din. Ene, Santa Maria, Jaungoikoaren Ama, erregutu gu pekatarioen alde."

"Au den, kalerik onenean, inpernuko zuloa jartzea, jolin. Eta, barkatu, Jauna."

"Ikusten den zein dijoan? Edurne, andra maitagarria, an geldituko unan ume-gorrirekin sukaldean, gizon alu ori, dituanak eta ez dituanak puta zikin oiekin gastatzera dijoan bitartean."

"Kruzada berri bat jarri bearko dinagu."

"Doloretako Amari zazpi Agur Mari esanda, jo dezagun denok apaiz-etxera."

"Baita ere, jo dezagun alkatearengana. Azaldu dezaigula, nork eman duan ortarako baimena."

"Noski. Eta erriaren eta kalearen izan ona gal ez dedin, bere-ala, atzera egin arazi dezala."

"Demokraziaren kaka au, garbitu artean, pakerik ez dinagu ikusiko."

"Tejero eta bere kideko gizonak, militarrek, bearrezkoak dizkinagu."

"Ave Maria Purisima. Gobierno berriarekin, oindio ze ikusi bear degun ez zekinagu."

Lotsa gabeko jendea geroago eta geiago zan puti-klub berriaren in-

guru-minguruetan. Seat-tik eta motorrik ere bai zan baztarretan. Berbertan, kotxeak lagatzen asi zirenean kanpotik etorriak, arkupeak, utzi, eta neska zaarrak, erabakia artu zutenez, apaizarenganako bi-dea artu dute. Bere Jainkoaren berri eman nui diote apaiz berriari, erria, kalea garbitzen asi dedin.

Eta, seguru aski, neska zaarren jainkoa, Imanol jaunari, erakutsiko dioten Jainko ez da izango apaizak Idazki Deunetan ikusi duena. Neska zaarrena, neska zaarrena da. Berekoikeriz egina, noski. Beren Jainkoa, ez da langileena. Ez, ezta ere, zanpatu eta azpiratuena. Ez, ezta ere Etatarrena. Ez, ezta ere, Kristok mendiko itzaldian eskaini izan zien aiena ere. Jainkorik eskubian bakarrik da. Jainkoa zan neska zaarren bularretan. Eta, Jainko ori erakutsiko zioten apaiz berriari. Eta, agertuko diote, orain artean Jainkoa zan kalean, puten-etxea jartzean, ez ote dion Jainkoak, igesari emango.

Neska zaarrak, apaiz-etxetik, ardo gozoa pastelekin artu ondoren kaleratu zirenean, etxe-beltzaren aurrean, Mikelen kerizpea, beltz-beltzez, zorabioan dantzaz ikustea aal izan dute. Bakarrik, txikito mordua artu ondoren, etxera, Ambrosiren ondora zijoan.

Ordurako, puti-klub, bere martxa arturik zan. Eta, bere Jainkoaren berri apaizari eman ondoren, edan duten ardo gozoaren gozoa milizkatuz, etxeratu eta oeratu direnean, an gelditu dira, putetxeko orman, piztuta, bi argi gorri, kalea gorrituz.

V I

Urruti baten, Izarraitz azpiko zuaitz, sasi, txara, garo, belar arteko txori-kantuz, soso, urretxindor, birigarro, kardenilo txori-kanta alaiz, arindurik erdibitu zan Ambrosi.

Udaberriko eguna orduantxe argiz ler egina zan. Itxas-aize arinez jantzitako egun zoragarria. Itxas-uretan jaio ondoren, mendietako lore eta belarretan mozkortuta, lorei eta belarriei amodiozko jolasean lapurtutako azia, irina, zabalduz zebilan kaleetan, kantoietan, karkabetan, leiotan, balkoietan, itxas-aize pina, bere maite-kantuz, esnatuz langile jendea, eta, maite-kantuz kontatuz leiotik bere jolasak, bere lore-irin lapurretak Ambrosiri aurra izan duanian.

Orduantxe, kanpa-dorreko ezquila zaarrak, ontzak izutuz, joak ditu goizeko zaspirak. Enarak eta txinarak asiak ziran dorrearen ingurumingurua, alai, egun berria agurtuz, egan.

Bearginak, praka urdinez jantzirik, une orretan, lantegietarako bi-deetan zeaz zijoazten, begietako lo-gurea itxas-aizearekin kenduz, batzuk bera, bestetzuk gora, egunon elkarrri esanez.

Erditzean, Ambrosik, Inaxi, ama zaarra, bakarrik zuan ondoan. Emagin bearrik ez du izan. Aitona-amonen aitona-amonak zuten oiturari jarraitu nai izan dio. Ambrosik klinikarik ez du nai izan. Mikel, gogor jarri arren, klinikarik onenean, emagin, eri-zain osagile onenaz inguraturik aurra izatea nai izan arren, Mikelek, inolaz ere ez du ori lortu. Ambrosiren etxean, menderen mendetan, gelarik ederrenean, amaren laguntzaz erdibitu dira alabak eta Ambrosik ez du lege zaarrik apurtuko. Ama zaarrak artuko du bere besoetan bere sabeleko fruitua. Ama Inaxik garbituko du lenbizikoz umea. Amamak ebakiko eta lotuko

dio aurrari txilbor-estea. Ama onak, eskainiko dio alabari laztandu dezan, ustia denean, umea. Amak jarriko dio titian bere esnez ase de-
din aur jalo berria. Eta, urteetan barna, mendioko kutxa ederrean, Ambrosi jalo ezkerre, egon diran oe-zapi txuriek, indartu artean, gor-
de eta epalduko dute Ambrosiren oea. Aurra noiz jaioko, noiz entzun-
go jalo berriaren negarra, Mikel, alboko gela zaarrean urduri egon da.

Oitua zapi erdi-aldietan abereak ukuluan, edo sasiaren babesean, edo intxaurraren kerizpean, ler egiten, umea izaten.

Menditar zanean ardiak eta biorrak ume-minez ikustea, berezkoa zala iduritzen zaion. Abereen sexualitatearen jolasa ikustean, noizka, bere sexuan ikara sentitu arren, jeneralki, alukeri, ume-min, serri-alde, eta edozein abere emearen oekadak ez zien bere sexoari eraginik egin-
go. Bere bixtañ, sabel aundian edo txikian, euki ondoren, botako zuten kumea, Izarraitzko lar-beiek marru eta marru eginez.

Bainan, bere emea ezin du ler-egiten ikusi. Ambrosiren sabel aundi biribilak kezka ematen dio. Ura ikusirik, mendiko emeen sabela zator-
kion burura. Eta umea egitea. Eta limea botatzea. Eta marrua...Ambro-
sik, emea lanez, orrulari, limedun, izango ote da erdibitzean? Onek, ideia ximple onek, basarritar arraren ideia onek, gau guztian ez dio pakean utzi eta zainak aidean ibilia da amaginarrebak zazpiretan ge-
lako atea jo arteraino.

- "Mikel, emen dek, ire umea."

- "Bainan, Ambrosi, nola dago. Nik, emaztea ikustea nai det, be-
ra det maite."

- "Zoro ori. Laztandu zak ire alabatxoa, ire poxpolin txiki poli-
ta."

- "Minik ez diot emango? Izan ereain txikia da. Eta Ambrosi?"

- "Oso ongi. Pozik, neska txikiarekin."

- "Ikusteko moduan?"

- "Noski. Bainan, orain atsedean aldi labur bat artu bear dik."

Ez larritu. Laister izango gaituk, bere ondoan. Ikusiko dek, Mikel, ire emaztea, Ambrosi garbia, nere alabatxoa, aurtxo polit onen ama, arpegi-argi, irriparredun, aingeru eder, oe garbian,

nere amonen bi izara txurien artean, luze-luze, ama berri zoriontsu, etzanda."

"Gelara sartzen geranean, nik kenduko zoat bular gainetik estalkia, eta antxen gozatuko dek ire alabatxoa, gure krabelin musu gorria, esne txuriz Ambrosiren titietan. Eta, ik, laztanduko dek, sekulan, euki ez dekan bezalako maitasunez ire emazte ama berria. Aitasunak, gozatuko dizkik ezpainak. Aitasunak eta amatasunak laztanari eman oi dion zerak, arnasa garbiak lotuko dizkitzue aoak. Ikusiko dek laztan berriaren ederra. Eta, une orretan, bizi-bizi, biori, biotza pozaren pozez lerturik, esango dizuet: izena, umeari, nere ilobatxoari, Amaia ezarriko diozue. Eta, zuek, laztana puzkatuz, bai, ama, Amaia izango da erantzungo dizue, eta, berriz ere, negarrez, parrez, pozez, laztanari eman-go diozue. Eta, nik, amona zaarrak, berriz ere, auxe eskatuko dizuet; umearen izena, Amaia izan dedila ume au jaiotzean, nere kaleko gauzak amaitzen diralako. Laister zeruetako bidea pozik artuko diat."

"Ama, Ama."

Mikelen goza, ordea, bereala itzalduko zan. Jaiotzaren gozoa milizkatzeko denbora askorik ez du izan Ambrosiren oe ondoan. Amaia, bere alaba jaio berri zan, goiz bertan zortzirak baino lenago, ilunak, jopak zituan, erriko kale guztiak. Sekulako zalaparta, iskanbila zala kalean antzeman zion. Burrundada ura ez ez zan eguneroko ogia. Bereala oroitzuz laugileen eztabaidekin eta bere Errekaldeko lantegiarekin, i-karatu zitzaion gorpata. Egundoko kezkak artu zion barrena.

Zeru urdanean, eguzki berria kaleari bere galipot beltza zurituz egon arren, gizonen biotzetara, une onetan errainurik ez zan sartzen. Diamantezko printzek armarekin topo egiten zuten. Erritarren barna goiz-goiztik itxaso zakar biurturik zegoen. Argia egon arren kalean, gizonengan, batez ere, gazteengan, iluna zan errege.

Irratiek, lendabizi eta, gero, egunkariek, emana zuten berria, ilunaren iturri izango zan berria.

- 110 791
- "I, aizak. Iparraldean, erritar bat garbitu omen dik."

- "Txarri madarikatu auek, beti, bere legean dituk."

- "Lenengo orduetan, bat batean, izkanbila au sortu danean, arratsaldean eta gabaz ze izango ote dek?"

- "Lenengoz, beintzat, opor osoa, erabaki omen die, izkutuan, egia dan batzarrean. Gero, gerokoak."

- "Gainera, gorputza, gaur bertan ekarri ondoren, zortziretan elizkizuna omen dek. Gero eorzketa."

- "Jendea asi dek lantegietatik kaleratzen."

- "Gu, Errekaldekoak, lantegian sartu gabe, ate ondoan bilera egin diagu, eta, barruan sartzeke, etxeratu edo kaleratu gaituk, beste langileen berri jakin naita."

- "Bai, Mikelenean, ez dek gaur ospakizun aundirik izango."

- "Ze: ba?"

- "Ez dakik, gaur gabaz edo, aurdun izateko zala Ambrosi? Ingurukoak esan didanez, bart argirik ez omen dek itzaldu Mikelen etxe osoan. Ustuko uan, noski, Ambrosi. Bainan, nola ila, iparraldean garbitua, arera anka egin baino lenago, Errekaldeko langilea zañ, aatik dioat, ospakizun ederrik ez dala izango Mikelen etxean, aurra jaioa izan arren."

- "Txarri-urde orrek besterik ez dik merezi, Ambrosik ez arren."

Ez zañ, ez, giro gozorik kalean, bederatziak, amarrak aldean. Lantegiak itxirik, langileria, oporrean zan. Denda eta tabernetako ateak giltzatuta zeuzkaten. Eskolatutako aurtxoak, taldera, lagun-artera etortzeko denborarik gabe edota bildurrez, balkoietan, oean, bakardadean naastutako tximeak, oindio, orrazteke, sorgin zuloetatik irtenda bezalaxe, begiak gau-txorien antzera zabal-zabal eta ditzizari zeuden, ze ikusiko kalean odol-bizi.

Guardia zibilak, goitik ze agindu orduko zai, espaloitan zear, binan-binan, arpegi ilunaz zebiltzan.

"Grisak" ere, bere gaztain kolorezko jantzi berriekin, Bilbotik eta Donostiatik etorriak ziran. Eta, metraileta erakutsiz, tankete-

tan erriari, berriz eta berriz, gelditzeke, jiraka ziran.

Amaia jaio dan egunean, Iparraldean garbitu duten Iturralde mutil gaztea, eortzera ekarriko duten egunean, bere tanketa itxusietan metraileta madarikatuekin paseatzen erriko kaleetan denak izutu naian, jendeak ikustea aal izan du eta dauka.

Nab^armen gan, Eguna bukatu baino leen, korrika izango zan kalean. Iturralde, erriratzean eta batez ere, ileta ondoren, erria korrikalariz beteko dala, kaleetan guda sortuko dala, gazteek automobilak gain-azpikatuz kaleak itxutuko dituztela, kaleetan gomazko peloten jolas narrasa izango dala, edozeinek usaintzen du. Ortarako zebiltzan gazte-taldeak, txokotan, beebarrotan. Gabeko manifestamena gertatu naian. Orta^arako zeuden errira etorriak grisak. Manifestamena aal edo ezin puzkatzeko.

Ileta ondoren, Iturralde gaztea, Euskadiko ipar-aldean "GAL"-darrek garbitua, ikurrinaz estalitako il-kutxan, bizkar gainean arturik, "Eusko gudariak gera" kantatuz, gazteek kanpu-santuko bideari eman diotenean, beste aldera, puti-klub aldera, manifestamenari asiera emanaz, oiuka, deadarka, zuzendu dira bi mila inguru gazte eta eldu, neska eta mutil.

- "Iturralde ez zaitugu aiztuko."
- "Erria zurekin."
- "Txakurrak kanpora."
- "Gora ETA-militarra."

Ordurako, goi aldian, eta kale muturretan, eta kale-kantoietan eta tanketan gaineran, grisak, guardia zibilak, bere metrailetakin eta fusilekin gerturik zeuden. Gerturik gorrotoz eta amorruez.

Bereala, putak ez arren, ba^a ordea neska-zaarrek, aal izan zuten, jendearen korrika, gomazko peloten jolas narrasa eta gris eta guardia zibilen garaipen tristea, ikustea.

Une orretan, Amaia, amaren titian azkeneko mustaldia egiten ari zan; Mikel, bere langilearen ilketak, kalean jarri duan iskanbilari leio ilunetik, kezka, begira; Inaxi amama, kalean ze gertatzen ezin antz-

-emanda, oean, loa ezin ekarriz begietara; Ambrosi, ere oean, makalik, bi zapi txuriren erdian, goizean izan dun aurtxoa seaska utzi ondoren, kaleko driskakin, lo paketsua ezin bereganaturik.

Mikel, bere leio ilunetik, gomazko pelota baten zaratak urrun-araziko du eta leiatilak itxirik eta argiak pizturik, kristal puzketei begira jartzen da.

VIII

Aspaldi onetan, eguna joan, eguna etorri, Mikelek ezin du lasaitasunik artu. Gibelondoa aldatu zaio.

Egunoro, oetik jaikitzean, "Iturralde, ez zaitugu aiztuko" kantatu zuenean, bildurrez jartzen da. Kalera ateratzean, batez ere, Errekaldeko bideak, itz oiekin josirik ikusten ditu. Jaten eta edaten duanak barna garratzen dio. Umorerik ez du elkar-izketan. Umea, taka-taka, sesaskan, Ambrosiren altsoan ikustean, bakarrik, gozatzen da. Eta, emaztearekin oeratzean.

Menditik kalera etortzean, artu zuan poz ura, zearo pitzatu zaio. Bildurra du jabe biotzean. Bildurrak ondatu dio anima. "Iturralde, ez zaitugu aiztuko", oiu arek minkaizten dio etarrian arnasa.

Orain, Mikelentzako, kalea ez da, atseginez, putekerietan ibiltzekoa. Kalea, ez da, noski, txikiteoan, bakarrik, lagunekin ibiltzeko egina. Ikusi eta ikasi du, emendik aurrera, kaleak beretzako eta besteentzako, ilunaldi galantak, izango dituala.

- "Aizan, Ambrosi. Zergatik abesten zinan gazte taldeak Iturralden eorzketan, "Ez zaitugu aiztuko"? Eta zergatik jarri dine, aspaldi onetan kalea ain itxusia, ain bildurgarria?"

Eta, zergatik, ETA-k eskatzen zigun inpuettoa?

Eta, zergatik, laister egingo duten ilketa barroan sartzen natxiene, ni Mikel?"

Lantegira, Errekaldera, goizean-goiz, joatean, beti ere, begi-zuloak guztiz zabalduz, Mikel, Izarraitz mendi arrora, begira-begira jarri oi da. Antxen dago mendia betiko tokian. Antxen, Xoxote. Antxen, Kakute. Antxen, daude Izarraitz tontorreko atzean, magal gozoan, zelaiak eta basoak. Antxen, itxas-aizeak laztandu eta igurtzitutako belarretan

eta pagadietan, dabiltz, lar-beiak eta za^uldiak, ardiak eta auntsak, zozoak eta biragarroak, erbiak eta mamorroak. Ar eta eme, askatasun osoan, ama-lurrean saltoka, txoriak, txio-txioka, argiari, maitasunari kantatuz, denak, ama-lurraren belarrez eta lokatzaz egindako oetan, kabetan, maitetasunean oso-osorik sartuta. Askatasunez. Ezerren bildurrik gabe.

Sarritan, ate-zainak, Mikel bere kasaka, bere buruarekin izketan ikusirik, esnatuko du.

-"Ze, Mikel, Izarraitz mendiari, eure sor-lekuari, ametsetan begira? Orratio, oindiokan, maite dek mendia."

-"Egia esaten diat, gazteago banitz, muti-zar banitz, aurrik ez banu, andrerik ez banu, au, Errekalde saldu, eta, barriz ere, araxe, mendira, Izarraitzera."

-"Bai, zera, I, barriz ere, jaio^u bai intzake, kalera eta Errekaldera. Mendia trixtea dek. Ni neu ere baserrian jaioa nauk. Kalea. Kalea bezelakorik ez dik egin Jainkoak."

Errekaldeko lantegiko ate-zainak, errian sekulako zurrumurrua egon arren ez daki ongi bere ugazabaren barnean ~~ze~~ gertatzen dan. Gorputz galanta ikusten dio, bainan arimaz ez da ain galanta.

Mikelen anima a^utsita dago. Barreneko gogorazioek, ernean eta amestean, mailukada gogorrez zapaltzen diote biotza. Ala ere, orrela, sarritan pentsa arren, pizkoraldian, bai daki, iduritzen zaio, mendiak, lengoak edo berriak, gorputzeko ondoeza, txarraldia, arindu lioke-la, bainan, animakorik ez. Gorputzak, noski, ar dezake, Izarraitz aldean, naiz Xoxoten, naiz Kakuten, naiz Erlon, lar-beiek artu oi duten aizea eta arnasa. Bainan, bere arima ilunak ez.

Noski, Mikelerentzat, Izarraitzeko aizea, garbiegia da. Azkarregia. Sendoegia. Mendian artutako arnasak, l^uertu egingo luke bere gibela. Beranduegi da Mikelerentzat mendiko bidea artzeko. Onezkero, kalean, erabili bearko du arrastaka bere bizia, bere gorputza, bere anima.

Emendik aurrera, kalean, manifestamenean, Iturralderen eorzketan,

barrenerairo sartu zitzaion bildurra bizi bearco du.

Mikelek kaleak lenak ditu. Anima aldatu zaio. Edota, azken-aldian, errian gertatuak, aldatu arazi diote, derriorrez, berez, nai ezta, aldatu ere. Kaleak, ixilka, erabiltzen duan sorginkeriz. Alukeriz. Noski.

Sendia ere, lena du. Amona zaarra, oindio, arin eta bizkor, etxeko lanetan laguntzeko. Otoitz eta otoitz, kanta eta kanta, Amaia txikiari, taka-taka, erakusten, en ibiliko zaie, bera lantegian denean, etxeko bazter guztistan.

Lantegitik, kaletik, etxeratzean, alabatxoren dilindalazko taka-takak, alaitzen dio biotza. Neskati! poxpolin polita dago Amaia. Biurria. Pimpirina. Jostakina. Ama Ambrosiren titietatik artutako esne txuriz indartutako gorputz txiki polita du benetan. Etxeratzen dan bakoitzean, Amaiak, gozatuko dio barna. Begi-bixtatik, kalea izkuta eraziko.

Anbrosoi ere, funtsezko emaztea, zuzena eta zintzoa, gozogarriztat an dauka, sukaldean eta ofizinan. Beretzako, kale-giro zikina lagata, kanpoko eta barreneko ilunarekin etxeratzean, gabero artuko du, bere esku sendoekin bere emaztea, eta bularrak estuturik, biotzeko taupadak trukatzuz, biak malkoka, dardarazko itzez esango dio:

-"Ene, Anbrosoi maite. Ezin, ezin nuan pakean bizi. Kezkak ilda natxeon, or, armarioko ontzian gorderik daukaten idazkiak, zorrotz-zorrotz, zulatzen din nere biotza. Ez baldin badet ordaintzen, nereak egin din. Euskadiko iralketak nere dirua bear omen din. Irea. Amaiarena."

Noski, ekaitzpean, babes, Anbrosoi, Amaia eta Inaxi ditu. Alegindu da puti-klub delako neskekin kaleko iluna argitzen. Jan-edanean, lagun zaarrakin spiatu da, jantegi eta edaritegi onenetan gibela pozten. Nainan, ezina.

Bildurrak, kalean galipotez egindako, bildurrak, bere anima, zikin-durik dauka.

VIII

Izarraitz-ganeko trapela, goiz onetan, oso iluna zan. Ipar-aizeak, Kantabriko Itxasotik ekarritako laino beltzak, presto zeuden, berea-
la, trumoika asiaz, Urola bailera urez, txingorrez, garbitzeko.

Goizean, oean, Mikel, buruko minakin, arimako minakin lagata, An-
brosi jaiki danean, Urola bailera osoa, ipar-aize gaizto baten mende-
ko zan. Orriak, zuaitzetan, deabrukerizko dantza biurrian ziran. Ai-
zea txistuka. Lainoak tanbolin joka.

Teilatuetako antenak ezin zioten sutasunari eutsi. Okerka, teila-
tuari gogorki elduaz, aizea noiz pakeatuko, teila gorrietan dantzan
zebiltzan. Zakarrak, papel zaarrak, ostroak, kale-zuletatik atera,
eta ego aldera zeramazkin aize-goseak aidean.

Kalea ez zan olako edo alako zaborrentzako. Ordu onetan, Udala bai-
lerako kaleak oro, ipar-aizearentzako ziran. Geroxeago trumoiarentza-
ko, urarentzako izango dira, bainan, Ambrosi, oetik jaiki danean, ka-
lea, bete-beterik, ipar-aizearena da. Aizea dabil, kalean, mari-zikin.
Sorgin erregin. Eliz-dorreko eskilen burnizko kanta, sorginen negarra
zala zirudien. Din-dan, dan-din, akelarrez kalean gau-pasa egin ondo-
ren, sorginak eta akerrak, din-dan, dan-din, beti ere din-dan, kanta-
ri, Izarraitzeko zulo eta leizetara zijoastela zirudin. Aizea, guz-
tiz biurria zan.

Amonaren oe-ondoan, Amaiaren seaska utzi ondoren, bertan, barruko
galtxa-motx zuriak, agiriko praka gorriak, gaztain kolorezko soinekoa,
eta gabardin urdina jantzi, eta bereala, poliki-poliki, esnatu ez de-
din Amaiari lazтана eman eta kaleratzen da Ambrosi.

Eta, segitun, erreka ondoko espaloian, goi-aldeko bideari emango

dio. Duda-mudan, unetxoan egoteke, ibai-ondoko ibilbidea artuko du. Kale nagusian, inorekin topo egiterik ez du nai. Alde aurrez, ongi pentsatutako lekura, bakar-bakarrik, oinez jo nai du. Aatik dijoa atseko aldetik.

Urola, lengo ur-bolada baten, zearo zikindurik dago, bere bi ertzetan. Ibarretako sasiak eta zuaixkak, txori-malo biurturik daude. Urak, Zumarraga aldeko lantegietako gorri zikina dakar. Leen, amurrai, eta lona, eta aingura, eta zube, eta sakel eta zapaburuz beterik zan erreka ila dago. Ur-gorri-posoitzuan, aspaldi ezkeroz, Urola errekak, erioa darama. Il-urina.

Aatik, aspaldin, erritarrek, Urola ibaian, martin, ur-txori arrantzalerik, ikusterik ez dute izan. Aatik, errekaren ertzetatik anka egin bear izan dute igaberek, pizti arrantzaleak.

Anbrosi, ibai ertzeko espaloia laga eta, bereala, zubian zear, sartzen da, kale nagusian. Eliza aundiaren arkupetan, ipar-aizearengandik igesig, arrizko eliz-ormen bebesean, alkar-izketa ederrean, denbora pasa, an zeunden sakristaua eta ertzaina. Anbrosi, emakume polita, ikusgarria, kilikaria, agotik sudurrera sartu zaienean eliz-aurreko zubian zear:

- "Ikusten dek, zein datorkigun, erreka gaineko zubitik?"

- "Noski. Nere begiak, olako emearen aurrean, bereala, zabaltzen eta zoratzen dituk."

- "Goiz txarri onetan, ze galdu ote zaiok Mikelen andreari? Sekula santan ez dek etorri apaiz zaarraren meza entzutera eta gaur ez dek ba, ortara etorriko? Arratsalde, etorri oi dek, Anbrosi mezetara. Imanolen liturgiara."

- "Bai. Errian zabaldurik zeok. Goizeko mezetara neskazaarrak eta eskubitar dan jendea bakarrik etortzen direla."

- "Amen-Jesus. Ala dek. Aatik, Anbrosi ez zetorrek mezetara, Diotenez, eta au kaleko zurrumurrua dek, eme ori ezkertarra dek. Ona. Zintzoa. Langilea estimatzen duana. Bere senarra, Mikel, berriz, eskubitar alu bat. Diru-zale amorratua. Bankuetan dau-

kan diru morduak, Errekaldeko langileen izardiaren usaina omen dik. Jendearen esamesak."

"Ordun jendearentzako, zein ezkertar, eta zein eskubitar dan jakiteko neurria, zera dek, langile-legean, batek, nola jokatzen duan. Ez, natxeok, batere, konforme."

Anbroso, maitekiro, kaixo, egun-on batekin, biak agurtuz, bere bi-deari jarritzen dio. Arin-arin, ipar-aizearen kontra, gaztain kolorezko goinekua bularrean ongi estutuz alde aurrez, etxean, oetik jaitzuan, asmotan artu duan tokira dioa.

Goiz onetan, apaiz gaztearekin itzegiteko asmotan atera da etxetik eta itz-egitearaino bere barnean pakerik ez du izango.

Apaiz gaztearen etxera eldu, eta ateko txintzarria jo duanian, une artantxen bertan, Izarraitz gaineko, arkaitz tartean, ekaitza, orruaz asia da. Txintzarriarekin batera, gogorki, emearen bularrak, ikaraz, dantzatzuz, trumoiak jo du. Lainoak osti zaparra botatzen ekin diote. Aizea, berriz, bere gonetan, jolas narraxean.

"Ain goiz, zer den, emakumea? Sartu, lenbaitlen, barrura. Atarian, ez zeon giro ederrik."

"Etxean al da Imanol jauna? Egunaren asmo txarrak ikusi arren, momentu baten, berarekin itz-egiteko asmotan etorria naiz. Etxean al degu?"

"Bai, Anbroso. Etxetik dezu. Igo gaitezen goiko eskaratzera, lanean, antzen bai dago. Alare, pozik artuko zaitu."

Apaiza, igandeko itzaldia gertatzen ari zan. Idatz-makina txiki zarreran, arri txurian jarririk zeukan itzaldi-gaia. "Jesukristoren mendiko zorion kantaren zerak eta kontuak." Pixkat, beeraxeago, ondoren: "Zorionekoak...negar dagitenen zoriona, poztuko dira-ta...zuzen-gose eta egarri diranen zoriona, ase izango dira-ta...biotz garbien zoriona, Jaungoikoa ikusiko dute-ta...pake-zaleen zoriona..."

Anbrosiren egun-on gozoa entzutean, baita zuri ere, erantzunez, lana, Jainko itzaldi-mintzaldia, idatz-makinan utzi eta berezkotasunez, itz-jario ederrez, arren jartzeko eskatuz, jardunari, asiera,

Imanol berak emango dio:

-"Orratio, ola jantzirik etorri ezkerro, ekaitzarekin, kalean, ongi burukatuko intzean. Jarri, jarri bai, lasai. Bainan, lenengo, mesedez laga, or, kakoan, zintzilik, gain-soineko ori. Eta, ze ekarri den goiz ekaitzu onetan apaiz-etxera? Eta, zuk, Eduñe, lenbaitlen, gure berriketa gozatzeko ekarri opilak eta bi kafe-esne bero-beroak."

Olako arrera argia egin arren, Ambrosi, jarleku bigunean, ezin zan geldirik egon. Apaizari ezin zion lasaitasunez begiratu. Atariko tximistaren eta trumoiaren barneko zan. Ekaitza barrutik ezin zan atera.

Imanol apaizarekin edozer gaitan, izketan oitua ego arren, goiz ekaitzu onetan, gerturik etorri arren, ezin dio itzari bizirik eman. Papparrean, bular-eusleetan, daukan idazkiak, jaiio baino leenago itozten dio ezstarran itza. Bere kolkoan duan idazkiak, txindurri biurria balitz bezalaxe, minberatzen dizkio andreari, bularrak eta anakak. Txindurri biurriabiurturik, alegia, idazkiak, esku eta beso, une onetan, dardaraz jartzen dizkio. Biotzak erretzen dio, bular-arteko, papelak.

-"Or, tori, atzo bertan, gazte taldeak, Mendarotik ekarritako erroskila gozoak eta Bergarako bizkotxo eta tostoiak. Gainera, neuk, maitasunez, gertatutako kafe-esne ederra. Kafea, Baké. Esnea, Izarraitzeko begiena. On egin daizuela, elkar-izketa, arinduz eta gozatuz. Gero arte."

Au esanda, neskamen, neska-zaar alaia, apropos, jostakin, ipurtxuntxurrak, malizi gabe, erabiliz, aldegiten du, sukalde aldera.

-"Eta, Ambrosi, ze berri den? Aurtxoa etxean lagata, ekaitzpean apaiz-etxera etortzeko, zerbait gogorra den barnean, noski."

Ori entzutean, eskuetan, dardaraz daukan, kafe-esnearen ontzi txiki txurizka maian uzten du Ambrosik. Begiak, zabal-zabal, aurrean daukan Imanol apaizaren aurpegian jartzen ditu. Eskua ezkerreko bul-

arrear. Jertzepean. Soinekopean. Gogorki, bularra biotzaren kontra zapalduz eskubiko eskuarekin, jaikitzen da. Tink-begira apaizari.

Imanol, apaiz gaztea, urduri, serioki, jarri da. Emea, Ambrosi, andra gaztea, gordina eta polita, sekulan orrela ikusi ez arren, ez da izutzen. Ongi ezagutzen du eta usmatzen du andrea ez dabilela emekerietan. Barnean, lengo baten bezala, zer edo zer bat, bai duala igeritzen dio.

-"Baina, Ambrosi, alkarri begira ez dinagu ezer egiten. Ik, etxean eure lanak izango ditun. Nik itzaldia garaiz gertatzea; kafe-esnea, oztu zitzaigun. Emen, ontziak beterik lagatzen baldin baditugu, Edurnek, ze esan bear din?"

-"Or, ba, jauna, itzik gabe ematen dizut nere biotzaren kezka."

Ambrosik, jesus-batean, bularretara eskua azkarki sartuz, antxen kolkoan berotutako idazkia, papela, jartzen dio maian kafe-esne ontziaren ondoan, Mendaroko erroskilen gainean.

-"Or, Jauna, nere itza, nere mina, nere kezka. Ortarako ez dago eskubiderik, deretxorik. Nere gizona, gaur egun, burgesa, eskubitarra, izan arren, gizon da. Utsegiteak izango ditu. Nork ez? Beste denak bezala, Jainkoak askatasunez jantzia da. Eta, Jainkoak ala naita, nere senar da. Eta maite det. Eta maiteko det, naiz eta ideia batekoak ez izan. Ideiek ez dute mutursaldan gizonik jarri bear. Mikel, gizona da, kristaua. Jainkoak eгина. Bere eran maite du Euskadi, guek bezala ez arren. Bere kolkoa, maita arren, bere etxea zaindu arren, bai daki langile-jendea ere zaintzen, denak konforme ez egon arren.

Orain, Euskadi askatzeko aitzaki-maitzaki, zeratako, zergatik, bidaitzen diote idazki zikin au, jarriz, inpuesto-~~re~~boluzionario delakoa edo erioa?"

Une onetan, apaizak eskuetan idazkia artzean, etxeko txintxarria jotzean bezalaxe, trumoiak laino beltzetan erretako doinuz, kantatzen du. Argia joaten da.

Izarraitzeko arkaitzetan, pagadietan, txaboletan, trumoi doinuarekin, tximisten argiarekin, sorginek sekulako akelarrea dute asia.

IX

Igande argitsuan, arratsalde, artzubiko burnizko baranda berriari sorbalda emanaz, igandero bezala, erreskadan, San Martin txara muturreko erlojuari begira, antxen dira, Gaizka, Joxe, eta Patxi.

Berela, seirak jotzean, txikiteoari asiera emango diote. Oindio, txori-taldea biribildu eta osatzeko, bi edo iru lagunak paltan diranez, artzubin, iru kaleen mugako zubi gainean, ikus-miran, baserrietatik, Kuku-erritik, Martirietatik, Elusutik, Ormola-menditik, kalera mutil-bila, dantzara, akeitategietara, datozten neskatilei begira egongo dira. Beti ere berriketan. Paolan. Patxi dute beti bezala, berri-ritsu. Umore oneko.

"I, Joxe. Bai al dek Mikelen berririk? Aspaldin, umea izan duanetik, kale egiten ziguk kale-jiran."

"Ba, azkeneko aldiz, uste diat, direla bi ilabete ikusi nuala. Eta, esan zidanez, sendagileak, bizi-modu gogorra jarri omen zeok-eta, alde baten, edana lagatzera zijoala eta abar. Badakik. Gibelegoa edo izango dik."

"Etzakiat, ba, ori egia danik. Entzuna diat nik, Mikeli ezurretaraino beldurra sartu zaiola. Lantegiko auziak eta eztabaidak direlata, lotsaz, gorritz jartzen omen zaiok aurpegia, bere lantegiko gizonen bat kalean ikusita."

"Nik berriz, entzun diat, ixil-mezu bezala, ETA-tarrak idazki bat bialdu diotela amar miloi pezeta eskatuz."

"Leikena, ixilean gordetzen nai izan arren, zurrumurroa potol-tzen ari dek. Eta, esaten dizuet, ori leikena dala. Beste batzuk ere artu omen die olako eskezko idazkia. Sekuestroak ere izan dituk beste errietan. Zoritxarrez, ilak ere. Eta gure errian, ETA-

tarrek, diru-bila, musturra sartzea, normala iduritzen zitek."

Beste lagunak azaldu direnean, segitun, txikiteoari eman naita, aurreko tabernara joatea erabaki dute. Arratsalde guzian, ilunean San Martingo erloju aundiak, amarrak jo arte, an-emenka, paiko neskatxa eder ikusteko asvi izango dute.

"I, aizak, berriketak, paolak erre-kara bota. Guri etzikuk ajo-larik, ilak, ilak dituk. E.T.A., E.T.A. dek. Politika, politika dek. Eta mutur-salda guztien ondorioa, orixe dek. Gorrotoa. Elkar ondo ikusi-ezina. Burruka. Aatik dituk, Euskadin, sekuestroak eta ilketak. Eta...aatik, lenbaitlen, tripak erretzen asi baino lenago, jo dezagun zurrutera. Palta zirenak emen dizkiagu."

"Noski. Asi gaitezen bertatik. Goitik, beeraino juango gaituk. Eta, tabernariak, neskatxa politak baldin ba dira obe."

"Eta, eme-galduak eta jazkeraz arinak, ba dira askosez obe."

"Eta, ardo gorri naparra, txiribogin den neskatxa arinaren eskuetan, bularren aurrean, ikusten baldin badegu...orduan, amen-jesus."

Izendabiziko edaritegiak, sal-maia luzea du. Erdeldun jendez beterik dago. Taldeka. Binaka. Batzuk bermuta artuz. Bestetzuk biterra. Onak zerbeza. Arak patxarra. Geienak txikito gorria edo beltza. Emakumezko-rik ez dago. Tabernaria, gizon eldua. Erdelduna. Euskaraz itz-ereditxo-ak esaten saiatzen dana.

Aatik, euskaraz pizka bat bederen ulertzen dualako, eta pixkanaka ikasten joan dedin, denak batera, esaten diotenean, iru beltz eta iru gorri, irriparrezka, lasaiki, jarriko dizkie sei ardo-ontzi txiki erdi beterik, sal-mai gainean, izketan, patxadaz, presarik gabe ar ditzen.

"Emen, taberna onetan, etzeok ez emerik, ez adarrik."

"Bai. Auskalo nondik Euskalerrira etorri arren, or ari dituk erdera utsean. Talde bat bera ere, ez dek ari euskaraz."

"Danak, gaur Madrilek txuri-urdinei irabazi baietz ziotek."

-"Praka-gorri, aluak. Arranoak. Lotsagabeak."

-"Tira. Ixildu ari. Orretzaz itz egiteak ez dik protxurik, goazen kalera, txikitoa, zirin-belar, urkilo, biurtu ez dedin. Goazen."

Une onetan, kaleak, erletxea zirudin. Emez eta arrez, umez eta adinenez, beterik zan. Gaur, arratsalde, eguzkiari mamia atereaz, neskatxek, arin-arin jantzita, kolore eta tamaino guztietako soinekoekin apainduta, mutur batetik besteraino, alaitzen dute kale luzea.

Aatik, une onetan, kalean, azkarki ibiltzerik, inork ez dauka. Oiturari jarraituz, goitik beerakoak berentzako eskuin aldean dan tokitik eta beetik gorakoak, eurentzako ere eskuin aldean dan lekutik, beti ere, ezker-eskuinean, joan arren jendea, geldika ibili bearra daukate, bai goitik berakoak, bai beetik gorakoak. Orregatik, txikiteroek, besteen izketari eta neskatxek jantziei muna ateratzeko aukera ederra dute. Naiko asti, zein zeinekin dabilen ikusteko. Batez ere, txikiteruentzako bezala arrentzako da, makal-makal, ibili bear ori, atsegingarri. Orrela obeto ikusiko dituzte emeak. Errikoak eta ingurukoak. Ardoaren aitzakiz, jai arratsaldea, neskatxek mamia eta muna kentzeko ongi aprobetxatuko dute. Baraitx ibiliz, atsegin beteagoa izango dute, noski, txikiteroek, neskatxek zerak ikustean, alegia, gona motx-estuek, begibistan uzten dituzten anak, belauak, zango-aztalak ikustean, eta prakek, bere estutasunean, erakutsi nai dituzten azpiak, ipur-mamiak, eta, txinbor eta lepo arteko, koxkor eta tontorak ikustean, eta, irribarrez, zirikalari, dituzten ezpain-gorriak, ikustean, sexuaren deia indartsuago entzungo dute.

Eguzkiak, zazpirak ingurua izan arren, oindio, kalean ederki jotzen du. Jotzen du goitik bera datozenen bularretan. Jotzen du beetik gorantza dijoztenen sorbaldetan.

Urrutian, balkoi zabalean, aizearekin, jendearen arnasarekin, eguzkiaren argiarekin, jolas eta jolas, dabilen ikurrinaren txuria, urdina, eta gorria, zoragarri ikusten dira kaleari iru kolorezko kerizpea emanaz.

- "Goazen aldameneko edaritegira."

- "Bai, orixe, bat besterik ez diagu artu. Eta, gure jaiko lana zurruta dek."

- "Eta, kale-jira, ikus-miran."

Taberna, naiko txiki da. Sarreran, eskuin aldean, mai bakarra, lau egurrezko aukiekin. Aurre-aurrean komuna. Bakarra, ementzat eta arrentzako. Edariak jartzeko barra, aluminiozkoa, naiko motxa. Edari saltzaileak, bi. Biak emeak. Koxkor aundikoak. Sarrerako eskuin aldeko maian, zerbeza artuz betikoak. Barneko eta maiko zerbezarekin kalea garbitu naian. Perretxikoak. Txori-galduak. Gorritz margotutako itzez eta mitzez dabiltzanak berriketa merkean.

- "Mesedez, beti bezala iru eta iru. Otxamarrak."

- "Maiko oiekin, jai zeok gure errian. Gorritu nai gaitxie."

- "Orratio, txori-malo oiei, kostako zaiek, erri-santu au, gorritz jaztea."

- "Alajaina. Oiek ez dituk gu bezala ardo zaleak. Oien eztarriak, gureak baino pinagoak dituk. Gaur zerbeza artuz dituk. Bainan, sarritan, txanpainaz eta bermutez eztarriak gozaten dakienak dituk."

- "Alde ederra zeok, oien begira egon edo bi emeen ttiti-muturrei begira egon."

- "I, beti, baratzako sagarrari begira. Tira. Goazen, emengoari amen esanez, kaleko sagarrak ikustera, jaten ezin asiko gaituk-eta."

Eguzkia, pixkanaka-pixkanaka, Elusu aldeko mendi tontorreko, zeru-ertzera ia eldua zan. Nabarmen zan, bereala, lotaratua izango zala mendiaren gibelean, izarrak esnatuz. Kaleko etxeen kerizpetan ikus zezakean erriari argia ematen eguzkiak artutako nekea. Eta ikus zezakean jentearen nekea. Oindio naiko jente ibili arren, etxera, atsedan artzera joana zala, garbi ikusten zan. Gazte jentea ere izkutatua zan, seguru aski, dantzategietan. Bakarrik, oindio, artzai-eguzkiaren errainuak artuz, neskezar talde batzuk zebiltzan, kalean gora,

kalean bera, enparantza eta eliza arteko kalean barna. Beti ere, ixiltzeke, berriketan. Beti ere, begiak erne, mutil elduei begira gaintxurikeriz, sexualitatearen arnasari ezin elduz.

Oraindik txikiteroek presarik ez dute etxeratzeko. Eguzkia etzanda izan arren, bere martxan, bere giroan, ardantegirik lagatzeke, mokoi-lua arrapatu artean, ibiliko da. Goi-aldeko artzubi-aurreko tabernan, txikiteoari asiera eman dioten gazteak, une ontantxen eltzen dira kale-kantoiraino.

"Beste ardantegirik ez diagu sartzeke laga, eta ezin joango gaituk aurrera edo atzera, emen sartu aldi bat egiteke."

"Aurrera mutilak. Emen, gainera, ontzi garbi-garbietan, ardoa gozoagoa bai dek."

Edaritegia, polita da. Egin-berria. Uri aundietako edaritegien tankerara egina. Barra luze zoragarria. Arasak eta edari-ontzi-tokiak dotoreak. Ormetako ispiluan edergarriak sekulakoak. Maiak eta jar-tokiak bikainak. Lurra nabarri txuriz egina. Goiko eta alboetako argi-ontziak guztiz bereziak. Komunak eta kakontziak, gizonezkoenak eta emakumezkoenak, berezitan, apainak.

Zabaldutuetatik ibili eta ibiltzen dan jendea, umetaroinokoa. Kalletarrak. Nekazariak. Dirudunak. Zintzoak. Alperrak. Olako eta alako tankera guztietakoak.

"Betikoa emen ordu auetan. Makinatan, alperrak, joka eta joka."

"Makina aluak. Errekara botako balituzkete obe."

"Bainan, i, ordea, alan pentsa arren, segitun, joko narraxera."

"Iru gorri eta iru beltz, mesedez."

Joko-aldia egin ondoren atera diranean, urrutiko muino gaineko erlojuaren kanta-otsa zan.

"Aizue. Amaikak dituk."

"Gorantza ala berantza?"

"Gero, etxean, badakizue. Mutur-saldak."

"Espuela botatzera, goazen gora. Minutu bat gorabera berdin dek."

Kalea, arriz egina, naiko ilun zegoen. Ozkarbi. Ilunean izarrak kinuka. Erronako bidea ederki ikusten zan.

Kale-ertzetan, alde bietatik, tarteka-tarteka, Iberdueron indarrez argi-ontzi batzuk pizturik egon arren, bestetzuk itzaldurik zeuden, kaleari bere moduko trixtura emanaz.

Bebarro surretan, kale nagusian barrena, zakuttoak zikinez, zakarrez, ondakinez heterik, etxeko andreak jarriak zeuden, gabaz, udaletxeko kale-garbitzaileek, zikintegira eraman ditzaten.

Txakurrak eta katuak, alkarrengandik urruti, zakuttoetan, zikinke-riak garbituz zebiltzan, serenoan eta txikiteroen bildurrik gabe, ilu-naren babesean.

-"Txakurrak eta katuak, laga ditzagun zakarkerian. Ia, guregan-dik aparte, alkarrekiko pakerik egiten duten."

-"Bai. Gizonok baino, lenago egingo die, noski, zakuttoetan ja-naririk bilatzen badute."

-"Neregatik, anka jasorik, nai baldin badute, pix-erreka egin de-zatela ondakinen gainera."

-"Kattuk ez dik ankarik altxatuko txixa egiteko."

-"Txakurrak bai ordea."

-"Txakur-katu biurtu baino lenago jo dezagun espuela, aurreko ta-bernan. Oindio zabalik zeok."

Sartu direnean, ardantegian lau gazte, arpegi gorri, zerbeza-botel-la mordua surrean dutelarik, gogorki, lotsa, zerbeza-botilla utsetan lagata, alkar-izketan ari dira. Mikel zuten ao-sapaitan.

-"Mikelen etxea tximistak joko balu..."

-"Pute-kume ori ETA-k garbituko al dik..."

Bazter baten jarririk, laisterka, etorri zaien txiribogin gazteari, betikoa, eskatu diete:

-"Iru gorri eta iru beltz."

-"Palta zaitzaguna. Atariko txakur-katuak baino gaiztoagoak di-tuk auek."

-"Ezagutzen dizkiat ongi. Auek ere, Euskadi indarkeriz konpondu

nai lie."

-"Oraintxen esango dizuet, taide orretan dagon Tomasek, atzo, ze kontatu zidan. Txikiteo guztian ixilik gorde diat, baina esatera ni joakizue. Onela lasaiago egingo diat lo eta amets."

Mikeli, beste askori bezala, inpuesto rebo luzionario delako eskapidea etorri omen zio. Eta, ordaintzerik nai ez dualako, etxe-zuloan sarturik, kaleratzeke, egoten omen dek jai egunetan, eta astegunetan etxetik tailerrera eta tailerretik etxera. Ez omen dek egi, bere gaitza. Bildurraren ondorioa omen dik ondoeza. Kezkak omen zeukak giltzapean, etxean, loturik."

-"Nik ere zurrumurrua entzuna diat. Gainera, or, galipot gainean, txuriz idatzita, ikusten ditugun itzok, "Etsai-zapaltzailea garbituko diagu", Mikelentzako omen dituk."

-"Beno, ba, berandu diagu, eta, onelako paolek ez ziguk lorik egiten utziko eta, lenbaitlen goazen etxera."

Etixerako bidea, gabon esanaz, artu dutenean, trenbide gaineko txaran, gabeko iluna urratuz, begiak zabal-zabal, ontza, ontz-arra, ilargi osoari, sexualitate berok, alukeriz, begira eta begira zegoen.

Erloju aundiak, txara gaineko muturretik, ezkontza-martxa bezala, ontza arrarentzako, eta ilargi emearentzako, amabi dangateko ematen ditu.

Amabiak, eta, kalean, serenorik ez.

X

Eliz-ataria, eta, inguru-minguruak, meza nagusiaren orduak jo baino lentxeagotik jendez beterik zan. Baserritik etorriak eta kaletik joanak. Gazteak eta zaarrak, emakumezkoak eta gizonezkoak. Prakah edota gonaz jantzitako neska gazteak. Mutil sendoak, edota argalak. Mutil eta neska kozkorak, elduen babesean, edo jolasean. Jendea ugari zan eta ugartzen zijoan. Ordua jotzean, seguru asko, eliza beteko da.

Nabarmen zan, igande au, ez zala aurreko igandeak bezalakoa. Beste domeketan, meza nagusi-aurreko egoera zaratatsua izan arren, goxoagoa zan. Noski. Elkar agurtzeko. Egunon opatzeko. Erretzeko. Etxeko berri emateko. Arnasa artzeko. Jaiero-jaiero, ortarakoxe, meza nagusi-aurreko amar bet minutu, ondo ustiatu izan oi dituzte, bai kaletarrak, bai, baserritarrak.

Igande au, ordea, bestelakoa da. Eliz-aldeko giroak ez du eztitasun aundirik. Aize bizia dabil talde guztietan. Ezin-egona, nabaritzen da. Zirudin, jendea, alde aurrez, bildu dala eliz-ondoan, gero, mezetan, apaiz gazteak, zer bai, zer ez, esango duan, trabez egiteko.

Astea, astelen bertatik asita, larunbat gaberaino, errian, guztiz gogorra izan da. Azkeneko extradizioek, deabrukeriz, gogorkeriz, kalearen amasa berotu eta irakiten ipintzeko, indarra izan dute. Matxina da gabeko egunik ez du ikusi asteak. Astelen bertan, lantegietan, goizeko amarretan asita, gaberaino greba orokorra. Arratsalde, ilunabarrez, sekulako manifestamena, kale nagusian barrena.

Urrungo egunetan, diru-kutxa etxeetako kristal-apurketak, eta ormetako margolketak, ilunabarretako antxintxiketak.

Egunoro, goiz eta arrats, guardia-zibilen eta grisen jauntxokeria

eta indarra. Landroveren eta tanketen erakusketa. Indar giroa, alegia.

Aatik, guzti orregatik, gaur igandez, meza nagusia ikustera eta entzutera, etorri diren artean, eliz-atarian, noizeanbeingo giroa da. Gutxitan ikus oi da onenbeste jende. Bakan-bakanetan, egon oi dira, erritarrak, eliza aurrean, gaur bezala, ain bizi mintzatzen, edota, ain ikusmiez eta entzunminez, begiak eta belarriak talde txikietara luzatzen.

- "Ezer esango ote ziguk, apaiz gazteak?"

- "Ez diat uste. Txibatoak, beti bezala, zakur, aoz amen-jesus erresatzen, eta belarriaz apaizak itzaldian ze esaten duan entzuten egongo direla usaina arturik zeok, eta gauza aundirik ez dik esango. Badakik, eta apaizak ere bazekik, txibato alu oiek bost xeimeko zikinagaitik, bere erara jakinean jartzen dituzte-la espainitar ertzain-buruak."

- "Ba, alare, esan bearko dik, eta esango dik. ~~Eliza~~, benetakoa baldin bada, lurraren gatz eta argi izan bear dik. Aatik, egunotako zerak, argitu bearko dizkik, argi orrekin, gure fedea indartu dedin."

- "Irekin ez natxeok ados. Elizaren zera, eliza dek. Sakristia, alegia, eta ez kalea."

- "Noski. Ni ere irekin natxeok. Kalea politikoena dek."

- "Ez dek ori orrela. Kalea ere, eliza dek. Kaletarrek, mendiko arriz egindako otoitz-leku, bil-toki bat baino ez dek. Kalean altxaturik zeok. Eliztar kaletar guztiok gaituk, Imanol eliztar eta kaletar dan bezala. Aatik, elizatik kaleraino etorri bearko dik bere itzak, argitu dezan kaleko galipotaren beltza."

- "Ezer esaten ez baldin badu, zibilen indarkeria madarikatzen ez badu, mezaren bukaeran, "zoazte Jaunaren pakean" abestu baino lentxeago, mikrofonora jo, eta, aurkako idazki au irakurriko diagu."

- "Arrika aterako gatziek. Emen, inguru-minguruetan karka geiegi ikusten diat."

gi ikusten diat."

"Diotenez, apaiz gaztea, geuretarra, ezkertarra omen dek, eta, seguru asko, madarikatuko dizkik itzez eta mitzez, oiuz eta de-
adarrez, zibilak eta grisak."

"Ez pentsa olako ezkertar danik. Mikelen emaztea maite dik eta
Ambrosiren biotza ez mintzearren, ez dik tutik ere aitatuko."

"Orregegatik be, itzegingo dik. Ambrosiren laguna dalako. Eliz-
-lanetan, beti berarekin kontaktzen dualako. Bizpairu itz gutxi-
nez espero dizkiat, nik beintzat. Jakina diagu, Mikel amenazoa
arturik dagola eta zeozer esateke ez dek geldituko."

"Dena den, elizako arriak ixilik izan arren, elizkizun bukatze-
an, manifestamenean, erriko enparatzaeraino joango gaituk, eta,
an, elizan irakurtzerik ez baldin badaukagu, deia, agiria, ira-
kurriko diagu, naiz eta grisez beterik egon enparantza."

Kanpa-dorreko dun-dun zaarraren doinuak, bat batean, ebaki ditu jen-
dearen berriketa biziak. Mamidunak eta gatz-gabeak, jolaskoak eta bar-
regarriak. Eta, denak, alkar-izketari bukaera emanaz, ur-bedeinkatu
ontzian beatzak busti ondoren, "Aitaren" eginaz, elizaratu dira.

Bereala asi da organo aundia, ederki asi ere, "Zein gozo ta eder
dan anaiak alkartu" abestia jotzen, eta jendea, gogotsu, kantatzen.

Ordurako, ongi begiratuz nor non jartzen zan, jarria zan bere aul-
kietan. Iritxi batekoak, leku berezian. Beste iritzikoak, auengandik
urrutiraxeago. Zaarrak zaarrakin. Baserritar jendea naasi. Aurrak, gu-
rasoen ondoren. Neskatxak, beren liraintasuna erakutsi zitekean alder-
dian. Baina, auek'ere, taldeka. Iduri batekoak, emen. Aren aldeko-
ak, an. Neska-zaarrak, apaizaren itzaren eraginak, gizonen aurpegie-
tan, zer nolako ikara, zer nolako irribarra, zer nolako iluna jarri-
ko duan ikus-naian, erne, tokirik onenetan.

Ambrosi, eme polita, ama galanta, Errekaldeko lantegiko Mikel ue-
zabaren emaztea, poliki, jantzita, amatasunak bularretan emakumeari
eman oi dion berezitasuna, nortasuna, bikaintasuna erakutsiz, antxen
zegoen, basterrean. Ondoan, bere ama Inaxi zaarra. Mikelik ez zan

agiri. Seguru asko, eliztar ez bai zan, bere poxpolintxoa zaintzen gelditua zan etxean, edota bildurraren mendeko zan egotegian.

- "Erruki, Jauna. Kristo, erruki. Erruki, Jauna."

- "Lenengo irakurgaia Jakinduriaren liburutik."

- "Bigarren irakurgaia Pablo deunaren liburutik."

- "Jaunak esana."

- "Aintza zuri, Jauna."

- "Alleluia, Alleluia."

- "Jauna zuekin."

- "Eta zure espirituarekin."

- "Jesukristoren ebanjelioa San Mateoren liburutik."

- "Aintza zuri Jauna."

- "...Horionekoak, pake-zaleak, euren baita zeruetako erreinua..."

- "Jaunak esana."

- "Eskorrak zuri Jauna."

Mezaren unerik onena iritxi da. Egarrri biziz opa izan duten itzaldia entzuteko aukera dute erritarrek. Imanol meza-emailearen itzek, laister, urratuko dute eliza nausiko aizea.

Jendea, oarturik, sermo-deboran, ixil-gogorrean egon bearra izango duala, ez tul eta ez tul, egin ondoren, patxadaz eseriko da, erne, apai-zaren itzak bere burdira ekarri eta kalean naikeriz erabiltzeko, edota, itza janaz, saldukeriz, kuartelera eramateko.

"Noski, erritar maiteok, pake-zale degu Kristo. Pakea eman eta zabaldu nai du munduan barna..."

Gure pake-ametsak, aspaldi ontan, aize zakarrek eraman dizkigu, auskalo noruntza...

Mundua naasi daukagu. Gure munduak, aste onetan bezala, lengo-etan ere bai, pake-gosea erre digu. Pakearen orde, eta trukez, ontzi zikinean, burruka, gorrotoa, eskaini digu...

Or, mundu aundiko naasketak. Dela Honduras, dela Panama, dela Libano, dela Txina...

Or, gure mundu koxkorreko, lengo asteko eztabaidak eta korrikak

eta kristal-puzkaketak eta zigorrak...

Mila problema ditugu Euskadiko keleetan. Problemak, giza-arteri buruz, problemak langintzari buruz...Problemok kaleko pakea puzkatu digute. Eta, denok zerbait egin bearrez gaude. Gugandik, keleetatik, deabrukeriak eta zikinkeriak eta zorakeriak eta indarkeriak, uxatu bear ditugu...Jainkoak, inolaz ere ezin dezake ontzat artu gure kaleetako elea...

Egunotan, oso errez, zapaldu ditugu gizonen eskubideak, orrekin, txikituz pakea. Ziurki, aldaketa bat sortu-arazi bear degu kalean, anaiki bizi gaitezen, pakean bizi gaitezen ideia guztietakoa...Goikoak eta beekoak, nagusiak eta langileak, gorriak eta txuriak, elkar-maitasun ederrean bizi bear degu...

Bear bada, benetako pakea lortzeko, derriorrezkoa izango degu iraulketa, erreboluzioa. Lendabizi geure biotzetan. Gero keleetan. Beti ere, ordea, Jainkoaren legeari jarraituz...

Erria maitatu bear degu. Askatasun osoa lortu arteraino lan egin. Errefuxiatuak etxeratu...Bainan, ortarako eta artarako, bide zuzenak, artu bear ditugu. Sekuestroak, ilketak, astinketak, apurketak, noski eta noski, ez dira pake-egileak. Askatasun-bidea sasitu egiten dute...

Pake-zaleek eta zuzen-zaleek, gizonen artean, arantzarik izan ez dadin, sasia dagoen tokian, guztiz zapaldu bear dute. Eta, ori lortzeko, beste biderik ez-eta, matxinada, iraulketa, egin bear baldin bada, noski eta noski, ez degu zapaldu bear Kristo gure lendakariaren legerik, ez mendikorik, ez itxasokorik.

Zikina eta gaitza uxatu ditzagula, gureartetik eta guztiontzako giro gozoa jarri dezagula gure kalean. Zuzen-gose-egarriz, izan gaitzezela gau eta egun. Ongi esanak biotzean gorde eta oker esanak, berriz, erre kara bota. Amen-Jesus."

Meza bukatu danean, ze esan paltarik ez da izan keleetan, tabernetan, sukaldetan. Eta, txoko eta zulo guztietan, bakoitzak, kolkoan

josi duan apaizaren itzaldiari, bere kolorea emanaz, sasi-jainko, agertuko dio lagunari.

- "Bai, ederrak esan dizkik."

- "Garbiago esan bear zizkian gauza batzuk."

- "Oiek, beintzat, meza-ondoren, manifestamenean, enparantzaraireno joan direnak, ez dituk batere konforme."

- "Oiek, beren kukurruku jo arte, inoiz ez dituk gelditzen."

Enparantzaren erdian, ikus zitezkean pankarta mordoa, beltzez idatzirik:

- "Errefuxiatuak etxera."

- "Exakurrak kanpora."

- "Presoak, kalera."

Kalea, ala ére, bizirik, berorik, arnasaz beterik zegoan. Meza-ondoren ere, kalea, lapiko aundi.

XI

Ezurretaraino ikara, arimaraino beldurra duelarik, goizean-goiz, oindio kaleak utzik, burutik eginda bezala, joan da Mikel, Errekaldera. Lantegira.

Goietan, laino beltza zan. Kaleetan, berriz, bezperako apaiz gaztearen itzaldia, sorgin-dantza biurrian zebilela zirudin. Tabernak, kafe-tegiak, giltzaz, klisketaz, sarez, itxita izan arren, edozein tokitik pasatzean, Mikeli iduritzen zitzaion, beregatik, marmarrean zeudela etsaiak.

Gau-pasa eginez, bere etsai ospinduak, zurrut eta zurrut, zurrut ba-koitzean, bera, nola garbituko asmatu naian aritu direla gaur goizean, esaten dio bere buru naastuak. Eta gabeko eta goizeko mus-aldi luzean, ordago bakcitzean, joku-aletan, bere burua jokatu dutela eta jokatzeari direla, pentsatuz, azkar-azkar, pasatzen da taberna aurretikan, buruari zorotasunez eraginez, txutzumutxuka esanez:

- "Or zaudek nere arerioak. Goiza izan arren, oindio or zaudek ni ikustearren, eta, gainera, ni emendik eta andik pasatzean, beti ere, gorrotoz eta ardoz mozkorturik, or dago Mikel, gar-raxika kantari, kantari amorrus politikak zikinari jarraituz, kantari aspertzeko, or, or dago gure perretxikoa, kantari, or non dagoen "inpesto reboluzionarioa" ordaindu nai ez duan Errekaldeko nagusia, kantari "Askatu Barrabas: gurutz-iltzatu, Kristo". Madarikatuak. Uztelak. ETA-tar aluak... Apaiza aurretik dezuela, denok zerate diabro-kume."

Lantegian, gaur, goiz eta arrats, langileei begiratzeko barrenik ez du izan. Ofizianako, beti ere, zoro-aizez beteriko buruari eraginez eta bere bi esku zabalekin eutsiaz, landako lurrei, begira eta be-

gira, leiopeko erreka garbiari, begira eta begira goiko zeru beltzari igaro ditu orduak.

Etxera bazkaltzera joateko gogorik ere ez du izan. Bidean, atso zarrak ere bietzarekin erakutsiko ziotela elkarri iduritzen zitzaion, eta gazteek, berriro ere, tabernetatik ordagoka asiko zitzaiela, bereala bera, Mikel nagusia, garbitu naita.

Bazkari legea egin ondoren, langileak arratsaldeko langintzari ekin diotenian egoera berdinean zan, Mikel, ofizinako leioan.

Barneko iluna urratuz, argia bila nai du. Zeruetako argia. Barneko argia. Bainan leioa zabal-zabal euki arren, eguzki-errainurik etzaio sartzen barneraino. Tarteka-tarteka sorgin-orratzek jotzen dute bere bekoki zabalean.

Bainan, eguzkiaren sorgin-orratzek ez dute indarrik Mikelen barneko lainoa urratzeko. Axaleko begiekin zeruetako odei beltzak lertzen eta euriarekin erasotzen ikusten dituen bezala, gibeledo begiekin, bere burua, trumoi-adarrez eta baldar beltz-beltzez, betetzen ikusten du. Ondean, bere emazte maitea eukiko balu ere, ezingo lioke urratu barneko odei beltzaren ilun garratz-madarikatua.

Bere buruetako trumoi-adar azkar eta ugariak ikustean, bat-batean, buruari gogorki eutsiaz dio eta dio ofizinako leioan, inguruan inor daukan edo ez, ardurarik gabe:

"Ez. Ez diat "inpuesto reboluzionariorik" eta kaka-zaarrik eta adarrik, ordainduko. ETA-tar seme puteok, ez zerate ez euskaldun, ez giza-kume. Zerate...terrorista. Zerate...aluak. Zerate...puta, kabroi, erio, sida.

Ze? Ni espainolista-kapitalista naizela? Ni droga zabaltzailea eta saltzailea naizela? Ori dek alea, gezurti eta gezur-ontzi pozoiuok.

Ni nauk Mikel, Errekaldeko nagusia, nagusi ondrea. Or Izarraitz mendian nere jaioitz-etxea, baserri txuria, pakean lagata, neure diruz, neure lanez, lurra jorik zen lantegia jaso duana. Leen basarritarra, nekazaria, artzaia. Orain, kaletarra, kalea

bere zerekin, lagunekin, tabernekin, dantzakin, puta-etxeekin, gibellean daukan gizona.

Maitze-minez eta eskon-bidez aur txiki polit bat Ambrosigandik ekartzzea aal izan duan gizona, arra.

Or, Errekaldeko lantegia, beti ere goraka. Lan-ezaren bildurrik etzekate nere langileek. Au, ixtea naikoa, aienea eta gosea errira ekartzeko, bainan ez diat nai, naiko txanpon euki arren.

Eta txanponak nereak dituk. Ez dituk ETA-tarrenak. Diruok nere etxea zaintzeko dituk. Nere Ambrosirentzat, nere umearentzat... eta ez, txarri-urdeentzako. Mekauen laputa."

Sekulan amaitzen etzaion goiz eta arratsalde onetan, ekaitzetik ezin izandu eta ezin du askatu bere bururik. Bere biotz beroa sordu luze-etan ezin izandu eta ezin du preskatu. Goiz-goizetik trumoi giroan sartu da. Arratsean, berdin dago. Ekaitzpean.

Aatik, lantegia gogotik zearo juana dauka. Bestetan bezala, leiatiletik ez ditu zaindu nai langileak. Egun beltz onetan tailerrik ez zan bere gogoan. Kriston ekaitzak erio aurreko ekaitz bildurgarriak puzkatu zeukan bere Errekaldeko diru-iturria. Andregai bilatu zuan leku-santua, laztanka amodioz, gorputzak loturik, lanbizikoz, biak, arra eta emea, Ambrosi eta Mikel, egon ziran toki ura, ber-bera, ofizina, orain, ekaitz-leku, gartzela ilun du.

Bai goiz, bai arratsalde, zerbait galdetu naita, bein eta berriz, lan-zaingoak eta arduradunak atean jo izan diote, bainan erantzunik ez artzean, kezka edota azpikeriz or-konpon esanaz, itzuli bear izan dute makina eta langile artera.

"Zuen galderen erantzunik ez diat. Atea bein eta berriz jotzea alperrikakoa izan diat. Aatik, segi lasai lengo lanean."

"Ik egin didaken galdera aidean gelditu dek, Mikel ofizina barruan egon arren, etzekiat zergatik, ez ik kasorik egiten, edota lotan zeok. Biar izango dek erantzuna."

"Ire gaia kolkoan dutelarik joan nauk Mikelengana, bainan al-

perrik. Etzidak aterik zabaldu. Leiatilatik, diximuloz begira-
tu diat barnera, eta, bera antxen zegoan leiotik begira eta be-
gira landara, beti ere, buru-eraginka."

"Leen bezala gelditzen aiz. Mikelekin itzegiterik ez diat lor-
tu. Akaso lotan egongo uan. Akaso, apaiz gaztearen atzoko itz-
aldia barneko lapikoan egosten. Akaso manifestamenean esandako
itzak irentsitzen. Auskalo zer duan gaur. Beintzat, kasorik ez
dik egiten."

"Orduak jo arte, segi formal lanean."

"Mikelen erantzunik ez izan arren, badakizue gaurko lana nola-
koa lezuten. Mesedez, okerrik izan ez dezagun, jarrai lanean,
denon onerako izango dek-eta."

San Martingo erloju aundiak euritan buztitako xei dangateko gogor
eta luzeekin lanaren bukaera jo duanian, langileak, banan-banan, lane-
ko erropa zikinak galtzarpean artuta kaleratu direnean, Mikelek, ez-
ustean, oartzeko, leioa itxi, eta ameslari, trumoi girotik ertetzeke,
lantegiari makinak ikusiz eta ikutuz itzuli osoa eman ondoren berriz
ere ofizinara jo du.

Kaleratzeko ez dauka presarik. Barneko trumoi-ekaitzak darion ilunak
bere zer gztia zikintzen eta mintzen dion bezala, ez ote dion zikin-
duko eta minduko, orain arte ain maite izan duan kalea, pentsatzen
du pauso bakoitzean. Une onetan, ofizina barruan bakar-bakarrik, ortz-
eko ilunak, erria menpeko artzen ari danean, kaleari bildur geiago
dio, noski.

Zorabioan daukan buruak, oiuka, adi-erazten dio, gabeko eta goize-
ko mus-aldiari jarraituz, bera kaletik pasatzean, zurrutariak ordago-
ka asiko direla.

"Or, berriz ere, non dagoen Mikel, Errekaldeko ugazaba. Orrai-
tio, oindio ez die garbitu. Oindio, ez dik ordaindu "inpuesto
reboluzionario" delakoa. Ordago. Bai, ordago."

"Txarri-urde eta txakur emeen semeak."

"Ostia. Garbitu al zaitue, trumoi artean, tximistak."

San Martingo erlojuak, iluna urratuz eta gau-txoriak ixutuz, amarrak jotzean, etxeko minak eraginda, barneko ikara menderatzeke euki arren, argiak itzaldu eta atzeko atetik ertetzea erabakitzen du. Gainera, kaleko bidea lagata, Izarraitz mendiaren barreneko labur-bidetik etxeratuko da. Biotzik eta adorerik ez du kaletik pasatzeko. Zanbuluka, kili-kolo, joango litzakela adierazten eta kontatzen eta kantatzen dio saminkari barneko trumoiak. Aatik, lantegi atzeko ixiliko atetik eriten eta Izarraitz azpiko bidetxiorrez zuzenduko da etxera.

Atea dardaraz irikitzean, sekulako trumoiak jotzen du, Izarraitz-pean, dangatekoa bailera osora zabalduz, etxeetako kristelak dardaratzuz, aurtxoak esnatuz, aitona-amonak ikaratuz.

Euri-tanta potolak erortzen asi dira Errekalde-inguruan zugaitz-ostrotetan, bade ziorreko lokatzetan, putzuetan, bestetan ez bezalako soinu trixuea joaz.

Atea giluzaz ongi itxi orduko, aizeak, negarrez, jolas narraxez, Mikeli, bere gorputz galantean erasotzen dio. Eta, bat batean, trumoiaren atsedenaldian, aize txistuarekin naasitako lau edo bost tirokadaren punp-otsak, puzkatzen du gau ilunaren ixila eta loa.

Aienerik ez da entzun. Bearbada, aize biurtu da. Bakarrik, erortzean, gorputzak lur buztian atera duan zartada aditu da eta segitun oiartzunik gabeko punp-ots bakarra. Errekalde lantegiaren atzeko bidexiorraren ondoko baserriko aitona, noizean beingo zurrumurrua entzutean, zor ikusi, ikuiluko ate aundia zabaldu du. Atarian, inguruminguruetara begiak luzatu ere bai.

An zegoen, lur buztian, loi-zirtaz zikindurik, odol-jario izugarrian, luze-luze, Mikel, Errekaldeko lantegiko nagusia.

Gabearen itzalpean antxintxiketa azkarrean, igezka, iru gizonetzko ikustea, aul izan du. Laister zan, gabaren loa aztinduz igeslariak kotxea abi-araztean, ateratako zarata bildurgarria.

Beiak, ikuilu barruan, aitona zaarrak, zabal-zabalik lagata zeukan atetik sartzen zitzaien aizearen soinuarekin bat eginez, marru eginez, gau kantuan asi ziran. Inoiz ez ikusitako eta entzundako ileta-kantuan.

Ziurki, aldi luzeak guztia aztu egiten du. Alperrik oiuka edozeinen erio ondoan kantatuko degu: "Ez zaitugu aztuko".

Mikel bizi izan dan edo ez, Errekaldeko lantegiko nagusi izan dan edo ez, "inpuesto reboluzionarioa" delakoa ordaindu duan edo ez, droga sal-erosle izan dan edo ez, Izarraitzko belardietan ardiak eta auntzak, lar-beiak eta biorrak aitaren etxerako utzita, kaleratu zan edo ez, inortxok ere ez du gogoratzen. Mito, gezur-ipuin, izan da, noski, Mikel. Zurrunbiloan galdu da bere igena eta izana.

Iltze egunetik urte osoa pasa arren, lenengo egunean bezalaxe beren gogoko, bakarrik kale-etxeokoeak dute. Emazte Ambrosik, amona Inaxik, alabatxo Amaiak, ezin dute aztu, Egunero, ilunabarrean errosarioa esan ondoren, Amaia txikiak galdetuko diete:

- "Amatxo. Amonatxo. Non da aitatxo?"

- "Maitelino. Aitatxo zeruan dezu."

- "Amona. Noiz etorriko da aita?"

- "Amaia. Aita ez da etorriko."

- "Zergatik ez? Zergatik ez?"

- "Zeruan, guztion etxean ikusiko gera."

Sarritan, kirieleisonak esan ondoren, neskatila oeratura bereala, ama-alabak, malko artean, ekin izan diote elkar-izketari, beti ere, Amaiaren loa puzkatzeko bildurrez.

- "Alaba." Mikelek ger egin din?"

- "Ama." Zergatik il digute Mikel nerea?"

- "Alaba." Mikelen len azken itzak zeintzuk izan ote itunan?"

- "Ama." Mikel gureak, nola begiratu zien iltzaleei tiroak artzean jakin nai niken."

- Ama.

-Alaba.

"Iltzaleei barkatzeko kemenik izan ote zinan?"

"Zeriko Jaunari bere pekatuen barkamena eskatzeko astirik izan ote zinan?"

"Jainkoa guztiz one den, Ambrosi nerea."

"Noski, ama. Jainko Aita ona da."

Kaleak, ordea, zearo aztu du. Kaleak, barrurik baldin badu, ez dio galde berru ilunari, zer egin duan, zergatik garbitu duan, zer esan duan tiroz josita lurrera erori danian, nola begiratu dien iltzaileei. Kalea, Mikelen erio ondoan ere, lena izango da. Otza. Gogorra. Kupida gabea. Sorgin-etxea. Galipot-lekua. Orain eguzkiak, orain eurriak, orain tramoiak, orain tximistak, orain kazkabarrak joko du.

Kalean jaiak bezala, mendiko baserrietatik kaleratuak berdin, kalean gora, kalean bera, buruko minez baterik ibiliko dira. Egun alaiak eta trixteak izango dituzte. Mozkorrak eta mari-zikinak aziko ditu. Eta azi ala, Patxiz, Imanolez...beteko ditu, sekulan aspertzeke, erri guztietako kale-zuloak eta izena izan, gau-txori eta perretxiko, putetxetan ibiliko dira gabaz, eta egun argiz, zulorik zulo, neskatxen usaina artuz, eta bai egun eta bai gau, tabernaz taberna wizki, ardoa, bermuta, limonada, biterra artu eta artu.

Kalea, antik, Mikelez eta iltzailez eta sasi-salbatzailez beteko da. Emendik aurrera ere, ilketak, sekuestroak, gorrotoak, xextrak, etenik gabe, erruz, izango dira. Giza-kumeen kumeak ere, norberekeriz, kaleak oro zikinduko dizkigute.

Politikarien eldutasunik ezak eta eskuarte eta ukalondo aundiek, atzo bezala gaur, eta gaur bezala biar, izugarritzko naste-borrasteak sortu-ariko dituzte kaleetan. Orregatik, errietan, sendatzen ez diran gaixoak, stripuz eta tiroz iltzen diren errugabeak, gartzeletan abertzale diren gazteak, txiroak, motxaileak, droga-zaleak, putak, marikoiak izango dira. Eta putetxeak eta kafetegi-amerikanoak...

Kaleak danda politez beteko dira, eskaparateak, galtzontziloak eta bragaz, alkondaraz eta gonaz, pastelez eta karameloz, txerrikiz eta

ardikiz, oïlokiz eta arraikiz, gainezka dituztelarik.

Kaleak bere zerik ez du galduko, oiturak aldatu arren. Aldaketak eta zuri-beltzak, eta gazi-gezak izango ditu, bainan, kalea beti kale, eta kaletarrak kaletar, beti ere, kale-giroan zorabiatu-rik.

Pentsatuko du gizonak kalearen jaun eta jabe dala. Esku luzeak ditula. Aginpide eta indarra, eta lege-egiteko aalmenak dituala pentsatuko du, Mikelek eta Imanolek eta Patxik pentsa izan duten bezala. Mikeli, Izarraitz azpiko bide-ziorrean, aizeek eta beiek marruz, sorginkerizko iletan orren gezurra abestu zioten bezala, il-errian, pinu-adarretatik abestuko diote edozein kaletarrari:

- "Uste ori, auntzaren gabeko eztula dek."

- "Ire aalmenakaxkarra dek."

- "Ire esku luzeak moztuko zaizkik."

- "Kalearen mugarria emen zeok."

Aatik, Mikelen eta beste edozeinen erio-kanpak eraginda, alegia, asko eta asko, pentsatzen jarriko dira kalean, ez gerala mundura etorri, orain artean egin deguna egitera bakarrik. Lana, txikiteoa, puteria, alukeria egitera, alegia.

Noski, bakoitzak bere kalean, bere lanean, bere politikarian, bere tabernan, bere premian, bere aberastasunean, bere zuloan, ala bearrez bezala, egin omen ditu gauza oiek. Beti ere, kaletarrak bere zulotik burua arroki aterata ekin omen dio urteetan barna kelejirari, kalejira atseginarri, kalejira gogorrari, kelejira narraxari.

Gaur egun, askok garbiki ikusten dute, kalean, burdia, bide ez-berdinetatik erabilia izan dala. Politikazko, sandakintzako, langintzako, apaizgintzako bideetan, sarritan alperkeriz, azpikeriz, zikinkeriz ibilia dala jendea, usainka jarri da gaztedi berria, asmatuz, bide oietatik burdian ekarritako pozoitutako fruituekin galdu eta uz-
teldu dala kaleko pakea.

Eta, asebetez, gurdi oietan ekarritako eguneroko ogiarekin eta eguzkiarekin, eta legorrarekin, eta ur- ezakin, eta zikinkeriak eta betiko oikeriekin, zearo aspertuak, kaleko gazteek, bide berriak ur-

ratzea erabaki dute, arrazoiz ipiniz, sarritan, derriorrez bezala, nai ez genduan keleetan ibiliak gerala urte mordoan.

Kaleak, dudarik gabe, Mikelen erio ondoren, izugarritzko aldaketa izan du. Noski. Nabarmen dago. Oitura zaar eta ideia uztelasko aizeak eraman ditu, aize-egite orretan naiko arte eta parte, Imanol apaiz gazteak dualarik.

-"Etsaia ere maitatu egin bear degu."

-"Legesak ez dio kristauari utziko gorrotoarekin iltzen, Komunista bateri laga arren."

-"Elkar maitasuna eta justizia bear-bearrezko ditugu."

-"Ez, Kristo erregearen eta ez, askatasunaren izenean, ezin dezakegu inor garbitu."

-"Langileen eskubideak sakratuak dira."

-"Kristoren izenean sarritan geure erreinua eman eta zabal nai izaten degu."

-"Inor zapaltzea nai baldin badegu eta inor iltzea eta inor jottzea, egin dezagula politikaren izenean, baina mesedez, ez Kristoren izenean."

-"Justiziaren oinlari eta irrintzilari dan Jesus, ezin dezakegu nolana artu aon."

-"Aberria askatzeko eskubidea daukagu. Erri berezia geranez, beste erriak bezala askatasunean bizitzeko eginak gera, baina, askatasun ori lortzeko bide zuzenak bilatu bear ditugu."

-"Aspaldin, gure erria, guztiz sasitu zaigu. Onegatik eskori, arantza artean ibiltzea toka zaie. Mokoka daukagu gure erri zaar maitea. Guztiz naasi. Aatik, pake-zale, egin bear degu lenba itlen gure barrena. Zuzen-zale. Bide zuzenetatik eraman bear degu askatasunera gure erria."

-"Asaba zaarregandik artutako fedeak lagun dezaiguke lanke-ta orretan eta beste guztietan."

Noski, Mikelen erio ondoko urte luze onetan, Imanol apaiz gaztearen jaietako itzaldiek argi berriz jantzi ditu erriko kaleak, eta batez ere gaztediari etorkizun ederragoa agiteko bideak erakutsi dizkio.

Alare, ortxen, kale zuloan, beren kabian, geldituko dira aurrerapenaren eta askatasunaren trena artzeke, Imanol eta Patxi, apaiz eta neskazaarrak, droga-zaleak eta mozkorrak, iltzaileak eta diktatoreak.

Bainan, denentzako, aide zabalean oiulari ibili ondoren, or gelditzen da kaleko galipotari itsatsirik galdera berezia:

"Kaleak, abiadura azkar-azkar bat artuko ote digute pake-egiteko?"

Ala alarik, pakearekin edota pake-ezarekin, gero aldiari buruz, kalea beti kale.

Melo Alfereza